

munibe

SUPLEMENTO - GEHIGARRIA 34

ZIORDITIK UZTARROZERAINO

Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an

Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa oinarri

III. ATALA
ENTZUNGAIAK



Koldo Artola



ARANZADI

zientzia elkartea . sociedad de ciencias
society of sciences . société de sciences



KOLDO ARTOLA

Donostian, 1938an jaioa
Aranzadiko Etnografi Saileko Kidea
Euskaltzaindiko Ohorezko Kidea

Argitaraturiko lanak:

1975: *Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!* – FLV 25.

1980: *Erronkariko uskararen azken hatsak... oraino're!* – FLV 34.

1985: *Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan* (Aingeru Irigaray-ri omenaldiko liburuan) – Eusko Ikaskuntza.

1990: *Euskararen muga 1980. urtean* (Josu Tellabiderekkin batera) – FLV 56.

1991-2000: *Fidela Bernat anderea, euskal hitzun erronkariarra (I eta II)* – FLV 58 eta 85.

1992: *Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (hurbiltze-saiakera)* – FLV 60.

2001: *Olaizko euskal eskuizkribuak* – FLV 88.

2002-2006: *Zaraitzuera aztertzeke ekarpen berriak* – FLV 91-99 eta 102.

2002-2007 eta 2010-2012: *Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan* – FLV 103-104 eta 112-114.

2008: *Milafranga: duzük adizki bitxiaren iraupena eta izan = ukan iragangaitzean* (Jean Haritschelhar-i omenaldiko liburuan) – Iker 21, Euskaltzaindia.

2012: *Euskararen azpibariatateak, Pedro de Yrizarren ekarpen berria* – Egan 1/2.

Talde-lanean:

1983-1990: *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa (I) eta (II)* – Aranzadiko Etnografi Mintegia.

Laguntzaile gisa:

1991-2002: Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar...* gaiari buruzko lanetan – Euskaltzaindia.

1997: Bernardo Estornes Lasaren *Diccionario español / Erronkariko uskararen hiztegia* izenburuko lanean – Nafarroako Gobernua.

Azala:

Antonia Anaut andere euskalduna Idoia Artola haurrarekin, 1974ko *Idoien Festa* hastear zela, Izaban.

munibe

SUPLEMENTO - GEHIGARRIA 34

ZIORDITIK UZTARROZERAINO

Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena,
1983an

1983 eta 1990ean argitara emaniko
Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL) oinarri,
Marcel Cohenen inkestaren arabera

III. ATALA

ENTZUNGAIAK

Hainbat eratako hizketaldiak, CD batek lagundurik

Koldo Artola

Gomendatutako katalogo fitxa:

ARTOLA KORTAJARENA, Koldo

Ziorditik Uztarrozeraino: Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an / Koldo Artola; [Lanaren irakurketa eta zuzenketa: Xabier Artola Malangre; Entzunezkoen moldaketa: Eunate Artola Malangre; Aholkularitza etnografikoa: Fermin Leizaola Calvo]. – Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte, 2014.

Edukia: 1. libk.: Inkestaren lehen zatia. – 295 or. -- 2. libk.: Inkestaren bigarren zatia. – or. 296-523. -- 3. libk.: Entzungaiak: 128 or.: ir. kol. + CD + map. tol. – (Munibe. Suplemento, ISSN 1698-3807; 34).

L.G. SS 1419-2014. ISBN 978-84-941323-9-1(O.C.)

Atarian: 1983 eta 1990ean argitara emaniko Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAL) oinarri, Marcel Coheren inkestaren arabera.

1. Euskara – Nafarroa – XX. mendea

C.D.U. 811.361(460.16)“19”

O

Munibe zientzia aldizkaria 1949.urtean hasi zen argitaratzen. 1984. urteaz geroztik, bi sailetan banatuta dago. Bata, Munibe Antropologia-Arkeologia, 1132-2217 ISSN-duna; eta bestea, Munibe Natur Zientziak, 0214-7688 ISSN-duna. Biek hainbat Eranskin dituzte osagarri modura.

Zuzendu gutunak helbide honetara:

SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Zorroagagaina 11 • 20014 Donostia

Tel. 943 466142 • Fax 943 455811

e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus • www.aranzadi.eus

Lanaren irakurketa eta zuzenketa: Xabier Artola Malangre.
Entzunezkoen moldaketa: Eunate Artola Malangre.
Aholkularitza etnografikoa: Fermin Leizaola Calvo.

Maketazioa: TamTam S.L.
Inprimatzen du: Gráficas Lizarra, S.L.
Audio CD-en prestatzaileak: Sarbide S.A.

Testuak eta entzunezkoak, dela osorik dela zatika, edozein eratan kopiatzea debekaturik dago, horretarako baimenik gabe.

ISBN 978-84-941323-9-1(O.C.)
ISBN 978-84-943123-2-8 (3. libk.)
L.G. 1419-2014

Antolatzaile Nagusia:



ARANZADI

zientzia elkarte . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

Ondoko herri eta udalek lagundu dute: Ziordia, Altsasu, Bakaiku, Dorrao, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Uharte-Arakil, Murgindueta, Ihabar, Madotz, Egjarreta, Urritzola, Larunbe, Beorburu, Usi, Ziaurritz, Anotz, Olaitz, Ilurdotz, Inbuluzketa, Urniza, Aurizberri, Espotz, Arrieta, Azparren, Garralda, Aria, Hiriberri-Aezkoa, Garaioa, Abaurregaina, Eaurta, Espartza, Ezkaroze, Otsagi, Uztarroze.

Laguntzailea: BERRIA egunkaria

berria

A U R K I B I D E A

ZIORDITIK UZTARROZERAINO NAFARROAN, EUSKARAREN HEGOALDEKO MUGETAN BARRENA, 1983AN

I. ATALA: INKESTAREN LEHEN ZATIA

	ORRIAK
HITZAURREA	6
AITZINSOLASA	8
AURKEZPENA.....	10
BIBLIOGRAFIA	22
RESUMEN / RESUME / SUMMARY	23
HITZEN ZERRENDA ALFABETIKOA, GAZTELANIAZ	24
HITZEN ZERRENDA ALFABETIKOA, FRANTSESEZ	26
HITZEN ZERRENDA ALFABETIKOA, INGELESEZ	29
GALDERAK (1tik-277ra).....	35-295

II. ATALA: INKESTAREN BIGARREN ZATIA

	ORRIAK
GALDERAK (278tik-569ra).....	296-521

III. ATALA: ENTZUNGAIK (Hainbat eratako hizketaldiak, CD batek lagundurik)

	ORRIAK
ZIORDITIK UZTARROZERAINO (ETNOTESTUAK ETA BESTE)	6-128

TESTUEN AURKEZPENA

Hona dakartzagun testuak, inkestekin egin bezala, mendebaldetik ekialderako norabidean aurkezten baditugu ere, eman dizkiegun zenbakiak ez diete inkestenei erreferentzia zehatza egiten, hauek bilduak izan ziren herri guztietan grabazioak egin ez zirelako, alde batetik, eta, aldiz, inkestak egin ez ziren zenbait herritan testu batzuk bildu zirelako, bestetik.

Ekaietan denetarik dago: oso testu onak, onak, duinak, erdipurdikoak, eskasak eta oso eskasak –batzuetan hondar edo apur batzuk baizik ez direnak–, beti ere grabaziorik gehienak bildu genituen 1980ko hamarkadaren inguruan aurkitu genuen tokian tokiko egoeraren arabera. Erabili genituen *cassette*-en artean badira, aski ongi daudenekin batera, gaizki xamar aditzen direnak ere, urteetan zehar, al-dian-aldian, hainbat denda desberdinetan aurkitu genituen materialen nolakotasunaren arabera. Baina *cassette*-en balizko kalitateaz gainera, grabagailuaren egoera onaz ere ez ginen, zoritxarrez, gehiegi kezkatu, gu geu, zera horretan, arduragabe xamarraz izan. Akats hauengatik guztiengatik, beraz –zeinen ondorioz grabazio batzuk era nahiko petralean aditzen diren–, barkamena eskatzea dagokigu.

Transkripzioak egitean izan ditugun unean uneko zailtasunei ere, bestalde, honako tratamendua eman diegu: esaldi bateko zati bat ia aditzen ez denean eta, beraz, ulertzen zaila edo ezinezkoa iruditu zaigunean, parentesi arteko eten-puntuak (...) idatziz adierazi dugu zertzelada hori eta, aldiz, hitz solteren nahiz esaldiren bat, edo egokiro aditzen ez dugulako edota, agian ongi aditurik ere, zer den ez dakigulako, orduan hitz edo esaldi horren ostean parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu.

Bokal batzuen itxierak direla-eta, *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz *i* baten irekiera ere *ë* idatzi dugu (*amazazpë, emendëk, baëa, anaëa, geëago...*) eta *u* batena *ö*, batzuetan *o* (*sartö, lotö, izandö, zarto...*), adibidez. Azkenik, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Galdera-ikur soila, bestalde, erabili dugu ez bakarrik ohiko galderetan baizik-eta tartean galderarik izan gabe ere, berriemaileek esaldiari galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat eta hainbat al-ditan. Parentesiak () erabili ditugu maiz, edo batere aditu ez edo erdizka baizik aditu ez dugun hizkiren bat barruan kokatzeko, eta, azkenik, baita parentesi karratuak [] ere, noizean behin, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu dugunean, hauetan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Testu guztiak geuk bilduak dira, bi izan ezik. Altsasuko bat, Agueda Perkazi jaso, Maixabel Agirrebengoari zor diogu eta Ariako beste bat, Florentina Maisterrari jaso, haren seme Juan Javier Iturrallerdi.

Eta transkripzioak guk gerok egin baditugu ere, Lizarragako testua herri bereko Miren eta Jone Agirre ahizpek errepasatu dute eta Arbizukoa, berriz, bertako berriemailearen alaba Mila Berastegik, Maria Esther eta Rufi ahizpek lagundurik.

Bukatzeko, testuak bilduak izan diren herrien zerrenda eta halakoek, testuek, ukitzen dituzten gaiak aurkezten ditugu. Testuok, denetan nagusi den gai etnografikoaz gainera, beste arlo askotara ere zabaltzen dira, jarraiko koadroetan islatzen diren izenburuetatik erraz antzeman daitekeenez.

HERRI-ZERRENDA ETA ERABILITAKO GAIK

HERRIA	PISTA-ZENBAKIA ETA GAIA	IRAUPENA
ZIORDIA	1. Eguberritako giroa	2'40"
	2. Zerri-hiltzea	4'41"
	3. Donostiako estropadetan	3'47"
OLAZTI	4. Jaiegunetako diru-biltzeak	2'54"
	5. Sanjuanetan	3'33"
	6. Inauteriez zerbait	3'51"
ALTSASU	7. Karlisten denborako kontua	3'50"
	8. Haur-jolasak	5'39"
	9. Ameriketako, koiote artean	5'39"

HERRIA	PISTA-ZENBAKIA ETA GAIA	IRAUPENA
BAKAIKU	10. Sasoika ibilia	6'24"
LIZARRAGA	11. Inoizko bizimoduaz	7'34"
DORRAO	12. Lihoaren inguruko lanak	3'53"
	13. Basaloa	1'41"
ETXARRI-ARANATZ	14. Sugeez zerbeit	1'22"
	15. Kaikua, ardiak jezteko tresna	0'53"
	16. Lizarrusti aldean	4'15"
ARBIZU	17. Sute bat gertatu zenekoa	2'23"
	18. Arruazuko kanpaiak	1'00"
	19. Azienda-bedeinkatzea	1'37"
UHARTE-ARAKIL	20. Lur langintzarako lanabesak	6'21"
MADOTZ	21. Elurretarako korraletak	3'11"
	22. Gazte-denborako giroa	4'49"
MURGINDUETA	23. Inauteriak	2'28"
	24. San Juan bezperan	1'23"
	25. Haur-denboran hamar familia herrian	1'40"
IHABAR	26. Hil ezkilak jotzeko erak	3'19"
	27. Erauntsiak eta araoak	3'55"
EKAI	28. Kontu zaharrak	5'30"
URRITZOLA	29. Ukuilu, ur eta alorren bedeinkapena	4'58"
	30. Promesa gezurtiak	2'49"
	31. Galtzin- eta kisu-labeez zerbeit	4'27"
BERASAIN	32. Ongarri-garraioa	5'41"
ZIA	33. Laboreak neurtzeko kutxak	4'05"
	34. Irurtzungo feria; aitak erakutsi bertsoak	4'21"
LARUNBE	35. Ergako Trinitatea	3'58"
	36. Ogi egiten	3'09"
BEORBURU	37. Lixu egiten	3'22"
	38. Animalien eritasunak	4'14"
	39. Abereak ferratzen	3'50"
OTSAKAR	40. Beorburuko San Bartolome	6'49"
USI	41. Ehungintzaz	3'28"
	42. Haur-kanta batzuk	1'43"
MAKIRRIAIN	43. Hondar-euskara	5'39"
ANOTZ	44. Eultzia	6'25"
	45. Mandaamea erosi Tafallan	5'35"
OLAITZ	46. Hirukiak Erripan	4'23"
	47. Ipuin txikia	2'38"
	48. Kantu edo koplak batzuk	3'46"
ANOZIBAR	49. Aingiriturri	2'26"
	50. Otoitz batzuk	2'14"

HERRIA	PISTA-ZENBAKIA ETA GAIA	IRAUPENA
ZIAURRITZ	51. Iruñeko feriara, oinez	2'25"
	52. San Urbano eguneko giroa	2'21"
	53. Belateko lapurren urkamendua	2'54"
GASKUE	54. Mus izeneko karta-jokoa	3'44"
LATASA	55. Ikazkintzaz	7'35"
	56. Ikazkintzaz (gehigarria)	2'43"
ETULAIN	57. Kisu-labeak eta beste	10'14"
ETSAIN	58. Otoitzak, euskaraz eta erdaraz	4'17"
INBULUZKETA	59. Ijito, saltzaile eta kinkaileroak	3'41"
	60. Kantu pare baten apurrak	0'35"
LERANOTZ	61. Ardien eritasunak eta bizkarroiak	10'28"
AGORRETA	62. San Juan bezperako sua eta Zubiriko iturria	4'45"
ESKIROTZ	63. Ereintza	3'20"
	64. Moxgoa	6'29"
ILURDOTZ	65. Korpus eguneko prozesioa	9'56"
	66. Erleen ziztadak	7'22"
ZAI	67. Balizko euskaldunez galde	3'45"
	68. Inguruko herrietan mintzamolde berbera	1'37"
	69. Kantu xume ezaguna, errezitaturik	0'19"
ARDAITZ	70. Lixuaz eta euskararen ingurukoaz	8'17"
URNIZA	71. Orreagako beila	5'46"
OLONDRITZ	72. Urrozko feriara	4'34"
	73. Beortegira bisita, Bonaparteren mapa gogoan	3'49"
ERRO	74. Artzaintzaren inguruan	6'11"
	75. Abereen eritasunez	6'12"
ESNOTZ	76. Zerri-hiltzea	4'58"
	77. Eultziaz zerbait	5'33"
	78. Talo eta gaztanez	1'38"
MEZKIRITZ	79. Ezpel-goilaragintza eta lanabesak	4'41"
	80. Mando baten tresneria	3'13"
AURIZBERRI	81. Ikazkintzaren inguruan	8'44"
	82. Ikazkintzaren inguruan (gehigarria)	4'02"
HIRIBERRI-ARTZIBAR	83. Elizarekiko ohiturak	4'21"
	84. Herriko festak	4'24"
	85. Inoizko kantu baten hondarrak	1'17"
ARRIETA	86. Zuhaitz-txertoak	3'54"
	87. Iparraldeko artzain baten lanaldi laburra	3'25"
	88. Sorginkeri kontua, Zanduetan gertatua	3'14"
AZPARREN	89. Lelo- eta kantu-apurrak	1'37"
	90. Beste arrasto batzuk	2'29"
GARRALDA	91. Kanadako egonaldia	8'37"

HERRIA	PISTA-ZENBAKIA ETA GAIA	IRAUPENA
ARIA	92. Bordako biziaz eta gaztagintzaz	6'43"
	93. Aurizko feriaz	3'10"
ORBARA	94. Enborren pantanadak	9'53"
HIRIBERRI-AEZKOA	95. Euskararen eta biztanleriaren inguruan	8'35"
GARAIOA	96. Garaia, labore-aleak gordetzeko eraikuntza	7'03"
ABAURREGAINA	97. Gabon-kanta	4'25"
	98. Mendan ibili eta gutxi irabazi	2'48"
	99. Soldaduskako kontuak	3'08"
EAURTA	100. Ama Birjinaren irudia ebatsi zutenekoa	5'12"
ESPARTZA	101. Alaba mojarrekikoak	2'35"
	102. Oihala, zango eta oinen babesgarria	1'47"
	103. Nondik nora ibilia	2'41"
ORONTZE	104. Almadiez eta inguruko herriez	9'09"
EZKAROZE	105. Gaztagintzaz eta beste	5'13"
OTSAGI	106. Haria iruten	5'35"
	107. Ardien larrealdatzeaz, oro har	4'00"
UZTARROZE	108. Tximistak anaia hil	6'04"
	109. Ttun-ttunerako janzkera berezia	8'16"
	GEHIGARRIA	
IZABA	110. Zuberoan ikasi Gabon-kanta	3'39"
ALTZÜRÜKÜ	111. Izaban adituriko Gabon-kanta zuberotarra	2'16"

ZIORDIA (Burunda)

Berriemailea:

Patxi Gonzalez de Mendigutxia Villar, 1904

Gurasoak nongo:

Aita: Ziordia / Ama: Uribarri Ganboa (Arratzu-Ubarrundia, Araba)

1. Eguberritako giroa (1981)

Pues solían andar pidiendo los... los chavales, euskaraz.

– *Esan euskaraz; ibiltzen ziren?*

Bai, ta... kantatzen:

Agur, agur, jendien aurrian
 Berri on bat dekau
 Atenzio on bat iruki beza
 Nok aritu nai badu.
 Ai, ai, ai, Aman(d)ria
 Urri-urri laldia¹
 Nola dukazu nanugurrian²
 Zeles ta lurren Jabia

(Errepikapena)

¹'laurria' egon liteke hor, agian.

²'narrugorrian' da hori, errepikapenean ageri bezala.

Agur, agur, jendien aurrian
 Berri on ba dekau
 Atenzio on bat iruki beza
 Nork aritu nai badu.
 Ai, ai, ai, Aman(d)ria
 Urri-urri lalria
 Nola dukazu narrugorrian
 Zeles tarruen Jabian

Ta gero, gero erderaz:

Esta noche, Nochebuena
 Noche de poco dormir
 La Virgen está de parto
 Y a la noche ha de parir.
 Ha de parir un niño
 Blanco y rubio y colorado
 Que ha de ser un pastorcito
 Pa cuidar su ganao.
 Y una limosnita
 Por el amor de Dios.

Primero en vasco, y luego en castellano cantaban.

– *Eta nondik joaten ziren haurrak?*

Emendi...

– *Hemendik? herri guztitik edo?*

Bai... eskian!

– *Eskean, nondik nora?*

Etxe guzitan! bai... batzuk intxorrak, sagarrak, ta... txakur txiki bat, txakur txikia... zea...

– *Txanponak, dirua...*

Bai, ta ola!

– *Etxe guztietan?*

Bai.

– *Eta gero etxera, afaltzera?*

Ta gero, Urteberriyan? zarrak... eskatzen, eskiän, e(g)urra. Ta, fate zaken... “Amariab!” - “Zer da?” ta - “Egurtxu at!”, o sea que... una leña quería alguno, una leña pal fuego; eso el día Año Viejo.

– *Zaharrak, e? eskean...*

Zarrak, zarrak, bai...

– *Etxetan, e? etxez etxe...*

Bai.

– *Eta Urteberrian ez zen beste kanturik? eta Errege bezperan ere ez?*

Ez.

2. Zerri-hiltzea (1981)

– *Zuk egin duzu matatxerria?*

Nola?

– *Matatxerria egin duzu zuk? txerria hil...*

Bai.

– *Eta kontatuko duzu, euskaraz, nola egiten den hori?*

Atatzen da txerriya...

– *Nondik?*

Ukuluti!

– *Ukuilutik...*

Ikuluti; geo... gizonak, ez!... txerria... matarilia, gantxo bat! sartzen du gantxua; ta geo? gantxua sartuezkeo, gizonak arrapatzen diai ankatati ta... besoti, ta botatzen dei maiara, ta geo... materilia, ori? sartzen du kutxillua, ta gero andra bat...

– *Nondik sartzen dio?*

Lepotik! ta geo? andria? bildu... tzea, odola, tzea... odolkiak iteko; ta geo? erre, txerria erre, zea...

– *Ileak edo biloa...*

Bai, bai, lastoakin-da ori. Geo, ur... beruaki(n), lemizi, teilaki(n), ta gero kutxilluakin kentzen da.

– *Teilarekin zer egiten da?*

Tzea, kendu... dana, da geo? kutxilluakin? raspatu ondo, ta geo? kolgatu! geo tripak at(e)ra? lemizi... lepua, ba... puska bat, kendu emendik... nola esaten da ori?

– *Zintzurria edo?*

Bai... paparakia, para-parakia; paparakia... kendu, ta gero ori, gaubian, danok... jaten da paparaki ori? ta... gi-bela, dana, familia gutzia... jan! geo kafia ta... kopak eta... fuego orduan!

– *Eta gero, zer beste egiten da txerriaren haragiaz?*

Gero, urrengo egunian, partitu dana... tzea, urdaiya ta jamonak eta... gero, magrua, ura... txorizuak iteko, lukaika iteko, ta... gil-birikak, eta... aragia... txarrena, ori... iten da... zea, birikak! txorizua baido... txarro, txarro(g)o, ta geo? txorizuak eta... ein? da geo kolgatu, sekatzeko, sukaldian!... kia iten dok, iten dia, kia pixkat... sekatzeko, ori, ta... jamonak? pues, ta... jamonak, kolgatu! sukaldian ee, danak, ta... urdeiak ere bai. Ta geo, familia guziaz... –esaten da, presentia!– ematen dai... odolkia, ta geo... gibel pixkat, bildu zeakin: barria, o nola esaten da?

– *Barearen ondoan, nola?*

Eztaikit nola esaten da ori.

– *Barearen ondoan?*

Barian onduan duka ori, zea, dana... zer da ori?... sebua bezela dok ori.

– *Bilgorra edo? mantekea edo?*

Mantekea bai, bai, mantekea... baia ori ez, ori dok zea bezela, orrekin bildu...

– *Horrekin bildu...*

Gibël pixkat, geo... urdai pixkat, ta, familia guziaz, pixkat, probatzeko, danok; familiak eta... ami-, amiguak eta danak!

– *Adiskideak eta...*

Aizkiriak, bai; akabo!

3. Donostiako estropadetan (1981)

Se solía cantar:

Lendabeziko Oriyo eta
Donosti(y)a bigarrena
Irugarrena... Gerari³ eta
Zarauztarra laugarrena
Gosbarrengua Pasai San Pedro
'Golondrina' seigarrena
Azkenerako Pasai San Juan
Ori da zazpigarrena

– *Esan zazu berriz; y se cantaba? kantatzen zen?*

En San Sebastián, cuando estaba yo.

– *Zer musikarekin?*

Lendabeziko Oriyo eta
Donostiya bigarrena⁴
Irugarrena (...) Getari eta
Zarauztarra laugarrena
Bosgarrengu(b)a Pasai San Pedro
'Golondrina' seigarrena
Azkenerako Pasai San Juan
Ori da zazpigarrena

³Geroxeago aipatuko diren 1916ko bertsoetan, *Gerari* horren ordeaz, *Elkano* agertzen da; hau, ondoriozta daitekeenez, Getariakoa izango zen.

⁴*bigarr(s)ena* antzeko zerbait aditzen uste dugu hor; baita hurrengo kasuren batean ere.

– *Kontxo! ze urtean hori, Patxi? ze urtean izango zen?*

Ori? mil nuevecientos dieciocho, o ola.

– *Bai, e? ta zu egon zinen han?*

Bai.

– *Ah, klaro, gazte-gazterik...*

Dieciocho o diecinueve [años] o ola, bai⁵.

– *Polita izango zen, e?*

Bai, zea... Donostiko... nola esaten da? el que manda las... traineras ¿cómo se llama?

– *Patroia?*

Patroya? Kiriko!...



Pasai Donibane arraunlariak lehorratzekotan, Donostiako Aquarium aldean - JDL

Dicen los oriotarras
Que tienen miedo a San Sebastián
Porque Kiriko a dicho
Que en Santa Clara los va a dejar
Niña si tu me quieres
Si tu me adoras
Hemos de comprar
Una lancha con remos
Los dos iremos a navegar

– *Ondo! oso polita; orduan zu Altzan zeunden...*

Bai.

– *Altzan, lanean ari zinen eta joan zinen estropadak ikustera (...); hori gertatu zen eta hori kantatzen zen, e?*
Zea... Donostian... (magnetofoiari begira:) ¿se coge eso ahora, se coge?

– *Sí, pero si quiere que no coja, lo quito...*

Donostiyan, eun artan, Donostiko regatea, ba... ¿cómo se? treneriak, bat... ausi zaken tzea... remua, ta bota zaken... itsasoa, bea, ta gero, galdu in tzan, ta geo, esate zaken, tranpia ein deila!... Orduan oriotarrak, jobar! fuerteak zaken orduan! nola esaten zaken, tzea, patroya?... zarra, zaken, zarra!...

– *Bai? nere denboretan famatuak izan dira Sarasua eta...*

Bai! balijja! balijja⁶ dok zea, buelta iteko, e? ta arrek, batzuk, ola, bueltaka; arrek, yeeh! izate(n) tzen.

– *Bai, zuzen, zuzen ateratzen zen, e?*

Bai, bai...

OLAZTI (Burunda)

Berriemailea:

Josefa Ezker Mikelez, 1908

Gurasoak nongo:

Aita: Olazti / Ama: Olazti

⁵ Berriemailea urte pare batez egon zen langile Altzan, Kalonje abizeneko gizon baten zerri-haztegian, 17-18 urte zituenean. Bertsoa, 1916an idatzia, Aita Zavalak 2003an argitara emaniko "Estropadak bertsoan" liburuan aurkitu dugu (*Auspoa*, 281), egilearen izena ezagutzen ez bada ere. Altza udalerria zen orduan, harik eta 1939an Donostiakoa hartaz jabetu zen arte. Bada hemen, haatik, ongi uztartzen ez den zerbait, 1916 hartan gure lagunak hamabi urte besterik ez baitzuen izango.

⁶ 'balizja' da hori, gaztelaniazko 'la baliza', alegia. Hor ageri den j/z txandaketa ikusi izan dugu zenbait alditan; honela, adibidez, Etxarri-Aranatzen 'doa' aditz trinkoaren alokutibo gisa *ziyuek / ziyuen* dugun bitartean, Bakaikun *jijuek / jiyuen* eta Altsasun ere antzera, *jiuk / jiun* bildurik gaude.

4. Jaiegunetako diru-biltzeak (2002)

Salíamos a pedir, decíamos: “Ogi-pazter, talua janda, ogiya laster”.

– *Nola, nola, zer esaten zenuten?*

Ogi-pazter, talua janda eta ogiya laster.

– *Ogi-paste!*?

Ogi-pazter... talua janda eta ogiya laster.

– *Eta ‘ogipazter’ zer da?*

Pues no sé lo que quiere decir eso, pero así cantábamos.

– *Eta hori noiz kantatzen zenuten, Eguberritan?*

Bai, bai.

– *Etxez etxe?*

Etixerik etxe.

– *Ze ordutan ateratzen zineten?*

Ah, goizian!... goizian, bai.

– *Eta nondik ateratzen zineten? eliza ondotik, edo...?*

Bah! etxerik etxe, da erri guztiyan, eskéan, ibiltzen gindan; ta gero Santa Ageda egunian ere? ba orduban ee... esaten e-, kantatzen genduen... je! si me sale, e? diré bien... El otro día estuve, ah! yo misma cantando y no... ahora no me acuerdo...

– *Santa Ageda egunean?*

SantAgeda eguniän:

Bedikatuba izan dailela
Etxe onetako jentia
Pobriezaun erdiaun⁷ biar dekö
Pakia ta osasuna

El día Santa Agueda... cantábamos.

– *Hori bakarrik?*

Eta gero berriz e:

Santa Ageda
Mayan geda
Arramayuen saguba
Aren espera katuba...

Gero... bueno, no tiene qué ver nada, pero... andra bat ibiltzen tzan eskian, eta andra bat ezkide espera esaten tzeon: “Neska, Lutxi, beti eskian abil! eztakin kantaitti ura? artzen badakizu ematen ikasi, bestela ibilduko zada lagunaren igasi”. Eta, la que pedía decía: “A, tontõa! ori eztõn kantaittëa, ori kontuba dö(n)”.

– *Ah, burua ona duzu, e?*

Bai...

– *Ongi gogoratzen zara...*

Bai-bai; ta olaxe.

5. Sanjuanetan (2002)

Gero, San Juan egunian ere? orduan ee... ya a una... plazara, plaza le-... jarritze gintzan? eta orduän ematen zein ardua, arra(t)saldëan? arrasal(d)e... txun-txunaki? eta... ematen tzein ardua eta gaztaiyã, plazako... jende guztiyari; eta... gero San Juana da... kantaita? bãia ez, oi eztakit.

– *Ah, San Juanen kantaita ez dakizu, e?*

Asieria, asieria badakit baya bestela ez.

– *Tira ba, eman hasiera...*

“Irurak iru dira, irurak e mendi(r)a”, pero, no sé más seguir.

– *Eta paratzen zen arbola?*

⁷ ‘pobreziaren erdian’ da hori, antza.

Bai, ta San Juan egunian e, plaza erdiyan, jartzen tzein e... abaitz⁸ aundi bat... Gero, patzen tzein ee, igual e... öilaxko bat edo, puntan, e? eta, orduän e... gizonak ee... bah! iya, nork e... iristen zein e... uilaxk ura; baya, ez ziteke izan? zengeiti... untatzen tze-, eztakit zerekin untatzen tzein ta...

– ‘Sebo’ edo, zerbaitekin...

Irrixtratu iten ziran eta bota, lurrera; ta olaxe.

– *Eta apezak eta... apizak, benedikatzen zuen arbola?*

Bai... bai.

– *Nola esaten duzue hemen? apeza, apiza edo apaiza... nola?*

Apiza... apiz bat; ta gero, mezara faten ginden, domekatan ba... meza nagosiyaa, badakizu. Ta... bueno, orduban ee... jendia... asko faten tzen⁹ elizara; orai ezta faten eunbeste, je!

– *Ez, ez-ez-ez; orai gutxi, e?*

Orai gutxi faten da; eta olaxe ba.

– *Eta etxe-atarietan, egiten zen sua?*

Bai, bai, bai... suba iten tzan; joe! patzen genduen or... maiz-lastöa, badakizu maiz-lastöa zer dan?

– *Maiz-lastoa?*

Maizëan... lastuak, eta... bedarrakin-da monton aundi bat patzen, patzen genduben? eta su(b)a eman? da gero, saltoka an! gaziäk...

– *Haren gainetik?*

Arren gaineti, suban gaineti... ta olaxe.

– *Eta salto edo jauzi egitean, zerbait esaten zen?*

Eh! eniz akordatzen ere!...

– *‘San Juan bezpera, sarna fuera’ edo... horrelako zerbait?*

Eh! e... eniz akordatzen!

– *Zerbait herritan esaten omen zuten ‘San Juan bezpera...’ ta holako zerbait, ez?*

Bai, alako... zerbeit bai.

– *Baina ez zara gogoratzen...*

Ez! eniz akordatzen; aztu iten da!

6. Inauteriez zerbait

– *Eta inauteriak egiten ziren hemen? ihoteak? karnabalak?*

Karnabalak? bai baya orduban, gabai artan ee... ez zago, orai bekela ez, ez... zurian¹⁰, zamarrak; zomorrua esaten gendu(b)en.

– *Zomorruak?*

Zomorruak...

– *Altsasun ‘momotxorroak’ edo... Hemen ‘zomorruak’?*

Emen? tzomorruak; jazten ziran e... gizonak ee, an(d)rein, an(d)reain e... gona aundiyeiki? eta... bah! andra bat bekela, jazten zren¹¹ gizonak, eta gero, eskoba aundi bat artzen tzein, eta... ere-, neskain segi!

– *Eta mutiko koxkorren segi ere bai?*

Bai-bai, bai... baya orai, orduban ez zan e... orai bekela karnabalak eta... ez ziran.

– *Eta orain ere ateratzen dira zomorruak?*

Orai? orai ee... atratzen dira, bai... bai.

– *Eta zer beste (janzten dute)? gona luzeren edo sonbreroren bat edo, aurpegia tapaturik edo?*

Bai, arpegiya tapaturik eta ez... ez zain, ez ziran ezautzen nor ziran, eta alaxe.

– *Eta asko biltzen dira?*

Bai, bai, bai, bai; orai ee... atratzen dira’re ta... baya diferentia da.

– *Eta zer, eramaten dute musikarik edo?*

Bai, musikka¹², ola... zera, danbolina; gabai artan, e?



Olaztiko zamarraundiak
– Guaixe

⁸ Altsasun *aráitz* bildurik gaude, ‘haritz’, alegia.

⁹ *fatra tzen* aditzen uste dugu hor.

¹⁰ ‘ziran’ bide da hori, geroxeago ere, zortzi lerro beherago zehazki, antzeko esaldi-bukaera baitugu: *orai bekela karnabalak eta... ez ziran*, alegia.

¹¹ Laburketa argia, Nafarroako beste muturrean, Zaraitzu eta Erronkari aldean hain juxtu, hainbatetan aditu duguna.

¹² Ohiki *k* kontsonante gorrari aitortzen ez zaion bustidura aditzen uste dugu hor.

– *Eta sonatzeko? flauta edo txistu edo zer?*

Txistutuba, bai, txistutuba... bai.

– *Eta akordeoia ez...*

Bah! garai artan ere bai, asko ez baya... bazon orduan kordëona're, bai.

– *Eta orain?*

Orai? eztakit, orai... oraiko modia eztaki nik; eztakit orai. Orai atratzen dia, bai, baya, gero... gurdiyan tzärrak, zerakin ona... baltzerr andi bat, artzen zein eta, astakeriyak itten zian ordu(b)an!

– *Zer esan duzu? ez dut ongi konprenitu; gurdi batean, zer egiten zuten?*

Ba... zerriak, zerriak, baltzerria esaten gendu(b)en.

– *Baltzerria?*

Baltzerriak; zerr andi bat, eta baltzerriak; orduan ee... artzen zein eskuben ta... ba-, badakit, astakeriak iten ziren, ordu(b)an.

– *Eta baltzerria zer da?*

Baltzerria? ba... baltzerria? ola, gurdiya... badakizu zer dan, gurdi bat bekela?

– *Gurdia, un carro, bai...*

Bai, ba ola... faten ziran ee... por ejemplo, faten gindanian ee... bedarra exke, o... gariyak e... eske, baltzerriak, sartzen ziran zerra batzuk ba... gurdiyan; oi da balzerrëa. Bai, baltzerria? au, zera aundi bat zan, eta zerriä? zerria tikiyo... pa(a)tzen tziran, lau z-, lau zerra tikiyäk? eta... ahora, atzekaldian eta aurrekaldian? iru balzerra? gero paatzen tzirän... ola, o bedarra, o... sujetatzeko, ez botatzeko.

ALTSASU (Burunda)

Berriemailea:

Agueda Perkaz Zufiaurre, 1894

Gurasoak nongo:

Aita: Altsasu / Ama: Altsasu

Biltzailea: Maixabel Agirrebengoa

7. Karlisten denborako kontua (1979)

Karlista-denboran; karlista-denboran? bakizu, emen, ioten emen tzian emen ee... etxe... eskin oitan, or, 'sardinak' eta bizi dian etxe-ale oietan? pertz aundi batzuk eta, tropak? tropak etortzen tzian-da. Emen? etxë ontan?

– *Ni izaten naizen zure etxean?*

Emen? emen? bizitzien tzian San Miel karnizeruanak, eta arek ekartzen zituen ganau-samaldak, eta tropa da mayek aren erpearen erpearen iteto (?), d'etxe ontan? ioten tzian, Cuarto Socorro ori don artian? matadeiya! matadeiya. Eta... klaro! geo tropa aiek etorri tarter-taranter-taranter-taranterkara-terkara, soldaö danei jateko? bakizu? ekarri ber, jana, miles de hombres...

– *Bai...*

Ta bueno, geo? Juan Carlos eo... Carlos Setimo; Carlos Setimo? emen etorri, et-, etortzen emen tzian, borla morau batzuki(n)? eta danak, an-da faten emen tzian, borla airea, ba, nunbaitea?... ta, oi! una guerra importante.

– *Eta nongoak ziren gizon horiek? soldauak eta...*

Soldauak? karlistak, karlistaenak...

– *Nongoak, nongoak esan dezu?*

Jakin duu guk! emen, Nafarroa alde danekuk!... Nafarroa, Nafarroa aundia da, ta geo? bueno... geo? etor tzian ee... gerri ura karli-, karlist-, Iruritan-da, ikegarri t'atakeik izeten emen tzian. Ta, bitartin? emen, karlistak agintzen tzian, e? da geo berriro galdu in tzein, etor tzian beltzak...

– *Bai?*

Beltzak, ta kantatzen tzein e... geo... kanteitan:



Lehen gudate karlistako irudia: 'Acción en el cerro de Aralar, cerca de Amezcúeta y Alegría'. A. Gómez, 1842 - **Stelmo**

Ama Berjina Kontzepzioko¹³
 Zan señaladamentian
 Milla zortziraun irurogeita
 Amalaugarren urtian.
 Nork esango du, zer pasatu dan
 Beltz karlista oien artian
 Donostiatik abiatuta
 Andoainera bitartian.

Asike, gerra-denbori? oso... geo, gur amak¹⁴ esaten tzen, ama txikittu zala? nola... emen ioten tzian, soldaduek beteik gerriya?... eta, karlistak galdu zein garayan? gerri? or, zen e... Sozarreta... zena...

– *Bentan?*

Zen, Sozarret-, Sorozarretako bideberri oi, tropak ezin kaituik! liberal oiek atratzen emen tzian-da, orduan karlista danak, alde, eskapu in tzein. Izaten tzien karlistak eta beltzak.

– *Eta beltzak zein ziren? nongoak edo zer ziren?*

Aik izein tzian e... karl-, esto... liberalak. “Biba karlistak eta muera liberalak, fedian fide-, firme daude, gure jeneralak”. Ori kantatzen tzein karlistak.

– *Eta liberalek zer kantatzen zuten?*

Karlistak ein tzein galdu, eta... liberalak irezi... gerri; aik tzian liberalak.

– *Eta hemengo neskak ongi ibiliko ziren, ezta? hola, soldadu guztiakin...*

Ola? bah! zeatik, garai aietako kontuba, gu ama txikittu zala? pentsa zazu!... gu ama txikixu zala; goai zenbat urte izein dien oiek! eztakit, egun da ainbeste... berraun urte're!... bah! pentsatu leike, mila zortzireun irurogeita, amalaugarren urtian.

– *Ehun urte...*

Egun urte.

– *Ehun da hamar urte...*

Egun da amar izein tzian guztia.

– *Klaro!*

Alaxe ba, gu amak kontu... bertso asko zakizkien, eskuez; orduan dana eskuez iten tzan-da! etzekien erdeaz iork ee...

ALTSASU (Burunda)

Berriemailea:

Francisco Gerriko Goikoetxea, 1902

Gurasoak nongo:

Aita: Altsasu / Ama: Altsasu

8. Haur-jolasak (1990)

– *Zu txikia zinelarik hemen, karrikan, jolasten zineten?*

Bai-bai-bai-bai.

– *Oroitzen zara zernolako jolasak ziren haiek?*

Emen...-ko jolasak orduban izan, prinzipalen-prinzipalena, pilotie; zuk kusten? alakok, ola¹⁵ nola den, bizi dien tzuk?

– *Bai.*

Ori pilotian entrenadore, nik pilotean afizio aundie ureitzen (b)ai. Orduko, bakizu, pilotiak eta, pilotiek iten neen... pilotiek ekar; zuk ezpala baukazu pilotako afizona? je! eztukazu pilotako afizona. A, ala, pilotie, ta geo? ba... beste jolas batzuk e izaten zian: ibai, iberian e bai...

– *Igerian?*

Ibei, ibeikan, ibeikan; eta geo? este... atxikan e bai, atxiya esaten dogu uk, e? olako... eburrekin, e? ya olako, atxiya esan zaio, arri jo? ta geo kalderon, beste zerbat e bai eta, oiek gue...

– *Eta atxia edo atxika edo hori, zer da? ea kontatzen duzun...*

Ori da...

– *Makila ttiki bat edo?*

¹³ Bertso hau, zertxobait aldaturik, Aita Zavalak argitara emaniko *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* izenburuko lanean agertzen da.

¹⁴ *ugamak* aditzen delakoan gaude.

¹⁵ *kola* aditzen uste dugu.

Ez, ez; alako zerbaten... makillakin iten dana, guk emen pagua ero izendu tau asko, orduen-da, arreki(n) eiten dana, ta, ura paatzen dezu... xuti, ezta? eta ura, jo ber dezu? eta zenbaitekinez irruti bota? ta ura, orren... sekretu ori a, irrutio bota tai. Arrek, ioten ezpadau lagunak? botatzen dau? ta, arrek atzertatzen balenau¹⁶, ura geo, jartzen da? eta zu berriz arutza... ola-ola, jokuba ori a, ango orri...

– *Eta zerekin jo behar da?*

Beste makil (b)atekin, bai, bai, alako luxeonto ura? ori a, atxi(y)a esaten doun ure, e?

– *Atxia?*

Bai, atxia. Geigo? guai e... etzet berriro, eztet aitzen, e? este... golf ero, ze esne-? golf ero, inglesez golf. Ah, orrekin ibiltzen dia, arrekin, ja! taki atekin, zulo batia ta geo andik ere bota ta!... geo sigientek xulo batea botatzeko, ta nola ibiltzen dian, alako joku modu bat ero ezta ba nik ze esan, e? beri-berdi(n)...

– *Atxia edo atxiya?*

Atxia, guk esatau, ba, atxia esan dau.

– *Ez dakit ez ote den hori Nafarroako beste zenbait herritan 'toko' edo 'marro' edo deitzen dutena...*

Ez... emen ori a, ori a, guk; emeti kanpo iyon, inulapetetan ibili. Ne gazte-denbora gäyena an [Kalifornian] pasatu neban nik, amar urte pasa nituben da, emezortziti, ogeitazortzi urti bitartien, ta, denbor ortan ba emeko gauza asko ezta... azi iñi(k); ango pai! baia emeko gauzek ee, joko-klasek eta... bitartien etor tzian emen zinek eta, orduen ekar men tzian fermen (?) zine et-eta-ta, guk ekarri ez zineik ez ere¹⁷, nik enakien zer dan zineik, e?... an bai! an badiä zine ta gëo, zine sonoro ta... kontu oiek yo an eta. Geo, andi etor nitzen garean? emen zine bai baia, zine sonoroik ez geñea ta, mundu oe... ezta ba gauzä... joo!

– *Eta zer beste jolasak izaten ziren, hola, umetan? kanikak edo zibak edo...*

Geo beste at e bai, ola... segun, zerbat izen zan, bi puntatati, xorrotx-xorrotxa in? ta ura da.

– *Makiltxo bati edo?*

Makila're bai, ta, ura... bakienez segun... jokue nola dan, ola, jo? ta tras! ola jo berriz, jo berriz eta!... Arrek berriz ee ori, jo onutza berriz-eta, ola itten zan e, koño, nol (i)zen zeen arek? atxik-, u atxikan, ura kalderon, kalderon tzeen arek, bai¹⁸. Ta, ezpazenduben ondo iten ero ora? kastiguz geo, ez zezubein kentzen baia, ola, geinetik jo berrin? ola, ankazpitik jo bertzen genduen¹⁹. Aitzia duzu?

– *Bai, bai...*

Geineti ola, geineti ola... ola, geineti, plas!... korri? eta ezpazendun ondo iten edo? aurrengo aldi? ola, azpitik jo ber da. Yeh! ola-ola... bai-bai, ume-kontubak ero gazte-kontuak.

– *Eta lehen aldiz, lehen kolpea emateko, botatzen zen makila ttikia airera?*

Ori! ori a, ori a, bai... bai.

– *Eta bada beste jolasa: umeak ezkututzen dira eta bat gelditzen da paretaren kontra (...); erdaraz esaten zaio 'a bules, al escondite'...*

Ah, al escondite, bai, beia... enen ori ikesi, ori oait, baia, ori goitazen orai, bai. Ezta ya suertien nola atako zan ori, ta suertien nolait, eli[mi]natu, ume artin, suerte ein-da, nola, orman nola... begiek itxik, ta enaiz akordatzen nola esaten tzen gauze arrei, nola... ze esaten tzäin. Ta, geo korrikan etor tzena batek? eta, zer, bee... lekuba arrapatu zeen? ta beste e bai? ta, arrek nunbai(t) inko zuen? arren... izan, geo arrek? ura, arrek geo in ber tzeula, o ola, ala...

9. Ameriketean, koiote artean (1990)

– *Eta zer beste animaliarik ikusi duzu han? pumak edo, otsoak edo, azeriak edo...?*

An ere... uh! ötso, otso're badie baia...

– *Koiote edo?*

Koyote asko!

– *Ikusi duzue?*

Boooh!... koyoti asko.

– *Eta ardiak ongi defendatzen dira? koioteek ez dute erasotzen? atakatzen?*

Bai... bai-bai; aiek ardiai atakatzen dai asko.

– *Bai, e?*

Bai-bai; baia... eztaki iyork, ortan e defensibagoak, atako zaizu, ta, koyoti da ain lixtue!... ain abilla da!... Zuk e... rifle? ah, eskopeta bedan, balin baukazi? ikusko zu, "Koño, an jenbat²⁰ koyoti, koño! Oik... biar area". Baia, eskopetekin balin bazazi, ez kasi iyun ikusk oyote²¹... jo, inddarazia!... Nik ikus dut edar koyotie... tranpan, arra-

¹⁶ 'baldin badau' bide da hori.

¹⁷ Hor kontraesana ote dagoen gaude, aditzen uste duguna ongi transkribatu baldin badugu, behintzat.

¹⁸ Uztarroze herrian *tokoa*, *toko* aditu dugu.

¹⁹ *joertzen debuen* aditzen uste dugu.

²⁰ 'zenbat' dugu hor, lehenago aipatu txandaketa agerian berriro.

²¹ *ikuskolote* aditzen uste dugu hor.

pau? bai, tranpan, e? tranpan pasatu dira-ta aek... tranpaa, tranperuek ez, artaa ebil tzaion... tranpan. Ta, gëo botatzen duei medezin at, ta koyotiei? ze, zoratzeko? eo... koyotei beste martxa at artzeko, vaya.

– *Zertarako medizina?*

Medizina? ba, koyotiai... ze? ze esan bear nik e ba? korrotien, (zuzenduz:) koyotien izete modua bakik nola dan, ezta? ta, koyotiai, buruti kentzeko? patzen duai... merezina klas bat iten dai? dukai²² bada ze balio egin da in genuna... Bestenaz? ezpalitzeke orregaiti? eztait ardiik goi-goi t'ibiltzen giñun. Ez, ardik ez... ayek, ayek ee, koyotik et-, koyotik eta, koyotik tranpan sartu bai, besu-ta, akabo! ezin igesi, ezin eskaporik, ezin fan. Eta, esta... koyoti orrek? beste at berriz ikus genuen?... koyoti tranpan, besu, besu tranpan bai ta, goroti edai, bee anketaa, ez agerik, agotti bera aire! bee buruba bai!... eta, besu, besu an bertan utzi? eta eskapo.

– *Ah, bai, e?*

Bai-bai-bai; pentsatzen ya... arek ze abildia diukan!

– *Eskapu egiteagatik, hozkatu bere hanka libratzeko?*

Aber... bera, berak, edai, bai-bai-bai... bai-bai-bai-bai baio, baia ez koyoteik.

– *Baina ez koioiterik...*

Zeaiti koyoten, koyoti... ah! guai, garaë ontan... geixo; uda, udiago²³ koyotik? eztau balio, eztau balio ba... eiek e guai, oai? emeti, oianko koyotik? baliyo au eta... narrua kentzen duei ta narru arrek baliyo au, e...-metuen, zengeiti... bakizu, Estados Unidosek e... au baino obia, zenbat ta berria, beste modu batzuk bizitzeko ta beste... beste gauz atzuk; narru ura... kurtiu? kurtiu? eta geo emakumiri... este, lepotan patzeko? lepotan patzeko? ta... ortako, ortako, gordetzen dai, baia, udakuk eztau balio, e? mayetzekuek eta... apirilekuek eta... ok, udekuek ezta balio, guai neguko ber da.

Eta geiñea?... nik ikus dot-eta... korotza! biorrak, zaldittik, e? ta, baia ooh! zazi zenbat, mila an akalero²⁴ ordun. Zenbat mila?... zaldiekin biyon jabe're... bion jabe're? ta, zaldi oiek? e... bakizu, zaldi oiek egun txarretan den garäian, eguldi txarra datorren garäian, ba... bi-, billatzen dei leku abriguä, bere abrigo-leku(b)a?... otzarekin ero? denbora-klaseakin pasatzeko.

Eta korrikan, ta korrikan-da!... Nik? nik ze ote an, nola da? galde ein ber, zer bil bertan, ta "Ah, oiek e zaldiak dia", ta "Bai, egueldi txarra dator". Ta, andi bi o iru egunea? orduen elurra ero, para-para da elurra, ta, zaldiek emeti-da korrikan! auts bat!... zengatik-eta ibiltzen eta ibiltze ginden, ta, zaldi oien ibilera, ba, autsa bera, "Auts sartu zaida"; ta koorrikan!... ez zan zaldi ezta ikusten e!... autsaatik genuen(n), unean.

BAKAIKU (Burunda)

Berriemailea:

Juan Lopez de Zubiria Galarza, 1905

Gurasoak nongo:

Aita: Bakaiku / Ama: Bakaiku

10. Sasoika ibilia (1994)

– *Eta orduan, hemen bertan jaio zinen, ezta?*

Bai, ta azi ta gäiyo? fuera ibiliz, e? yo ka- e, kanpuen asko ibil neiz; erriy untan? arrui, eta aita ta ama ta danak emenguek, emengo zea.

– *Eta hemendik kanpora, non ibili zara?*

Ön! Madrilen sei urte... obra batien.

– *Konstrukzioan ibili zara?*

Bai, kostruziyuen; Avilan, zui batien iru urte, Avilan. Palenzien? urte bat... azukarera bat iten; Terulena? ferrokarril berri bat it(t)en, ta, beste bi urte? Irätiko mendiyen, aituko zinduen, Iratiko mendiya. Iratiko mendi(y)än?... aizkurekin paguek-eta botatzen.



Behiak Aezkoako Orbaran.
Berriemailea inoiz inguru hauetan ere aritu zen lanean - **FL770619**

²² 'dudarik bage'ren laburketa izan liteke hori, agian.

²³ 'udako' da hori, berriemaileak berak, lau lerro beherago, argiro utzi zuenez.

²⁴ Hitz hau Nafarroako beste muturrean, Erronkaribarko Uztarrozen, aditu genuen aspaldi. *Akaléro* es 'a caballo' esan zigun, orduan, Fidela Bernat zenak.

– *Non, Orbaizeta inguru horretan edo?*

Eh! goraxo! Orbaizeta baindo; an, an, bai, an... an. Orbaizeta(a) faten gindan lebizko... erriya gertuena; bueno! bestã bat nekan gertuxo baia, ez zan ur²⁵ gutako ondo eiten: Otsagabia!... aituko zindun Otsagabia ere, t'on ibili biaz, in tzaz kontuan, öltzan ibili nitzan ni, gaztia nitzala, gero, zartu aur(re)ti.

– *Hango euskara bai diferentea, e? adituko zenuen orduan, e?*

Bai, baia, bai-bai, beia... nee denboan, kasi eztakiyin, e?

– *Nola?*

Ni ibil nitzan garäy artan? auskeraz gutxik zekiy(e)in, gutxik!... bai.

– *Baina aditu zenuen pixkat, e?*

Bai, bai, bai, bai, bai...

– *Eta hala nola guk esaten dugun 'hau, hori, hura', haiek 'kau, kori, kura'...*

Bai, beste... beste zea bat ematen dei, bai-bai.

– *Eta Madrilen, sei urte konstrukzioan?*

Bai.

– *Zer egiten? etxeak?*

Ez! etxeik ez, lasa esain dezut: ferrokarril bat berriya, emetik? agregatu? Alasua; eta... bi... bi estaziyo, etxe ortaa? ta jefendako estaziya ta, dana konpletu iten! dana.

– *Sei urte, e?*

Säi urte.

– *Eta bizi non? etxetan edo barrakoitan edo non eduki zintuzten?*

Pa-, parte bat barrakonetan, eta... Palentzien-Teruelären? an e... barretan; t'lrätiko mendien? ee, beh! zean, txabolan... makilak jarri oi-, uiriakoa²⁶ bekela? ta iyoztorra botatz(e) an... ta goizien gosaitako babak.

– *Babak gosaritarako, e?*

Bai, bazkaitako babak...

– *Eta afaritarako?*

Afaitako babak. Ta oiati moitu goizeko bostetan, basora fateko? eta, nai dena deseinatu? ogi-kozkor bat; nai bauk juan da nai bau(k) utzi. Desiatien noiz etorko a gosaiye, ta babak, olaxe! bab andi bätzuk...

– *Baina egunero gauza bera ere...*

Gauza bera... bai, sei-zazpi ilabete an, tzean, primaderatik udaizkena, bai.

– *Babak indarra ematen omen du...*

Bai, e... ematen dau subre...

– *Ematen diete ere idiei, apustuetan...*

(Alaba Lourdes:) Ellos también les daban, e? a lo que dicen.

¿Qué?

(Alaba:) Que vosotros también les dabais habas, no? a los bueyes...

Sí, sí, habas.

– *Indarra ematen omen du, e?*

¿Habas? en un cajón grande hecho a propósito, echar allá el saco entero, po-po-po-po-po... pon? y remojar; antes que dar? remojaö; hoy pa mañana, mañana pa pasaö, remojaö. Zebadero²⁷ pa ellos.

– *Eta Avilan zer aritu zinen egiten?*

Avilan? esan dut: zuiya, sei urtekues ta, o iru urte.

– *Ah, zubi? zubia?*

Zuiya, puente, un puente, zuiya.

– *Eta Teruelen?*

Terueleren ferrokarrila; emengo jende asko, e? ta, ni ibil nitzan tunel, nai tokatu tzeidan tunelëan itea... oso kontentu!

– *Eta gazterik joan zinen? gazte zinela?*

Menditi, Iratiko mendietaa asi nitzan ni juten? amabost urtekën pintxe... pintxe, pintxe.

(Alaba:) Pero no fuiste con once años a trabajar, aita?... amaika urtin?

Ez, amabost urte, amabost... amabost urte; beh! betetzeko o beteik? amabost urte.

– *Pintxe, laguntzeko, ezta?*

²⁵ 'hura' ote da hori?

²⁶ 'bururdikoa' (gazt. 'el colchón') ote da hori?

²⁷ Iribarren VN-n mintzo: CEBADERO.- En los grupos o tajos de leñadores que trabajan en los bosques, v. gr., en el bosque de Irati, dan este nombre al obrero encargado de la manutención del ganado, es decir, de los machos y bueyes que emplean en el arrastre de los troncos.

It(t)urriti ur ekarri, ta barrenguen daune zeintzen ibili, ta aitan ere bai ta, ayir (?) barrakoian, ta olako gauzak. Geo... enkargatubendako mandatuonen bat bazekan errie fan-da o tabako ekarri o... ta olako lanetan.

– *Aitarekin joan zinen?*

Ez! best atekën, emengo bateki(n)... jun nitzan.

– *Eta gero jada esan dituzun leku horietara guzietara, ezta?*

Bai, bai, geo leku guzik be, ta gainea, ore... asko utzen dezkituz, esan be: nagosia? ona, gipuzkuanua, Urnietakuà, nagusia; oso nagusi onradua!... Geo ibil nitzanien e... Madrilen ibili nitzenien, e? säi urte an da bestien iru ta, orduen? zer ba, Urnietakua, esan dotena, nagosi: Bartolome Lasarte... bai.

– *Eta herrira etorri zineneko bazenituen 30 urte, ez?*

Ez, baia erria etortzen nitzan e... tzean, fiestatan-dà etortzen nitzän; aurten ezpanitzan etortzen? datorren urtien, ta, ta bestela, aurten da gioz ez fan nitzan? Gaubonetan, etorri, etorrizen nitzan.

– *Noizean behin eskapada bat, e?*

Bai, bai... bai, irabazten nen diru pixka bät biddaltzen non²⁸... d'ola!

LIZARRAGA (Ergoiena)

Berriemailea:

Isidora Lasa Elso, 1922

Gurasoak nongo:

Aita: Lizarraga / Ama: Lizarraga

11. Inoizko bizimoduaz (2001)

Bizimodu txarra eman giñuen, bizimodu txarra emen, geixuok, beti pobre, erri, erri pobrie zan au, erri pobrie ta, emen bezeleixe gu denok.

– *Bueno, baina goseak ez zarete egon...*

Bai... gosia prezisamente ez beia... mucha necesidad de muchas cosas, pasatu giñuzkien, bei; pobreza yon²⁹ giñuen emen oso, pobreza aundiya iondu zan emen... bei, ta geo, gerra ondorien dee? gorriyek ikus giñuzkien, rasionamentua ibiltzen giñen emen dee, ta oleixko, ogi pixkat igual ematen tzugun, ura basalu dee, basalua ematen e... garè ori, meiza... meiza-iriñaekin da igual ematen tzugun ura, txarra.

– *Baxaldu esan duzu?*

Basalue zan, beia, basalu otsain giñoa(n), meizaan e, meizan iriñaekin iñiekua? basalua, basalua? basalua... otsaitten giñoa(n), ura jate(n), ura ematen tzuen. Ta geo oliyua ta dee? etzugun ematen, eta gauze asko etzuzkigun ematen, bea guk? nik yoten nittuen itzu atzuk, itzu atzuk Donostiñ e, denda komestibleaki... beia, aikiñ e oso ongi moldatzen giñen, aik e gui gauzek bieltzen zugun, bieltzen zuzkigun azukure, oliyo... e gio... e txitxiyo, ta len-, ori... gauz asko bieltzen tzuzkigun, arro(z) da, olako gauz ok denak bieltzen tzuzkigun e... itzuek, Donostiti, Donostin rasionamentu(b)a... aik nola ee partitzen tzuen? aik moldatzen tzia(n)! aik e tranpak itten zittuen... tranpak itten zozkoren ai(k)re!

Esta-, Esta(d)uko jendiek listuek izanko zian beia, aik e listek... tranpak itten zozkor(r)an!... Ta ni an yoten³⁰ nitzen serbitzen, gaztetan-da, guartzen giñen, nolä ibiltzen tzian beak? ze in be giñoan. De guk e kontu at iten giñuen ze, ze... ze txandriok itten zittuen... Ta, oleixe!... ta emen? pues, pobre bizi, pobre bizitze giñen, oso pobre! ta geo fabrikeri auk et'asi zian? d'orduen pixkat ee jendia asi zan ee, renobatzen. Ta guai, emen ongi ioten da jendia, aungi dao, bai, emen jendia; ongi guai.

– *Orain bai, ezta?*

Bai, guai, beia aungi!... bea emen ee... pobre bizi giñen! oso pobre izaniyek ga emen, tierrotan, emen, den ontan, inguru ontan deniän. Geo, Altsasö, Altsasu ta oik, beti obeki, gu peño obeki, beti... ze orretan? or fabrikeri yon o ola? ta gu peño obeki ikusten tzia(n), t'emen kontornu ontan asi Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Uberte... auk iru erriyok, eta auten denoten? pobre. Geo atzea beix Irurzundi, or? atzea beix, obeki, kaxeri-, baxerriyek eta dee

²⁸ 'nen' (= nuen) itxaron zitekeen agian, lehenxeago erabili bezala; aldaera bat izan liteke, antza denez.

²⁹ *ion / yon*, 'egon' izateaz gainera, 'eduki' ere bada, 'edun' aditzetik, antza.

³⁰ *llooten* aditzen uste dugu hor.

abeatsao izaten tzian, fondosoago o... leurrek³¹ eta obiek eta, bizitzen tzian obeki. Ya au tzan oso pobrie, oso pobrie, bei... t'oleixe!

– *Gero...*

Bäite... ze esan biattuzun esan, nik kontestatuko duzut, ze...

– *Ez, ez, ongi, ongi ari zara... bai, atera bezala...*

Geo? pues eman giñuen bizin bet, gaztie, gu gaztie, ba eskol baekuek, exkol baekuek, guk. Ni aneiye ioten nuen, aneiya, ta ura beti exkolaa, ta ni aittaaki, o... orbeletaa o yurretaa³², o sorua lania, gaztie nitzela ta egun bates esan noan amaë: “Ama”, ta - “Zer da?” - “Zuk ee Fermin bieltzen dezu eskolaa ta ni batee ez-da”. - “Bei, neskatoa, e... mutikoek eskol geyaö beiñe, neskatuë beño, t'orregatik bieltzen diñau geyaö Fermin”.

Ta ni beti an soruen, beti soruen, ta izandu nitzen e... eskolik baeko jendiä. Bestenaz ee?... enitzen oso espabilatuba-d'ere, t'oso espabilatuba-d'ere beia, e... encima? eskolik ez; ta, egun batez, nik eztakit ze-eta? ka-kasue zan? meikubangana fan nitzen bentzet-ta. Zerbait e galdebidie-o in tzuten, ta, auskalduna da, meikuba, emen, emengua da, Iturmendikua.

Ta, esan noan e, konfiantza guztie, konfianzas, ta, esan noon: “Antonino, nik? e... eztuzu siñestatuko beia, nee denbora guzien? iru illaateko egunek enittie-, enittien, enitzen fanko eskolaa, asieske ze eskol jakin biot nik?” Ixi-, ixi-ixille geldittu zan! ixillik... egiya da ta! egiya da ta oleitxe, ibiltzen giñen, geo faten giñen emendi... Beko-basua otsaitte dou or, Lizarrustia, Lizarrustira bakizö? oitaaño kasi faten giñen, orbeletaa... neguben, zu!...

– *Aitakin edo?*

Aittaaki, aittaaki; eta geixuok! izotza, itzugarrizko izotzak ta erleñuek eta, obenien, maten giñuen tapabokillen bat o ta-, oi, bu(r)uko pañeloon bat, ola, tapatuta fateko burubä, ta obenien burube ta guzia e izotza jarri(r)iken... bei, olako bizimodu et eman dau emen, trixtiak! ta orbela andik asite ekartzen giñuen bideji at³³ orbel, een guzien bideji at orbel, faten giñan arutza.

– *Egun guztian?*

Eun guzien? orbel-bideji at, bakarrik, pasatzen giñuen eguna, ta txarki. Geo, ganaduek ee? pues e... yote in tzian e, idiyek otsaitt(e) giñon, idiyek... eta yoten giñuzkien idiyek, ferraki, zengati idiyekin ibiltzen tzian gizonak –karrotue otsaitten doogu guk– baso-laniän, guai katxabe(n)-, katxarrokin ibiltzen dian bezela? emen, idiyeki ibiltzen tzian baso-lanetan, ta baso-lanian lan asko yooten tzan, baso-laniän, jendi asko lan, okupetzen tzan e... interbenittutzen tzan e... baso-lanien.

Ta, faten giñen idiyeki eta ni gaztiä? gaztia? ta eztaki pa zenbat urte yonko nittuen, amiruen bet urteti amaloura o ola, idiyeki faten nitzenien, ta, itten tzian irrixtätu bideberriyen, irrixtatu, eta baztarrea sartzen zazkiten, ta gauz onik ezin in ibi-, idiyekin, negarres, gaztie ta negarres, ibiltzen nitzen, Etxarrin da, krutxe ori ezin pasatu, ta bakarren bat quartzen tzan? alako gizonen bat, geldiik-o ziona ta, quartzen tzian? da, launtzen tzuutien, hala! ni gaztie ta? gaztie ta, launtzen zutien, alai(k), pasatzen idiyek.

Bea geo etortzekuen atzea beis emen e, Askondo emen, otsaitten dogu, baxerri bet, ikus dezu emen? baxerri bet, eldu gala? Etxarritti aldi ontäa eldu gala baserri bet dago, Askondo; t'orti gua³⁴ aldapa, eta aldapa artan de atzia beex ezin zian apietu, eta baztarria, baztarria ta baztarrea, ta oiii!... egun betes izugarrizko apurue pasaazi nurien, sartu zazkiten e baztarria, oso baztarria iriyek, eta gizon bat zion e an, soruen, goitti, goyen, ta quartu zan neegana, nola na(b)illen e, negarrets ee garrätsis, ta etor tzan, etor tzan, da gizona gizon, sartu zan barre-idiyan pek aldia? ta:

“Ekartze, ekartzazu, akilu oi, ekartzu ta akilu oi” –otsaitten giñon... makille, iriyei jotzeko– eta “Ekartzu t'akillu oi, ikusko zu nik nola... ateako ittuten, ateako ittuten”, bestena itzuli in be zuutien idiyek. Negati nei zuena itten tzuen... olako bizi mat emate-, ze-, zein txarki ibiltzen giñen, ooh!... egurretaa ta an askotan faten giñan arutza, goai emen bertan itten duzkigue, egurrek eta kontubek, bea len arutza bear izaten giñen, bee egurretaa ta guzia, ta olako bizimodu et ematen giñuen, bizi txarra, txarra, oso txarra. Ta oleixe, ta geyao ze kontatuko zkizut ta?

DORRAO (Ergoiena)

Berriemailea:

Juanita Lizarraga Yaben, 1923

Gurasoak nongo:

Aita: Dorrao / Ama: Zuhatzu (Arakil)

³¹ 'lurrek' da hori, jakina.

³² 'egurretara' da hori, *yon* 'egon' den bezala.

³³ *bidetat* aditzen uste dugu bai hemen, bai-eta aurrerago, adibide bera errepikatzen denetan ere.

³⁴ 'gora' da hori

12. Lihoaren inguruko lanak (2000)



Lihoaz ehunduriko lana - MERN / KA2012

– *Kontatzen ahal duzu pixkat?*

Kontatu? pues e... esan biar duzut: ori ereitten tzan, e... últimos de setiembre, bei, últimos de setiembre, eta, e... akatziak o urriyak –urriya da, guk urriya satou setienbrei– jarri bizuen ya, jeiyo, bi orritzen; geo, jei-, jeyotzen tzan? zaborra atratzen tzakiyon dena ondo, zaborra ta, uzten tzan garrbi-garbi-garbia! ta atetzen tzuen, loria, urdin bet, oso lore politta atetzen floria, flore urdin polli bet atetzen tzuen.

Eta gio eitten zakiyon, flore ura botatzen zakiyon berrie? aziya, eta ya pixket eitten tzakiyon garāian aziy ura³⁵? eitten giñuen atra, zeñetati; zeñetatē atatzen giñuen? lotzen giñuen ee... paxotan? eta ematen giñuen ubeldia. Ubeldian putzu aundi bat eoten³⁶ giñuen? paatzen giñozkoon e... arriyek geñien? t'egoten tzan, bedratzi eun ta bedratzi e... gou, utsin, sartuta.

Geo atatzen giñuen utseti? ta paatzen giñuen iruzkiyen, eoten tzan, sekatzan; sekatzan tzan ura? eta sekatzan tzan garaiyen? egun (y)onnaeki? bazian, egurresko, esaten zooruen garbak, iru... iru ojekuek? ta sartzen tza-, jno, miento! lendaixkuan eitten tzan, maz batekin jo-ta, kaskal ura kendu, kaskal ura dena jentzen zakiyon? mazaekiñ, e? dena joka. Ta gēo, jentzen tzakiyon gañien kaskal ura... e, e, orrekiñ? e... mazaeki(n)? pasatzen tzan, iru oro eoten tzian? ba, orixe: trakata-tra! trakatra-tra! trakata-tra! geiltzen tzan, lia bekeleixen, launnnn-laun-laun-laun-launa, ango... eitten tzuen e... ariy ura.

Geo pasatzen tzan, katxarro bat eoten tzan olixe anka sartuta, como unas e... púas, burniskuak? an eitten tzan, orrazi, orrazi, te geiltzen tzan fiiiin-fin-fin-fin-fiña, fiña, ossso fiña! geiltzen tzan biar seta bekelaxe? xeda bekeläxe. Eta geo, makil bet zan? makill aundi bet? da makill aundiy értan? ee... e lotzen tzakiyon e... katxarro ura, ille moduko oi? eta e, sartzen giñuen besazpiyen? ta orixe eitten tzakiyon a... alako katxarro (b)ati bueltak emannnda, bueltak emanda, bueltak emanda, bueltak ema(n)? eitten zan e... bera ariya, ariya.

Geo, ariy ure eitten tzan garāien? eitten giñuzkien te... pillotak; an, katxarro at egurrexkua? e... madejak ee, eitten tzianak? eta, madejak jartzen tzian-da, eitten tzan, e pillot eittekin madejak; ta madejak eitten tzian gareiyan, bi e... alde pati, lotzen tzia(n)? eta eitten tzia(n), arrixko... –orduen arrixkuak giñazkan, guk, beste atzuk zazkuen de zink– lixuba, lixu berriya, eitten tzana, arropa, dena... egosi ta, e... dena, ta an eitten tzan egosi. An eitten tzan egosi? botatze(n) zakiyon utsa, garbiya? eta... txulo txiki bat ordun, zer itsu berriy arrek? ta, an, kredo errezatzen ziñuen? eta, ya, kredo errezatuta, akaatzen tzan garāien kred ura? ya egosik zegon e... ura, lixib ura egosik zegon.

Pues, geo? eitten giñuen fan e... labaderua? aundi-aundi-aundiya jo ta garbittu? eta eitten tzan sekatu, iruzkiyan, e? iruzkiyän. Eta geo, eitten tzian, pillotak? eta ematen giñuen a hacer. Etxarrin eoten tzan e... tejedorëa, bai, tejedore...

– *Ehantzalea?*

Be, auntzalia, bei, auntzalia; an eitten tzuen e... auntzalia zan, eta an eitten tzuke ee... tela? o eitten tzittüen e... olako... beste gañen metruat o... zeotzer e... de ochenta centímetros o... metrua? da eitten tzuen tela, ta geo eitten zittuen mediek, e? azken josi ta ya está! eta segun nola eitten ziñuen zuk, ola lixtu bat, emannnda... ariyāi, zenbatennnes geixaõ ibiltzen ziñuen? eitten tzan, ariyā, fiñaõ! ta aria fiñaõ egiten zanekin? pues media ayek izaten tzian, e mia(o)kuek, eitten balen bazien mantak arek? nola zien e... ura, ori? pues izain tzian meindiriek e... latzak! latzak, gogorrak!... gutxi badot oainikan ee... meindiriek e, mises, jo! menudas sábanas!...

³⁵ *aziy uga* aditzen uste dugu.

³⁶ 'edukitzen' da hori, Lizarragako testuari egin iruzkinetako batean aditzera eman bezala.

13. Basalua (2000)

En cambio...

– *Kontatu zer den basalua hori.*

Basalua? pues basalua eitten tzan e, con e... harina y... con harina de maíz? ogiya eitten tzan bekelaixe, eta sartzen tzan labia? ogiyeikin batia, eta nola baitzen tzan e, lodiya? pues biar izeten tzuen, ogiye pekeliye? e... arrek e, egost-, e... erretzen, labien, be denbora; pues iguäl e... iru ordu kuarto? o... garai beteko labiei.

Eta, atutzen tzian, aber nolabit e, aberr eiñik doin, ta atutzen tzuen e pal atekin kanpoa? ta jotzen zooruen? da, pon-pon-pon eitten baden bazuen? oindiken denbora geixago egon bizuen labie, eoten tzuen beste bosten bat minutos o lo que sea? atutzen tzuen da, pan-pan-pan... kanpoa; ya está. En cambio taluk eitten dia, al momento; jartzen da talaburneki? botatzen dakiyo masa? eta e... a... a los e... pocos segundos ein da, oi e.

– *Talaburniya, e?*

Bai.

– *Eta zenbat pixatzen zuen basalua horrek?*

Pues e, basalu orrek e iguel e pixatuko tzuen? e... orduban ez zian e... etzian pixubek e... kilokuek? izeten tzian e... de libras, pixuek izeten tzian de libras? eta ezti pa nik e, iru... libera o, lau libera o, ortaa...

(Migel Razkin, berriemailearen senarra:) Xegun nola eitten tzen, batzuk aundixaö beste atzuk txikixaö.

Eztaki nik, be(i); batzuk aundixaö beste atzuk txikixau, ola...

– *Zenbat egunetako zen?*

Pues yo qué sé... arrek e, bi egun t'ardi? ola kuntatzen tzugun... bei; bei, en cambio au te, ente-, ta obe eitten tzan, gotzo-gotzo-gotzoa? kontserbatzen tzan, tierno, e? bei. Kutxa bat egoten ginuen? kutxa artan jartzen giñuen? meindre (b)at eon, eskua botatzen giñon e geñetik? eta egoten zian e... bei, konkurso ona eitten tzan.

ETXARRI-ARANATZ

Berriemailea:

Juan Igoa Beltza, 1907

Gurasoak nongo:

Aita: Etxarri-Aranatz / Ama: Etxarri-Aranatz

14. Sugeez zerbait (1986)

Pues... beltzak, beltzetxio, beltzexo, eta mioak dia, mio, ta lepue're, meix-, mexoo; lepue... bu(r)utxabal bat? buutxapala? oiek dia bibo-, biborak. Aundiyak ez, e? oik eztie... beste atzuk aundiek izaten dia, beia oik eztie aundiyek.

– *Eta izaten da beste bat, zirauna edo?*

Ziräuna, emen e zireunä esaten dogu.

– *Horri?*

Orri, bei, beste...

– *Bibora horri zirauna esaten zaio?*

Biborai ez, bestëa, bestea, zireunä edo dana? beste klase at da.

– *Zernolakoa da?*

Izena, izena're zireune, guk ziraune esaten dou.

– *Eta non ibiltzen da? zer kolore edo tankerakoa da?*

Us(i) u, kasi... esto... sugien estiloakoa da, beño oik eztebie oskik eta, aik eztebie eitten; laun-laun batzuk izaten doi, jendiä sentitzen dabie zzz-zzz-zzz... ra! estaltzen dias; oik eztebie geago... eztebie peligrü geigo, oska eitteko ta ola.

– *Lehorrean ibiltzen dira?*

Bai, bai, leorrian, oain beruekiñ e, sasitti ta ateatzen die ta... sugien estiloa baia distintuek dia, distintuek.

– *Eta uretan ibiltzen direnak badira?*

Ez, uža... bah! užea sartuko die oik, egarriyek eta berdin, baña? eztaiz.

– *Ez, bestela ez...*

Ez, ez; užin olakoik eztaiz.

15. Kaikua, ardiak jezteko tresna (1986)

– *Ardi jaizten ibili zara, e?*
Ni denbora askuen, urte askotan.
– *Eta kaiku?*

Keikube da, eskuleku bet... zure da ori, e? zureskuä; da ura? esku bakar...-rakin ibiltzen dezu?... ta, marmite da, artu gider bateti? ta, ure beis ojalata, lata o chapa, marmite da beste. Bi, oik, bi ze ittubi(e) ta bi klase die oik... bi klase die oik: käiku(b)a, erdiyen? puntan artzen dezu ta, erdi-erdiyen daka, gider bat eta, marmitek beis(k), zeak, kat-, kat-, o... vamos, alanbre at, erdi-erdiya artu ta, balde at o bezela, ardi jeixteko.

– *Bai, pozala bezala edo?*

Pozala bezela; ure da marmita, ta bestie keiku(b)a.



Kaiku-sorta bat - MERN / KA2012

ETXARRI-ARANATZ

Berriemailea:

Ambrosio Erdozia Beltza, 1920

Gurasoak nongo:

Aita: Etxarri-Aranatz / Ama: Etxarri-Aranatz

16. Lizarrusti aldean (2000)

– *Gauza bat da Ergoen hori, Lizarraga, Dorrao eta... baina gero, Lizarrustiko bidean, ez ote dago ba beste Ergoen, Ergoien edo?*

Ez, ez, ori Lizarrabengoa da, erri ttiki bat, bai. Arbizu ba(d)akizu! emen ee, sartu t'an ezkerrien, erri ttiki-ttiki bät! bedratzi-amar etxe o ola, ure da Lizarrabengoa. Beia an ee... denak, pa(g)atzen ttubie emen kontribuziyuek eta emen ee... kintotakuen taillätu ta dena... izeten da Etxarrin; Etxarri o beya, oik zebien, markes baten terrenuek zittubien oik: basuek, etxiek da soruek. Ja! gëo³⁷ zeebien gerrako denboran, markesa bai, izeten tzan, da ura bizitzen tzan, emen e... zer da ba? Ataundi... urrengo erriy oi?

– *Lazkao?*

Lazkan-, Lazkauben, bai, da ortik? San Martin, Lazkauen uste det-ta, urtiero iamaten zozkabien oilleixkuek, regalotaako, ta azkeneko regalue iaman zebiena? goañik bizi a, ni beño bost urte zarrogokuä, Fermin Lakunza; ta arrek esan tzeen, goan ezta... iru illaate esanik, nola fan zien, bi? azkeneko regalue iñ asto (b)atien? oilloixkuek? etxetatik, artu? ta, regaluä, bai.

Ah, bestie? Pedro, ilik doo, baia or? goañik bizi a... Bai, arutza, astue? kargatuta, Lazkaure ta, geo baeazu³⁸ emen, gerra astirakuen ee, lenoko amin xarrak et'esten tzebien ba: "Ai, au pena nik! komunismu eldu emen da ta! dena jendu bear duguzkieula ta! ildu berdin!".

Lau maadian³⁹ saldu zoobien, bai, gerra asita zoon? da, baakizu zenbat... Fermiñek esan tzeen, ordu(b)en, beak ee esan tzeen: "Baakizu zenbat gosta-, sal giñuben⁴⁰?" basuen lotiek, e? –guk basue, zuek mendiyä esaten doozubie– ta eh, basue, aritzek eta faguek eta denetati, da soruek eta etxiek eta denak... amazapi millä pezta pa, san tzien, dena, erriye, bueno, een etxiek? beste... an tzeenak, meixter o, zer esaten doozubie? meixterrak esaten doogu uk...

– *Maizterrak, bai.*

Ba, an, maixter tzeen etxiek? ta soruek? eta geiña lotiek, geo... lotiek eñ, bed(e)ratzi zien orduan, da apeza, bedratzi eman-da ori? ta apeza ta, bedratzi lote eñ? seguru ya zazkabienak; klaro, lenguek, berandau oiek basuen?

³⁷ 'gehiago' da hori, antza.

³⁸ 'badakizu' da hori, gure ustez.

³⁹ *maadi*, gaztelaniazko 'maravedi' bide da.

⁴⁰ *giñuken* aditzen uste dugu hor.

lotiek eññ, bedratzi puzkã? ta suertiã, gero, suertia dou ta, batia au, bestia au, beste ou eo beste at, ala tokatuta beste orroi...

Amazazpi mille pezta pa san tzien, je! bere izketa... amazazpi t'erdî're ez zien izan, duro... duron aldi ba(t) asko tzan, milla bet t'erdî bät. Ba ola da... Fermiñek, je! elleatzen bazaa arregana? galdubide o bere etxea? e? zuk kuskou dezu aber esan dou; bizi a ua... Fermin Lakunza.

Arrek daka alaba (b)at emen ezkonduik, ta eññ zakiyon gizona, azidentes il, igaltserue o kisugille, ta eldu zala etxëa, Iruñeti? emen, Ugerteti autzero, Irañeta o... or, inguru ortan il tzan, azidentes, bei. Ta, il tzan urã? ta, goai aittä, emen èooten da, be alaba oi, Etxarrin; ori, Fermin Lakuntza, bai jauna! Arrenea elleatzen bazaa, arrek kontatuko duuzu istoriã, danak! (...) arri aittuta, e? bera. Ta, faten baza?...
– *Eta hori non bizi da?*

Emen, e... Zumarreta o, Andre Maaye, ba(d)akëzu, kruzeti gorbera arttie; an, ezkerrea sartu? ermitten pare-pa-rien, bideberriya juaten da Lizerraga aldea bãia, ezker! an. Ta, an pasau? ta, an, beste aldeti? Lakuntz-, ori bera, galde eññ. Lakuntza, Fermin Lakuntza, iruritzen badizu, e? jakittekou obe.

ARBIZU

Berriemailea:

Martin Berastegi Berastegi, 1920

Gurasoak nongo:

Aita: Arbizu / Ama: Arbizu

17. Sute bat gertatu zenekoa (2000)

– *Noiz gertatu zen erreketã hura?*

Oi da, fetxik enuke esaan, fetxa, ze urtetan ein tzen enuke esaan, zela abuztuben bei, bei-ta... guañiken ee, emen elkarri launtzen dakiyo ba zeran, e... gari biltzekou gareiyan, elkarri launtzen besteai.

– *Baina duela, orain, zenbat urte gutxi gorabehera?*

Izein ttu ba... ogeiren bat urte bei, bãi, ta... guaañiken ee egun ortan, bazkaltzen ai zien, etxalde oitakou gariyek einda. Orduben tximist'at sartu zen? ola? plazakou orti? ta kruzetu zuben ortzeño, ta amabi err-, itxe⁴¹ erre zien, bei. Bah, azidenteik ez zen gertatu, gariyek eta osea...

– *Ez zen inor hil...*

Ez! ez zen iñor il, ez.

– *Eta aziendak eta...?*

Ez, denak salbatu zien.

– *Bai, denak, pixkanaka ateratzen eta...*

Bei, ta au gaela... amar urte? erre zen beix.

– *Zein, hau? hau ere?*

Au, au, au, au...

– *Orain hamar urte?*

Kasualmente beiyek jeixten ari nintzen ni, kortoxirkuitu at edo ze izen tzen? lastue iduitzen duun lekuben, goyen, ta... jeh, suba! gero sub oi? ta, esne-baldia erdeita, erdiya, jeitxita nakan; baldea, esnia, arri eman? (...); bota nuben baio... ordureko, puh! asi zen ee, garmenduen⁴² e...

– *Esku zeneukana, e?*

Eskuben, bei ta gio, bouh!... beleixe garri-, ta asi nitzen ee garraxi te... "suba, suba", puah!... kixkãldu zen d'enpaz.

– *Bai? etxe guztia?*

Bei, raso.

– *Eta hemen, aldamenean ere bada...*

Ez! etzen pasa p'or; oi geos erre zen beix, oi geos ë... eztaik nik, lau-bat urtia? o, nola zen? orti... ordubuen erre zien, bat, bi, iru, lau; lau erre zien, bai. Orr ee ez zen ezer gertatu, azidenteik or... bei; ola.

Ta gio? goiyan ee bai, goiyan, beste... an ee, beste tzean, zenbat zien? amabost ustë ot zela, eztaik, dena elkarri bilduta dao erriy au, ta dena obres beteta! egun guziyan...

– *Kale Nagusi bat bezala...*

Bei-ba, lastos beteta, flora bezela, ta goiyan artu zuben ta, buuuh!...

⁴¹ Latxagak ere 1971eko urriaren 23an erre ziren etxeak hamabi zirela diosku bere *Naparroa euskal arrobã* liburuan.

⁴² *karmenduen* aditzen uste dugu hor.

18. Arruazuko kanpaiak (2000)

– Gero hemen bada beste herri bat, Arruazu nik uste, hor jotzen dituzte kanpaiak edo, ez? egiten dute halako, konkurtso modua edo?

Bai...

– Arruazun da?

Bai, Arrazu bei.

– Izan zara inoiz ikusten?

Bei, izan neiz... eondu neiz bai, ellear, noiz izaten? Guai eztaiz eëthen dubien, e? guain Arbazun eëthen dubien ee... bei.

– Eta zer da, segun nor hiltzen den edo zein ezkontzen den edo... kasuen arabera...

Eeez! ez...

– Jotzen dute modu diferentean edo?

Bei, klaro! Or, ezta ideirikan ze... ixtorio ematen diyuen beya or, kanpeonatuak bazuntzien⁴³, bei, aik ematen tziyuen, arbazuarr oik ee, bazubien afiziyo pixkat, an erriyan jotzeko... bei.

– Han jakingo dute nola, zer dela-eta nola jotzen duten eta...

Bai, len esan duzunek jakiñen du... zuk esan duzun apezak (...).

– Bai, Satrustegi...

Satrustei⁴⁴, puh!... oixe.



Lakuntzako apaiza ezkilak jotzen - Guaixe

19. Azienda-bedeinkatzea (2000)

– Alorrek eta aziendak eta, bedeinkatzen ziren?

Aziendak... beeikatzen zien beti, bio-, beorrek geyenak bedeinka tzien, elizai buelta ematen zakiyon leno.

– Bai?

Biorrak artuta.

– Behorrek?

Bei.

– Beste animaliekin ez?

Ez! besteik ez, biorra. Geo? e... artua beeikatzen zubien ba, elizen e? eta grano puxka banak e, denei ematen zayekin⁴⁵; zerriek basuen bagiñuzkiyen ee? gue amonak⁴⁶ emaan tziun e ga. Bakizu, beeiketub oi, kuantu? eztaikit zer tzela... kostunbrea!

– Ze egunetan zen hori? behorrek-eta eramaten zirenekoa? San Blas ote?⁴⁷

San Blas, San Blas izeën da, bei.

– Orduan jendea joaten zen elizara behorra hartuta? besterik ez? beste animaliarik ez?

Beorra, bai.

– Eta elizaren inguruan buelta ematen zuten?

Buelta, bei, iru buelta ziela uste ot, bei.

– Eta gero?

Gero? bakoitza bere itxea.

– Apaizak elizatik atera eta...

Bei, bai, bei, bedeiketue te kontub oi. Ta guai're baa kostunbria, ya. Kotxe berri bet ekartzen baa, olako... ze oetan? bueno, urtin biltzen dien denak, e? bayà egun batien? beeiketzen ttu, eliz atarien? da...

– Eta esan dezu kandelekin zeredozer egiten zela?

Bai, kandelak beeika zitui? zittu(e) bai, ta guaiñ ere bedeitzen die.

– Eta kandelatik, badakizu, erretzean erortzen den zera hori (ezkoa), hori ez zen botatzen behorren gainean edo? Ez, ez, ez... emen ez.

⁴³ Horrela aditzen uste dugu, Yrizarren datuen arabera, bazitubien itxaron bazitekeen ere (*Mvaans-II*).

⁴⁴ Jose Maria Satrustegi, euskal kulturari emaniko apaiz arruazuarra, 2003an zendua.

⁴⁵ Horrela aditzen uste dugu, Yrizarrek bildu datuetan *zakiyuen* agerturik ere.

⁴⁶ Berriemailearen alabek diotenez, *amonak* ez da ohiko hitza herrian; oso litekeena da, beraz, hark guri ulermena erraztu nahi izana, hitz hori erabiliz.

⁴⁷ Sakana aldean halako bedeinkapena San Anton egunean egin ohi da. Gure galdera, beraz, ez zen egokia izan, berriemaileak, distraiturik nonbait, ontzat eman bazuen ere.

UHARTE-ARAKIL

Berriemailea:

Migel Astiz Fernandino, 1923

Gurasoak nongo:

Aita: Uharte-Arakil / Ama: Uharte-Arakil

20. Lur langintzarako lanabesak (2000)

[Goldea], emendi eskube mateko? gizona?... gure gizona, ta emen, tute ematen tzuen, gora.

– *la esaten duzun berriz ere, ez nuen [grabagailua] ongi paratua; orduan hau da goldea, ezta?*

Bai, ta emen maten tzuen? emendi onia... burni bet, ola, e? nai baziñuen ee, geyo sartzeko, gutxigo sartzeko... segun ingerra, edo lana nola n(a)i izen, ta emen euste zen e... pasadorëa, ta nez-, nei duzunian asko sartu, u⁴⁸ bajatu, bera, bera bajatu beiz e, ta orduen? sartze den asko, bi-iru zentia ta ola, geldittu biek, e? igual, asko sartute, lurrien-ta. Nai baziñuen ariño joan, orduen jaso, itten zen.

– *Klaro, gutxiago sartzean lurrian, arinago joaten zen...*

Bai.

– *Orduan hau da goldea, e?*

Bai, goldia da... zureskua de, dena zuresköa! puntan e burni bat baduen... orrek.

– *Eta ze pieza zituen horrek orduan?*

Deus ez!

– *Horrek, andaitzek?*

Au, andaitze ya, emen, beste zur bät? ola, pixkuat biurriye? ola? emen, esku(b)e... mateko?... orixe.

– *Eta goitik behera doan hori, hori zer da?*

Au? burni bet? emen e... puntura, laurrie jartzeko.

– *Nola jartzeko, laurria?*

Laurrie, nai dezu ein o asko sartu do gutxi sartu.

– *Ah, laurrie? neurria?*

Bai... laurrie mateko goldiei, nai baduzu... asko sartu? do gutxi sartu, segun... segun giroak e bai, soruan e... beti ezta igual egoten, bakizu...

– *Bai, batzuetan lehorrage edo idorrage edo...*

Primaderan eztu gogo oten, da ta orduen ee... tierra asko bedu, te... ud ondoan, beix? lurra arroa egoten da, ta orduen e... geyo sartu.

– *Eta zer beste makina izaten da?*

Geo... landarra, beste...

– *Landarra, hori... landarra; zer beste?*

Arie ere bai.

– *Zer beste?*

Beste?... ola, saten diagu uk, arrastola...

– *Karrastola?*

Arrastola... lurre berdintzeko.

– *Lurra berdintzeko, e?*

Bai, oi... lurre berdintzeko da; ereki in duzunian, berdin-berdiñ eoteko gio...

– *Besterik bada?*



Uharte-Arakilgo golde bat - EG2012

⁴⁸ 'hura' da hori, antza.

Prabana saten diau guk, makine edo ori...

– *Brabana edo makina, gauza bera da?*

Bai.

– *Makina edo makine?*

Makine, iguel da!

– *Besterik bada?*

Besteik? bai, badie, geo... pontxona saten diagu...

– *Pontxona, e?*

Bai, besteik... lepariek bi klase die, bat e... bi klase are; bat, bostortz... bost ortzekua? ta bestea zazpikua da.

– *Bi klase; bat bost hortzekoa eta bestea zazpikoa.*

Areak dia; area, are, are-kurri-, kurrilloa saten diogu uk.

– *Zeinei, zazpikoari?*

Bai, biek, kurrillöak, bi oik; kurrilloak, nola joaten die?... ola? oik igual die.

– *Are-kurrilloa, e?*

Bai.

– *Bada bat inoiz aditu dudana, kutre, kutrea; hemen ez da halakorik?*

Emen eztao orrela, ez, olako kutreik.

– *Orduan goldea esplikatu duzu pixka bat; eta landarra?*

Landarra pues... oi da pues, lau... lau zure o izen ttu, ta an... amasei ortz maten ttula aurrien... cuatro por cuatro deiciséis ya, zera bakotxian? lau maten ttu, zure bakotxean. Ta okin maten du... burni bet? denak e... bueno, ba-, barak esaten diagu uk... barak? bi bara maten ttu, bat aurrien bestea atzien ee... denak batien juateko, zurek, ta orrek maten du, ugel bet... alde batea ere emen, burniye, an-, anille, da anillea eamaten du, ta eskin betian juateko, ta, geo buelta ematen zuenen beste eskiñea pasten da ore, ta, idiek perek maten dube: remo. Anille ee, korredora, izen du...

– *Eta zer, diferentzia handia dute goldeak eta landarrak? bai...*

Nola?

– *Goldea gehiago da lurra harrotzeko, ezta?*

Arrotzeko, arrotzeko.

– *Eta landarra lan egiteko...*

Larrandarra (!) da eretiteko, gari eretiteko, ta olo eretiteko ta... lurte gozatzeko, lurte batzeko.

– *Eta gero area ere, e? bost eta zazpi hortzekoak; biak dira are-kurrilloak...*

Bai.

– *Eta horiek zertarako dira?*

Lurre komontzeko oik ee; uda? ude, ud ondoan, ibiña ta ori, gariek ee kendute, oriei? ibiña esaten diagu uk...

– *Ibiña? zer da ibiña?*

¡Rastrojo!

– *Ah, rastrojo, e?*

Bai, ta ore, ok, ore garbitzeko izeten die oik.

– *Eta ze diferentzia da batetik bestera? bost hortzekotik zazpikoetara?*

Zazpi ortzekoak gutxio sartzen da.

– *Gutxiago sartzen da?*

Bai, bostekua asko sartzen da, obenian bost, (...)



Artzibarko Zandueta baserriaren ondoan apaingarri gisa dagoen brabana - KA2012

MADOTZ (Larraun)

Berriemailea:

Fermín Zarranz Apeztegia, 1931

Gurasoak nongo:

Ama Madotz / Aita Egiarreta (Arakil)

21. Elurretarako korraletak (2008)

– *Badakizu? zera, elurraren gainean-eta ibiltzeko, korraletak edo, aditu duzu esaten?*

Bai, bai, batto, bado orrek ee, bai... izena, korraletak, ebiltzen tzittiin ee...

– *Eta forma, raketa bezalakoa edo?*

Bai-bai, raketa bezalako... ankan, jartzen tziin? da... ta soka batzukën lotö ta, eramaten tzeen.

– *Eta nola basea handiagoa duen, ez da hainbeste sartzan oina elurretan; hola da, ezta?*

Ola, ola, ola...

– *Eta errazago ibiltzen da...*

Hombre! diferentziak ez, diferentziak ez; orrekën ee, elurr aundi ona bat ee... denbo askoan, eltzen tze emendik! jode!... ezpaita, asentatzen baita! ue, lurre, beira... ezta apaltzen!

– *Eta izena nola esan duzu orduan?*

Korraletak, korraletak itzenen dee, baietz...

– *Bai, e?*

Zergätti izen-klase oë, aitzen nun nek.

– *Eta ez al zenuen kontatzeko nola ibiltzen zinen behien bila, San Migel inguruan eta?*

Ze? oñes?

– *Bai.*

Mendin asko! je, egon ta emendëk San Migela, oñes askotan juan gaa, juaten giñenen betë oñes juaten giñen!

– *Behiekin edo?*

Ez-ez! e... geinaazienda billatzea, emendëk eëltzen tzeen da, Uartekoa... or, mendi, emen, mugatzen duna... amabospei igual paastu? ta, bakarron batzuk igual juan-da... urbidu ta esia pastuta dakala ta...

– *Eta hemengo behiek hemengo dermioan egon behar zuten?*

Bai.

– *Eta noizean behin bat edo beste pasatzen zen...*

Bai, ori beti izandö a ta, angoak ee onea... askotan.

– *Ez dago hesiturik?*

Bai, alanbratue zeon ori baño, ause in da asko ta... iixte maen ba⁴⁹, ja! uartearrak iixten tziun orë; alanbreak ee... galdö dee ta, erdoittö ta zarto're ta, oste-gauzez eta... gastu asko izaten da ori, ixtuen ee ta, oain mendietaa lenao, mendiä ematen tzee errire baño, oan eztao, olakoik!... ah, oain... mal tierra, merke dao.

– *Eta zu korraleta horiekin ez zara ibili?*

Neone enai-, ez naizen ez.

– *Eta zuk nor duzu buruan, nor ikusi duzu horren gainean ibiltzen? aita edo hemengo beste gizonen bat edo...?*

Bai, nere, jeh! nere bezalako at, ta, orrek ere!... ori eeltzen tzen, noizinbeñiñ ola... juanda; asko ez baño...



Korraleta, elur gainean ibiltzeko tresna - **STelmo**

22. Gazte-denborako giroa (2008)

– *Eta anai-arrebak izan dituzu?*

Bai, bai; sei, sei izandu ga.

– *Horregatik ere ikasi zenuen ongi, hiketan-eta, hitz egiten...*

Ba, ala...

– *Aspaldi egon nintzen (zurekin); anai-arrebari eta... to eta no eta (galdezka)⁵⁰...*

Elkarrekën betë iketan? asike...

– *Denbora hartan, gainera, ia etxe guztietan sei-zortzi ume izaten ziren...*

Bai-bai-bai-bai, jenealin, jenealin lau eo iru, emen... bezino onek izandö zittun? amazazpë.

– *Hamazazpi?*

Amazazpë... fixin baen (?) saille, majiña at kasta eratzen!...

– *Joño! non dira horiek, non dabilta orain?*

Il ee, franko eën dee ba!... bah! batzuk monja, beste atzuk ee... ezkondu, beste atzuk ee, il deenak franko.

– *Hemen bada baten bat, herrian?*

Oain eztao bat ee, juan tzeen-ta. Iruñea juan tzeen da, ta or dabilte oräi're... noizi mein etortzen da, baia askotan ez, oain ee ez.

– *Eta zure hartzaroan zenbat familia zeuden hemen bizitzen? igual hamabi edo, ez?*

Bai, bai, urdun etxe guztian baitzeen ta, gaiñea, etxe... bi o iru etxek ee, maixtarrak eo bazittiin, beste etxe, etxe eta, best etxe kozkorren bat, ta... oitan... bizi tzeen, meo oan? oain denak alde in tziin.

⁴⁹ 'irixten baldin bada' da hori, gure ustez.

⁵⁰ Emaitzak Yrizarren *Mvaans-II* delakoan argitaratu ziren.

– *Beraz, hamabi etxe baino gehiago badira herri honetan...*

Bai, urdun ee... etxe kokkor oek; emen ee, or... etxe kokkor bat-ta dago or, ola... pobre, e? bizittu izan da (...), kaminero at ta, bizittu izandu zela ta...

– *Eta karrikan, umeak korrika eta builaka, orduan hainbeste ume, e?*

Bueno! urdun, urdun ee...

– *Orain ixil-ixil daude herri hauek...*

Klaro ba! baia ya oai, eztao ñor e eta! eztao ñor; jendien... jolasa, laixterren zenbat aldës joaten giñen emendë, atetama siestaa igual-da, ddiio! ni ixil-ixille, atalgañe-tarte artan, ddiia! laixter e plazaa, ta plazaa te, espartziñek ausatus, pozten giñen askotan!... pillotan ere ta... Ah, bai, gazte guzii tenak elkarrakën juatez, ixkiñe atzuk? beste (b)atien e... or ebëltzen giñen, urdun kuadrille bat giña(n)... bai, mutilletan sartu giñenen gu? eztakët ori... emezortzi urtetan eo ola, sartö giñen kuadrillaa, beste ezer bea(r) ta, emezortzë o sartö giñe.

– *Hemezortzi neska-mutil edo?*

Ez, ez, mutillek bakarrik, mutilläk.

– *Hemengo? herriko kuadrilla?*

Bai-bai, ah! ez sekula ainbeste ondo-ta!

– *Taberna bazen orduan?*

Urdun bazen bai, auzko... etxe oietan? ba izaten tzuten.

– *Jai egunetan-eta, baxoerdi batzuk artuz eta kantuz eta... ze giro, e?*

Gizon zarrak ee or dae, musie, sardintzar bat jokatu baziin ee? pues kartan atsalde guziin, pintte at ardo o anis... olaxe aitzen tzeen.

– *Eskola bazen orduan hemen, herrian edo?*

Exkola? bai, guri... guri ematten tziun.

– *Ez zenuten joan behar Astitza edo?*

Ez, ez; etxe aundi ortan? apeza esan dotena ta Sen Mel aingeruu juaten dena ta or(s), or maestra ere orr eoten tzen, beraki jute zun (!) apezak, ori, maestra... umentzat eta; orrea juaten giñen, eskola(a), orr ekasi giñön.

– *Eta beste gauza bat, bukatzeko: San Migeli kantatzen zenioten?*

Bai, oexe!

– *Nolako kantua? gogoratzen zara nola den?*

Je! nek, kantazaleak dienak ta...

– *Bueno, baina, laburra bada...*

San Migel aingerurë kantatö in tzeon, etortzen tzenak kantatzen baitzeo: "Migel, Migel... buru zera? edo...", eh!

– *"Migel, Migel, Migel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria" edo horrelako zerbait?*

Bai, bat kanta ere asten denean? segidoan segitzen deu, baño gaiñekoan? bakizu (...).

MURGINDUETA (Arakil)

Berriemailea:

Pedro Arraras Yeregi, 1906

Gurasoak nongo:

Ama: Murgindueta / Aita Ihabar

23. Inauteriak (1986)

Karnaala, an e berrix, karnabal saten giñun ta...

– *Eta ateratzen zineten etxez etxe edo?*

Bai, orduen bai.

– *Eta zer egiten zen? ea, konta ezazu pixka bat...*

Or, paseoa? pues e...

– *Zerbait jantzi edo?*

Bai, jartzen tzen e... koño, bah! batzuek ee... zeak, anmakomean e... falda o... zar tzek ee, sonreroa? ta... hala! beste beix e... kantzontzillo luze atzuk, ta kamixetaekin? oi bai, oi, nik ez, ni eni(t)zen, ni ez alleatu ortaa, ez.

– *Ez, e?*

Ez, geatu nitzän. Ta, te kendu zeen zeatik orduen... Murginte saldu in pa izän, ta... familiekin, alde in baizuten, ta ez giñen geratu, iru famili bakarrik ta iru familiekin ya etzeon, olako kostunbreik. Oiek beiz? ta egittez etxe? etxez etxe? gu aspaldi etxea galtzen nonbat au zen-ta? arrekën beste... egun batzek? o sea, formatzen tzen kuadrillä,

mutil-kuadrillä, bost o sei o zortzi o... dena-denak unittuik tä denak... etxe (b)atëa fan? ta an, jan.

– *Orduan etxeetan eskatzen zen, ez? eta zer ematen zuten?*

Koño, pues, bah! säjenario (?) egunean-da, txeri-gelte⁵¹ urdaie, o txixtorra, o arrotzeak; eta aiekin e...

– *Ez zen eramaten gerren bat edo...?*

Bai, gerrena eamaten tzen, gerrene ta geo... kordeona, musike, jeje! gerrena ta... xaskie, xaskie arrotzeak, eje! biltzeko.

– *Eta afaria non egiten zen?*

Afarie? pues e... mayordomoas, nola zeatzen tzen? t'ar-, itxa, arren itxan!... ark gisatu te denak jan, gastu guzia? dibiditzen.

– *Eta akordeoiarekin, ba musika bakarrik...*

Aek, juerga, kordiona!...

– *Zer musika zen, hola... fandango, arin-arin eta gisa horretakoa edo modako kantak?*

Modako kantak!

– *Eta jendeak kantatzen zuen?*

Bai-bai-bai...

– *Oroitzen zara pixka bat zer kantuak ziren?*

Ez, ez... ez jauna, akordatzen tut; pixkan akordatzen neiz, ez...

24. San Juan bezperan (1986)

– *San Juan bezperan zer egiten zen? zerbait egiten zen?*

San Juan⁵² bezperan e... sub itten zen; bakotxak bee atarien... parëan? subi ta, famili guztie, xu artaa, fakotxak ee... bee itxan familie su aik-, aikin, kea gogor artzea, je! ta geo dena an artrixe (?)... ori bai.

– *Salto egiten zen?*

Bai, xal-, saltatu, suben... llama an artute; ori bai.

– *Eta zerbait esaten zen handik salto egitean? haren gainetik pasatzean? ez?*

Ez, ez-ez-ez-ez...

– *Ez? sarna kontua dela-eta...*

Ori gero ez akordatzen.

– *'Sarna fuera' edo...*

Ah, guai ere! gue abuelak-eta ori zautu zuten: "Giri-giri martxa... sarna fuera, ogi t'ardo Nafarrora"; ori bai, oain...

– *Eta hasieran nola esan duzu? 'gigi-giri martxa'?*

Giri-giri martxa!... xarna fuera! xarna, nunbait ee xarnez iltzen ta...

– *Ta, Nafarrora...*

"Xarna fuera, ogi t'ardo Nafarrora". Ogi t'ardo eskatu ere, je!... oi ga... gue amak eta oiek bai, baño guk ez.



San Juan bezperako suak Arbizu hurbil herrian - Guaixe

25. Haur-denboran hamar familia herrian (1986)

– *Zu jaio zinenean zenbat familia ziren Murginduetan?*

Jaio nitzenean... amar(s)... amar(s).

– *Joño! eta denak joan dira, gutxika-gutxika ateratzen eta orain bakarra ere ez...*

Ta arreskeo saldu ze dana, da segi, xaldu zen, bestela ez zebille ta... akabos.

– *Eta hona (Ihabarra) etortzen zineten dotrinara eta hola...*

Ah, bai, dena, dena, aunitz.

– *Udalaren aldetik, ayuntamientoaren aldetik, zeinena da? Irañeta aldekoa ala Ihabarkoa?*

Ez, labarköa.

– *Beti izan da? zuk beti ezagutu duzu, ezta? Murginduetan barrio txiki bat balitz bezala, e?*

⁵¹ 'txerri-galde' ote da hori?

⁵² *Xan Juan* idatzi beharko genukeen agian, bustidura-puntu nabarmena aditzen uste dugunez, geroagoko *xautu* eta *xarna* hitzekin –*sarna* ere idatzi dugu– egin bezala.

Bai-bai, bai Yabar... Yabar e bai; emen, ola... ayuntamiento ori? printzipala da au, ballen, balle baita.
 – Ah, Arakil, Arakil, bai...
 Arakil, bai; ta geo? bakotxak bai, alkatia ta ori? ya erriena, administratzeko, ta zer beño? ta Murginten e bai...
 – Orain Irurtzunen dago, ezta?
 Ez! e...
 – Eta hemen, herri bakoitzean izango da kontzejal bat edo horrelako zerbait...
 Konzejal, bai, baia aparte.
 – Baina Murgindueta beti izan da Ihabarko parte bat, ezta?
 Ez-ez, Murgintek ee bear tzöken igual alkatea, bai; pedagono o... sateute, alkate ped-, alcalde pedágono o así.
 – Bai, edo pedaneo edo.
 O peraneo, ore, bai.
 – Baina Murgindueta da Arakil?
 Bai, bai, Arakil da, bai.
 – Irañeta ez...
 Ez, Irañeta es villa.
 – Murgindueta bai...
 Murgindeta bai, Irañeta billa... Irinteaño; kuña bat, aldeo? baño... bueno, arriek? mugea... balleen mugik? Arbaitea⁵³, Irañeta o ta Murgintean... zea, mugik.

IHABAR (Arakil)

Berriemailea:

Micaela Huarte Arraras, 1898

Gurasoak nongo:

Ama Ihabar / Aita: Uharte-Arakil

26. Hil ezkilak jotzeko erak (1988)

– (Lehengo batean) esan zenuen, kanpaiak (ezkilak) nola jotzen zituzten...

Ah, ezkille?

– Bai, elizakoak, hiltzen zelarik gizon zahar bat edo hiltzen balin bazen haur bat eta...

Ah, bai, gizon zar bat iltzen tzënian? ta, ola... ya mötille ere bai: tin-tan, ta, aurrek txiki ziren? ttin-ttan, ttin-ttan, ttin-ttan... alegreað.

– Eta beste modurik bazen?

Ez, ez, ez, ez; bi, bi... bi modu, bai, bi modu.

– Eta balin bazen uholdea edo, inundación edo sua edo...?

Ah! sue zenian? ezkille... göotik: ban-dan-dan-dan-dan!... an, zen guzie... ola: dan-dan-dan-dan-dan-dan-gun-dan-dan, geldittu be ya, ezkiko, (zuzenduz:) erriko ezkille? orein?... eztoke... soñuik beñon, ezkille zen izugarrisko... ona, ta orei're... nik uste nuen ezkilak etzeela... etzeela gastatzen ta ezkillek ee, soñue jua, jua itten dakiote!... oin eztoke soñuik, e? jua den ur-tian ez, aburra(g)o, oin dela bi urte jua... jua giñen? an aldamenekuaki(n)? ta beala erriko kontuek atra giñuzen ta esan nion nik: “Ezkillek ee kanbietu dee orein –esan nion nik– eztoke soñuik” eta, “Egie da, eztoke soñuik”. Ta gëo, tor nitzenian, emen ee, aittu nuen, ezkillek ee galtzen dutela soñuà; ta... konpondu in biar dee, ta eztoke konponzen ta eztoke kasi soñuik; len? ezkil betzek, Jesus!... aitzen tzeen, nik eztaikit noiaño, ta orin oso motela, dao... Klaro, apezare... prexakan ibiltzen da...

– Esaten dute ezkila onak Arruazukoak direla...

Arbazukoak dee?... bai, iez in tzuten e... apuste!



Ezkilok aspaldi husturik dagoen Esteribarko Eskirotz eta Ilarratz baserrien arteko Santa Lucia elizakoak dira, 'La Abadía' deitua - KA2012

⁵³ Toponimo bat ote da hori? Ihabarren galdetu-eta ez digute arrazoirik eman.

– *Bai, konkurso edo apostu edo...*

Konkurso, bai, bai... ta ni arrituik, gue errikuak ee, nola etzuen ee... Jesus! ezkil betzeök!... Gëo, mutillek o, bai... prozesioak itten zittuten Ama Birjiñen egunian ta... eztakit erri guzie barna, Ama Birjiñekin? te, ezkillek... mira: bandiatzen bezeleixen, bi ezkil?, bandiatzen bezeleixen jotzen zittuten, ta zen ederki! ta oräin ez, oräin, eztokete soñuik, oso soñu... tristea dokete; ta, eztu iñok kasuik itten... eztu iñok kasuik itten. Apeza esan duune... Iruñen daö, ta... tortzen da, astëan bi egunes, iendian maten du meza prexaka, bi dö iru erri badauzki, meza emateko, ta eztoke... eztoke denborik.

27. Erauntsiak eta araoak (1988)

– *Eta ekaitza eta... 'ekaitza' esaten da? tempestad, tormenta...*

Ekaitza ez...

– *Edo erauntsi edo, nola da?*

Bai, erauntsie... bai.

– *Konjuroak-eta egiten ziren?*

Konjuroak? bai, asko!...

– *Erauntsia izatean edo?...*

Konjuroak? arri eta, ola... amenazätzen tzuenean? ittin tzuen apezak konjuroa; ta, konjuru itten giñuzen, es-
pera... Aszensio-bezperan, iru egunes, juaten giñen, errotaa? ta... Konjurotoki, ta... Kanposantue, iru; letaniak
ee, leitzen, kantatzen: Santa Catalina, ta Santa... Jesus! oietatik!... Jexux! latin bait'ere, e? zenbaitt aldís, en
latín... sí.

– *Eta konjuroa nola egiten zuen apezak?*

Pues, meza beño len, juaten giñen, bagiñen kon-, bagiñakien konjuroa zela ta, elizetik, juaten giñen elizia, ta
elizetik, atratzen giñen prozesioan; apeza? bi monagilloak bee... nola esaten diote orai? eztakie akordatzen...

– *Gurutzearekin?*

Jesus! nola esaten dakiote eri?... bueno, bi monagilloak? ta sakristaue, ta denak prozesioan. Letania, letania
kantatzen bidian, ta gero, alleatzen giñenian lekue? apezak an itten zittuen bee errezoak, konjuroak, alde batia, erre-
zatu, gio buelta, beste aldia, lau aldetaa, ta beikatzen tzuen... egun betes? Konjurotoki, beste egunian? juaten
giñen errot ondoa, ta beste egunian? errien... errien, a esto... erritik?... garrenian, dana, erri-errien ezkiñen, o eskin
betian edo bestian, ta an itten zittuen bee errezoak, eta... ya está, oriek zeen konjuroak, ta bidean ee... bidean ee
letania, letanía de los santos: Santa Catalina, San Silvestre, ta nik? ze dakit zer...

– *Zertarako konjuraraten zuen?*

Kanpoak-eta guardatzeko...

– *Harritik eta?*

Arritik eta, bai, guardatzeko.

– *Erauntsiak eta...*

Erauntsiak... guardatzeko; eta mala tenpestat, e?

– *Eta konjuraratean, zer esaten zuen?*

Letaniak ee... erraz, ezta? guk, kontestatu: "Ora pro nobis"...

– *Bai, baina, zer beste?*

Besteik etzen, ori.

– *Konjuro egitean zer esaten zuen?*

Letania!

– *Hori besterik ez?*

Letania konjura, santu guziek atratzen zittuen: San Silvestre, Santa... Jesus! Santa Se-, e? bai, banakin nik
ee... dena!

– *Baina letaniak (kantatu), besterik ez...*

Letaniak? bidian letania ta gero an, errezatzen zuen, bee... errezoak!

– *Hori, hori; zer zen errezu hura?*

Nik eztakit zer, latin, en latin e... latin ta, buelta alde batia ta buelta bestia ta, berak ee, apezak ee errezatzen
zuen ta, bee isopoakin uste dut, bee isopoakin? ta...

EKAI (Arakil)

Berriemailea:

Estanislao Etaio Amoztegi, 1903.

Gurasoak nongo:

Aita: Ekai / Ama: Iruñea

28. Kontu zaharrak (1987)

– *Eta San Donatora, ze egunetan joaten zineten?*

Ah! aoztun... zazpi o amaika? zazpin, zazpin, aboztun... zazpin.

– *Eta konta nola biltzen zineten eta...*

Ah!... len meza bat, an, ateratzen zuten.

– *Bai baina ze ordutan ateratzen zineten edo?*

Len e... goixik samar, urruti da ore!... an bostetan o ala, alakon bat.

– *Argitu gabe?*

Ta an... argitziako, alleatu ta, Irañeta⁵⁴ bakizu nun den? t'andik puerto ori, andik, faten giñen, errotatik, bai. Lenao jendia... ibiltzen tzen, bai.

– *Eta asko joaten zineten?*

Bai, erri guzie.

– *Apaizarekin edo?*

A-, oñez, oñez!... lenago oñez ibiltzen tzen, ta geo, emen, San Urbano ere badao, orrea etorri giñen beis, bein o bi o... igandian o, bai. Ala.

– *Behin izan nintzen San Urbanon eta tenderete asko...*

Bakizu, bai, ori nun den?

– *Bai, Gaskun... tenderete asko-eta paratzen zuten orduan...*



Jendea San Donato inguruan, meza bitartean - Guaixe

Gero umerri eta... or, erreta,

majo; t'afariak eta kartze zuten saltzea, ta gëo, piketzeko, zeak, maillukek, ere bai. Orain, ora(i) akatu da dena, orai ya... orain dena, makineria-ta da? ta... ya segak eta, fan dee. Lenao, segan? rau, rau, rau, rau...

– *Eta San Donatora joaten zinetenean apeza joaten zen zuekin?*

Bai, apeza, bai, gue errikoa? faten tzen.

– *Eta eraman behar izaten zenuten bazkaria?*

Mandato, mandato artu zuten? da, beor bat o artu? ta ematen tze(n).

– *Zertarako mandoa?*

Bea iota fateko!

– *Bai, e?*

Joe! bai-bai, oñez, bai...

– *Zuek oinez baina bera mando gainean, e?*

Bai, bai, bai, mando gañen.

– *Eta bazkaria eramaten zenuten?*

Bai, bazkaria bai; eta guk puske... puske amootan⁵⁵ ta, an... ardoa pixkuat, Uartekoak ogie erosten zuten? ta edan ta fuera! andik itxea beis. Eguardiko kasik buelta, bai. Ta, ortik, Ollotik e, faten da majo, bortu ori; Iltzarbe bakizu nun den?

– *Bai.*

Ortik, sartu? ta, or kasi daö... oso eroso fateko, zeil xalara, (zuzenduz:) zelei xamarra? andik aldapa aundi dao, bueltatik ola? joe...

⁵⁴ Ekaitik hasita San Donatorako bidea Irañetan barrena egin behar izatea arraroa iruditzen zaigu.

⁵⁵ 'anotan' da hori, gure ustez.

- *Zeil xamarra, zail xamarra esan duzu?*
Or... zelaie, zelale xamar.
– *Ah, zelai; zelai zabala, e?*
Zabal-zabala ta... Ollotik, ortik? faten zen aixeao; beño guk, atzeakatu bea giñen, andik gañetik erosoau juateko, bai.
– *Ezagutu duzu euskaldunik Ollaranen? Ollo aldean?*
Ah, bai, Ollon?... ez, or-or ez.
– *Eta Izurdiagan edo Errotzen?*
Or e, or e gutxi a. Ya... ya Uarten ta, ala, or, or ezta galdu dela-dela, ez? Uarte-Arakil ta ori.
– *Uharten badira batzuk eta Irañetan ere bai...*
Bai, baya, gutxi egoin dee, bai, oiek. Gazteak e biñipin bagintze bai, or, Irinten.
– *Eta lhabarren ezagutzen duzu euskaldunik?*
Yabarren ez; ya zarrak il tee ta, gazteok...
– *Hemen, Iruñean, ez da izango bateonbat, lhabarkoren bat?*
Bai, bai, badao bat.
– *Bai? eta euskaraz dakiena?*
Bai.
– *Nor da?*
Ori... (familiarterko bati:) ¿cómo se llama ése? ¿tú no te acuerdas? ella... el de la puchinera... Martín se llama él, eztakit ze... apellidoa nola dauken, Iribarren naskiro ok e...
– *Martin Iribarren?*
Bai.
– *Ihabarkoa da?*
Yabarkoa ez, ortik... or erri kokkor badago...
– *Ah! Berasaingoa?*
Berasaingoa, bai.
– *Bere andrea da lhabarkoa, baina andreak ez daki euskaraz...*
Aera fan tzen, aera fan tzen ori, ezkontze-, ezkondu gabe ian tze, Martiñ ori.
– *Baina emaztea da, andrea da lhabarkoa, baina ez daki euskaraz.*
Eztaki orrek?
– *Ez-ez, emazteak ez, andreak ez; Martinek bai.*
Orduen ezautzen duk Martin...
– *Bai, bai, bai.*
Ah, bada eman dao ere.
– *Badakit bai, izan nintzen egun batez berarekin.*
Bai, ya! t'oiek e zarrak samarrak dee, ya. Ya kan- emen euskeraz ya...
– *Zuk ikasi zenuen kantu bat, esaten duena "sentitzen zaitut, sentitzen... ur berria, or goiena"...?*
Ah, Urgoiena, Urteberri, U-...
– *Bai, hori nola da?*
Ori Urteberritan kantatzen zuten.
– *Eta oroitzen zara nola?*
Ori, ya... enaiz akordatzen e: "Urteberri egun ona"... Orai, eztakit, eztakit zeñek dakien, ya... eztakit, dena ta... faltatzen die lenago zarrak.

URRITZOLA (Arakil)

Berriemailea:
Juan Bautista Etxarren Otamendi, 1900
Gurasoak nongo:
Aita: Urritzola / Ama: Askarate (Araitz)

29. Ukuilu, ur eta alorren bedeinkapena (1985)

- *Eta baita ere, ez dakit iraztorra edo zer beste erre, eta haren kea ukuiluan zabaldu edo... hori noiz edo nola izaten da?*
Ah!... ori? San Anton.
– *San Anton? aber, hori nola da?*
Ba... lemixko? makil betzuk eta, zea batzuk, elizea eaman; oain ya ezta itten, e? eamaten tzeen, ta, apezak be-deiketu, ta geo? ore're ez, sekatu lemixiko, ta urrengo urteako. Ta, San Anton goizian? su in? ta, puske aiek? ya erre

tzeen garaien? artu, zartai zar batian, zartagi badakizu zer den? zartai zar batëan? ta, okoillun buelta eman, ani-mele guztiei, muturretik pasatuz, jeje! fãrres... oe, esainko zuten: "Obe pentsu ona ematen baneeek... ekia beño".

– *Obe pentsu ona?*

"Pentsu ematen baneeek", animeliak esainko zutela: "Mejor si me das buen pienso que... que el humo"... e? kostunbre oi... zautu nuen⁵⁶ nik.

Ta, beste kostunbre at bazen? San Gregorio, maitzean, beatzigarrenean; ta, urea bedekatzen tzun apezak, ta ur oe artu? katillu (b)etian o eltze (b)atëan? ta gue ama? alorres alorres, ta gure ama bezela, beste guztiek e bai, ta, artatik gari onak tortzeko? eta, Jaingoikoa(k) libretzeko... eauntsi txarres? ta olako, orazioaz itzulkin? ta, denai buelta ematen tzion. Ta, azkenian? sobratzen tzena... "Iñok ezpadu siñestatzen? o balën bada, bakarren bat siñestatzen eztuna? arren gariek ere salba daitzela", ta, botatzen tzen... sobratzen tzena; buelta manderëa!

– *Polita, e?*

Bai; oin ya, gauze oiek gal-, pasatu dee.

– *Apezak ez zuen inoiz alorrek-eta bedekatzen?*

Baita ere! bai.

– *Eta baita ere saguen kontra eta...?*

Baita ere, bai, bai, bazëren, bai.

– *Hori noiz izaten zen?*

Erri guztietan? gurutzeak tzeren, mendin; emen ee bazeen, elizetik beida o? gurutze at, tzureskõa: lau makil, ola? an eoten tzen ta... zer ferri-, fetxetan, eztizut seguru esaen... beti're, Paskoak...-kin, torritzen tzen jai ori, o... fest ori. Eun artan? asi bear tzeen, rogatibek, rogatibek etsaten tzioten gauze oiei-ta, e? ta... apeza artu? ta erri guztie juaten giñen gurutze artaa? ta apeza, orduen, beikatzen zittun kanpõak⁵⁷, mendik eta... denak, bai. Ta ya, pixke-pixkeka gurutze oik denak, kendu dëe. Emen bazen bat, or beste at, ta, erri guztietan bazeen bi o iru, beño, oain, iñok e, iñok eztu... señaileik maten ya.

– *Eta nork kendu ditu, edo?*

Ara! ez... ori, ori, kostunbriak juan dee ta, iñok eztio, eztio kasuik in. Oain e, esan dute, bai, Lunbierren, sekuleko desastriak in tutela; ba omen tzeen kru-, gurutzeak eta gauzäk, ta... denak puskātu ta, elizen ee zerbait in dute.

– *Bai?*

Bai, eunotan e? ni... biar, izeinko ittu amabost eun, la... peregrinación de los... enfermos? Jabierren eondu nitzen, ta, Lunbierren ee bai, ta, orduskeos? periodikoa leittu ut, desastriak in ttutela, elizen? ta alako... lekutan, gurutzeak bazeela? ta ixkizio ttar batzuk e paretetan in ttutela... Bah! mai sin provecho; nai ezpaduk, utzak!

– *Eta apezak, hori bedekatzearekin batera, ez zuen zerbait egiten arratoiak edo saguak edo...*

Bai-bai, bee... orazioak bazittun, bai: "Libranos del...", ta badakizu? nik ez-, ez nittun gauzà, guk goguan artu beño... ba ez! bazittun gauze bakotxak, bee... orazioa bazun, bai. Gu pozik e juaten giñen! ta gañea, juaten tzeen guztiei? gosari pixkuat eamaten giñun? ta, ogi t'ard(o)a? nai giñun guztie, eun ortan, bai.

30. Promesa gezurtiak (1985)

Ba... zagiak, zeen, pellejos, auntze-larrue? kendu? ta ardoa trasportatzen ibiltzen tzuten, esos pellejos, de diez litros...

– *Hori non?*

Emen!... emen, tierra ontan denëan, ta gi(t)zona batzeen⁵⁸, mandõakin? Estellet-, Estella aldian, artu bi zagi oietatik? unos... obei bet kantaro o ala? –kantaroak, ontze litros setenta y siete zentilitros, tzun– obei bet dekalitro o ala? ta torri eta saltzen zittuten, ta, orko erri ortan? zubi oe pasatu ta oneta? loyatz, ordun karretereik etzen.

– *Zein da herri hori?*

Erroz; zubie pasatu ta loy aundiel ta, mandoa? bee zagi, bee kargaki(n), an sartu men tzen, ta, gizona... ez! ez sartu nai loyea, bea're atrapatuko zela? ta mandoa tripeaño loyes beteik? ta azkeneko, ausilio! eskatu men tzen. Ta, errota, goiko eskiñen or dago, oi, iriñe itteko ta, errotari, errotarie, aittu men tzun ta: "¿Qué andas Joxe Miguel?" - "Pues, aquí, el macho entrar en el barro y... no puede sacar. A la Virgen de Oskia... tres pellejos de vino, a San Miguel? un pellejo de vino". A no sé cuántas... - "Pero chico, más que lo que vale el macho y la carga vas a ofrecer" –euskeras– "Beño, gizona! mandoak eta... ardoak balio duten beño geigo eskeintzen" - "Ah! loyetik atraik baleo mandoa?... or geldittuko lizke eskañiik".

– *Ez zuen kunplitzeko gogorik, e?*

Mingañez!

⁵⁶ Berriemaileak, Yrizarren *Mvaanm* lanerako galdekatu genuenean, *nun, ziñun, zun...* moduko erak eman bazizkigun ere, elkarrizketa askean *nuen, zenuen / ziñuen, zuen...* gisakoak ere erabili zituen. Hitzen fonologiari buruz, bestalde, ustez larraundar mintzamoldearen eragina –Juan Bautistaren ama, sortzez araitarra, Albiasun bizi izanikoa baitzen– somatu uste izan dugu, Iñaki Caminok ere, bere *Hego-Nafarrera* izenburuko lanean (40. orr.), egokiro ohartarazi duenez.

⁵⁷ *kanpõat* aditzen ote den gaude.

⁵⁸ Hots, 'bazaen' = 'bazihoan'.

– *Eta San Migel eta hori ere, euskaraz esaten zuen?*

Bai.

– *Nola, nola esaten zuen?*

“Migel Aingerue”.

– *Bai, ta aber, atera zitzaion, atera zaikion beste gizon bat, ez?*

Errotarie.

– *Errotaria, eta zer, nola esan zion?*

“Joxe Migel, ze ari aiz?”, ta, “Emen, mandoa sartu zaikiet loyen? ta, etzin a-... etzinik ta, ateako ta, olako santuei, Ama Berjiñe Oskikoai, anbeste karga olio eskañi ziotet, San Migel Aingeruei e bai, ta, olako santuei’re bai, San Donatuei’re bai, anbeste” ta, “Beño, erua o zer yago i? mandoak balio du, mandoak eta kargak⁵⁹ balio dun beño, olio geigok (e)karri...” - “Ah! mandoa loyetik atreaik baleo!”...

31. Galtzin- eta kisu-labeez zerbait (1987)

– *Kisu-labeak eta, egin izan dira hemen?*

Bai.

– *Zuk egin duzu edo ikusi duzu egiten?*

Nik ez, beño... galtzin-labeak? bai, galtzin-labiek.

– *Horiek zer dira?*

Zulo etzuk ongi lurrian in? ta... gero⁶⁰, ori e? azpitik zulu at utzi? ta, gora erä... nunbai(t), erdi-erditik? zulu at gora; ta, arris bete? arriek ekartze itten ber zun, e? kalitze ezpatzen ematen? etzen ona, ta arris bete zul ue? ta azpitik, sue man? tä igual, zortzi o amarr eunes, suten euki? ta, erretzen tzen! ta, gorraz, gorra-gorra itten tzute, ta, kaltziñä, areki. Ta kisuie igual, estilo... bera; kaltrazie izen biar tzun, arri-klasea, bai; bat zen kixuendako? ta beste at galtziñendako. Galtziñe, badakizu tzer den, ‘cal’, ‘cal y yeso’; una pa ca-... para cal, había una clase de piedra? y otra...

– *Bai; segi, segi, segi euskaraz, bai...*

Ta beste klasian? galtziñentzat, bai. Ta, putzuek, ei zuen, tze? lau-bost metro bai, lurrian, ta azpitik? tunel bat bezela?... lemixko? sue, sus bete, ta ya... sue erre tzen garaien? berriz sartzeko? zea... itten tzaitiko ez jetxi, berriz sartzen tzioten, ta, zortzi-amar eunes, suten egin biar tze, ta, eh! kixkiltzen tzen! dena, ta, gorr ora gora itten tzen, zuri-zuri galtziñe, ta kixue iluntxägo...

– *Baina egin, berdin egiten zen bata nola bestea?*

Bai, bai, bai, lana? igual zuke.

– *Harria zen diferentea...*

Bai.

– *Eta nondik ekartzen zen harri-mota hori?*

Or, goit(t)i ortan; Arramaska saten diote, mendi bet? ta andik kartzen (t)zuten.

– *Arramaska?*

Arramaska, bai, orbel aietan bera da ta... ta, emen? tzer? kilometro erdi bet eonko da, galtzin-labetaa, Pinanzin⁶¹ dia bezte, bi... bi labe andi! ze? izinko zittuten arrek, ayek... lau metro, de diametro, bai, bakotxä(k), ta alture seion bat metro? eta je! eerki bete arris! beño, beti, tximiñie ger-, erditik uzten, ta, oi bete? eurrekin? su man? ta, anbeste eunes? juntatzen tze(n), galtziñe juntatzen tze(n), bai.

– *Eta harria...*

Arri? karri biar tzen goittitik.

– *Arramaska horretatik?*

Arramaskätik karri.

– *Hori galtzine, eta beste harria egiteko?*



Urritzolan zegoena aspaldi desagertu zenez, honakoa 'Olatzagutiko Mendiandiko galtzin-labea' izenez ezagutzen dena da, Altsasutik Urbararako bidean - KA2012

⁵⁹ *karkak* aditzen uste dugu hor.

⁶⁰ *keru* aditzen uste dugu hor.

⁶¹ Idatzi bezala aditzen uste dugun izen hau toponimo bat ote da? Ez jakin, berriemailearen seme Inaziori ez baitaio ezaguna egiten.

Ore ez, falsuago zena, kixuentzat illunao, tufa⁶² saten diogu, tufa e... arrie, galtziñena? fiñe, beño beste oi... bastuago.
 – *Eta hau nondik ekartzen zen?*
 Or, ondo-ondotik, bai, beste menditto atetik? ortik.
 – *Nola du izena, beste menditto horrek?*
 Eularbileta, Eulerro...-bileta⁶³.
 – *Eta hiru-lau edo sei egun egon behar tzuen, e?*
 O geyo, e? ori fijo eztiut esaiñen, biño... Erreroak? berotzen duen bezela, burnie? ola... berotu biar tzen a, bere...
 lazkoa fatzu(k).
 – *Eta lan horretan ari zenak zein izena zuen?*
 Caleros...
 – *Eta euskaraz? kare-egileak edo?*
 Galtzingillëak.
 – *Eta besteak? kisu...*
 Kisu, kisu... kisuille, kisuillea.
 – *Eta hemen, herri honetan baziren, e? horretara dedikatzen zirenak...*
 Ala, ala esaten tzuten, bazerela; nik ez nittun (t)zautu.
 – *Baina labe horiek bai, ezagutu dituzu...*
 Lan ore bai, lan oiek ezautu dittut.
 – *Eta ez zen arriskurik? mendia... erretzen hasi edo?*
 Ez, pelagroik etzen.

BERATSAIN (Atez)

Berriemailea:

Martin Iribarren Sagardia, 1902

Gurasoak nongo:

aita: Beratsain / ama: Orokieta (Basaburua)

32. Ongarri-garraioa (1985)

– *Untzutik etortzen zinen, e?*
 Bai, zazpi kilometro.
 – *Eta nola etortzen zinen? aber, aber, konta, konta, zer egiten zenuen?*
 Nee iri-pariaki(n)? ta karroa, karro bolante äundi oietatik? tortzen nitzen orrea? ta, farola paatzen nue karroan punten? ta kargatzen nun karroa, sardeaki(n). Eerki kargatu? te, argitzen... asteko bezala? ta, Cuesta... Cuesta de la Reina p'abajo? jua nideien ni, itxe alde; ni bederatzietako itxea.
 – *Bai, e?*
 Bai, bed(e)ratzietan? itxea jua ya, an zagoen... gosaria prestatuik? gosaldu? te, artu idiek eta karroa, karroa deskargatzea, bertze leku betea. Emendik ematen giñuen asko, tx-, txirriona⁶⁴ esaten tzioten orrei.
 – *Nola?*
 Txirriona, erraten ziate.
 – *Eta hori zer da?*
 Basure; Iruñeko, Iruñen e biltzen tzen basure guztie? etzuten aski emen, biltzen, emateko, errietara... oai balaude ola obe luteke!...
 – *Baina zu, Untzutik, etortzen zinen goizeko ordu batean, handik aterata...*
 Ordu batian, andik atra? ta...
 – *Eta non biltzen zenuen txirriuna?*
 Bilduik eoten tzen, montonian paatzen zuten...
 – *Eta joaten zinen kargatuz...*
 Nik? montenetik artu? te... kargatu? te, tira, itxea berris.
 – *Baina utzi, hemen...*

⁶² Iribarrenen VN-n zera dakusagu: TUSA. Piedra blanda, margosa o arcillosa que se erosiona con facilidad; toba. [Urraul Alto, Zona de Eslava]. // Por extensión, capa de tierra en la que abunda la toba, y que resulta imposible de ser sembrada. [Z. de Eslava].

⁶³ Toponimoa, berez, *Eularrogibelea* da.

⁶⁴ Iribarrenek bere VN-n honela dio: CHIRRIÓN. Nombre que aplican exclusivamente al carro de la basura [Pamplona]. // Por extensión, basura, estiércol (...) // Vertedero de basura [Pamplona].

- Nola utzi?
 – *Non utzi (uzten) zenuen txirriuna?*
 Tzirriuna? uzten zuten, karzelatik?... unataxao; karzelako ataritik pasten nitzen ni, te... unataxao, 'cascajera' erraten zioten oi, zelai-zelaie, puskat aundie baze(n)? bah! oai ya dana, oiñ itxeak iñi taude.
 – *Bai, bai, bai...*
 Bai, dena, t'orra etortzen nitzen ni.
 – *Orduan, basurari erraten zaio txirriuna, e?*
 Tzirriöna... bai.
 – *Orduan zu, herritik atera, idi-parearekin eta karroarekin; etortzen zinen, ikusten tzirriuna pilaturik, montoiturik zegoen lekuan eta kargatu, ez?*
 Ez!
 – *Sardeakin edo?*
 Möntana-, möntanasu⁶⁵ egoten tzien, biño ladrillo (b)et ola, ta bertzoat ola paatzen zuten? ta an tzeon karton bat eskrittuik, noena zen. Da ore, kusi ore? ta bueno, "Au de neria". Artu iriek an? ta, arrimatu? te, fuera.
 – *Eta aurrera?*
 Untzure beis...
 – *E?*
 Beis Untzure.
 – *Bai, bai, bai; eta hori zenbat lekutan, leku aunitzetan egiten zenuen hori?*
 Ez, emen, Untzun, Untzun; gero, Gaztellanian⁶⁶ ere bai, mutil neon lekutik...
 – *Non? Gazte...?*
 Garzeriain, kaserio bat, Ollakaixketa Bentatik goitixeo, pixkattö batëa.
 – *Ah, Gartziriain?*
 Gartziriain, Markalaindik beittiago.
 – *Ah, bai-bai, badakit, badakit bai, non den, bai...*
 Untzutik, idieki(n), t'etorri orrara? kaskajerara? –kaskajera erraten zioten: 'torri kaskajerara'–, or, farola paatu karröan punttëan? ta kargatu karröa? ta, argitten asteako? karzeleko ataritik beitti banideien ni... itxe aldea; goizeko bederatzietako? itxea.
 – *Baina Untzutik honaino, kaskajeraraino, ez zenuen ezer kargatzen...*
 Ez-ez-ez, ja ere!
 – *Hor, hor bakarrik...*
 Or, or, or bakarrik.
 – *Hor zegoen tzirriuna...*
 Iruñeko... basure guziek? orrea biltzen zittuten, t'or, por montonetan, denak eskatuik zauzkiten!... nei biño geiao eskatuik!
 – *Zuk bakar-bakarrik zurea hartzen zenuen...*
 Nik, nerea bakar-bakarra.
 – *Bertze batzuek ere hartzen zuten.*
 Aiek? bakotxak berea, bakotxak berea.
 – *Eta gero tzirriun(a) hura kargatu, karroan, eta Untzura eraman?*
 Untzure eman.
 – *Eta han, zer egiten zen tzirriunarekin?*
 An? itxeko basure... nasi dena? t'ore zen abonoik oben-obena... alorrändako.
 – *Eta pagatu behar zenuen (zizuten) horregatik?*
 Pagatu? bai, pagatzen zuten, eztaiz zenbat paatzen zuten. Bai, neri? nausiek erraten tzien, launbetetan eitten zittuten lan oiek... launbetero? sabaderos, launbetero ta esan tzien Iruñera, ta ola juntatzen tzien kuadrille bat? eta batek artzen tzuen onbertze tönelada, bertzeak onbertze, bertzeak onbertze... artzen zittuten? ta, etxeraten zenean? arratsean? pues, afaltzeko garaian erraten tzien neri: "Bueno, ya tengo este trabajo pa toda la semana". Puh! no está mal.
 – *Eta zenbatean behin etortzen zinen? asteen behin? larunbatetan?*
 Aste guzien igual.
 – *Egunero?*
 Eunero, aste guzien ëunero pasten nittuen nik aste osoa, tortzen nitzela orrea, ta bedratzietako? itxea. Gero? gosaldü eta karroa deskargatu? te... atzera idiak, xo lastu? uzterritik? ta yatera eman, pensu at o bi? te beis lotu? te, itxeko lanetaa.

⁶⁵ 'montonatu, montonaturik' izan liteke hori, agian.

⁶⁶ Gaste- honen eta ondorengo Garze-ren artean zertzen den errotazismoa ulergarria da batzuetan 'esan' eta beste batzuetan 'erran' erabili ohi duen inoren ahotan.

– *Orduan abono gehiegi, ez? Untzurako, egunoro eramaten baldin bazenuen halako karga handia...*

Ez geiegi! milla tön-, (zuzenduz:) milla kilo biño geigo egune-, eunero eman nittun nik.

– *Ez zen gehiegi?*

Ez-ez-ez-ez!... zenbatenas geigo maten tzaion alorräi? tä obeki, garbantzuek etorriko zien, bai; eerki egosten tzien an.

– *Garbantzua erraten da?*

Garbantzue, uskeas garbantzue.

– *Eta ez duzu beste izen bat aditu, garbantzo errateko? txitxi...*

Txiririoa, uskeas da garbantzue, garbanzo...

– *Eta txitxirioa?*

En bascuen(t)ze, uskeras, txitxirioa.

– *Erraten zen, e? txitxirioa erraten zen...*

Bai, txitxirioa; ori eosten zen eerki. Oaingo... oaingo abono okeki? ez tie egosten ez txitxirioak eta ez alubiek eta ez ixtoriati egosten, len bezala; goorrakoak etortzen die.

ZIA (Gulibar)

Berriemailea:

Hipolito Goñi Erro, 1901

Gurasoak nongo:

Ama: Zia / Aita: Etxaleku (Imotz)

33. Laboreak neurtzeko kutxak (1988)

– *Nola dira pikorrek neurtzeko kajon hoiak? (...) nola dira medida hoiak?*

Aaah! oiek, guardatzen tzen-tzen... erre-gue, da... ah, ta biño, ez! ez giñuen, ez giñuen e... pika-, (zuzenduz:) pizure, erreguek pisetzen du... oitebi kilo, e? ta, modu ortan, artzen giñuen, ez giñuen... ibiltzen e, neurriek etziren ibiltzen, etziren ibiltzen ya.

– *Horiek ziren neurriak, e?*

Ori? ori? pues pizue, pizue; erdene-, erregurdia ateratzen bazen? amek at gero? eta... ola, modu ortan, deitten tzen... egerruen⁶⁷ kontuen in eta.

– *Eta gero, erreguerdia baino ttikiagoa?*

Erreguerdie biño geyagau?⁶⁸ gaitzerue, erraten tzaikiona.

– *Eta horrek zenbat zuen?*

Orren erdie, erregurdien erdie, erdie; geo, beis? almötea.

– *Eta gaitzeruerdie ez zen?*

Gaitzeru erdie? pues ori, ori de, ta gaitzeruerdie? ez, ez-ez, bi almote.

– *Erregue, erreguerdie, gaitzerue...*

Erreguerdie, gaitzerue eta almoteak; ta... almuteerdie're... almuteerdie're baze.

– *Orduan, gaitzerue eta almotea...*

Almötea, ta almuteerdie're bazen, almutean, almotean o erdie ere bai.

– *Horrek gutxi izanen zuen.*

Eeee... etzen!... Gaitzerue? erregurdien erdie, ta orduen artu biar, bi almote t'erdie? e... ta eztizut nola... bi almo-, bi almöte... bai.

– *Eta gero, lur-sailak, alorrek, erekitzeko alorrek eta, horiek izaten dituzte neurri batzuk; erdaraz zaio 'robada' eta, e?*



Laboreak neurtzeko kajoi hauek Ariako Apateneko garai barneko ziskuen gainean aurkitu genituen - KA2012

⁶⁷ 'erreguen' hitzaren metatesia agertzen da hor.

⁶⁸ 'gehiago' bide da hori, 'gutxiago' itxaron beharko bazen ere.

Ah, robada, bai, bai, erregunerrie⁶⁹, onea dee... euskeas erregunerrie guk.

– *Erregunerrie? hori da 'robada', e?*

Bai-bai, ta (...) ¿diez robadas? amar erregunerrie, duzu...

– *Eta 'robada' batek edo erregunerri batek zenbat metro kuadratu ditu?*

Neurrie... orrek? pues, orduan... metro kuadrado ta beti ez giñuen egiñen, ez... “Zazpi erregunerriko alorra daukegu, kara, edo sei erregunerriko alorra”, o... ola, seis robadas, o... sei erregunerrie, erregunerrie. Erregunerri erraten tzaio or (...).

– *Erregunerdie edo erregunerrie? (galdera desegokia geurea)*

E? erregunerrie, erregunerrie; tä... zaikion, bai, alorra ee. Por ejemplo, es, si es seis robadas, ahora pues, sei erregunerrie! sei erreunerrie; eztaki(t), erreunerrie? pues eztakit zenbat almuta tuen edo zenbat... zenbat metro o... zuen.

– *Bai, nolnahi ere erregune(u)rrie, bai. Eta bazen beste neurririk? alorrek neurtzeko beste neurri-klaserik?*

Ez, ez, ez...

– *Ez, ez; beti hola, ezta? erregune(u)rrie...*

Erregunerrie...

– *Hainbeste erregune(u)rrie...*

Bai, bai; setecientos... zenbat metro ttö? trescientos... digo... ochocientos noventa y ocho metros, cuadrados ttu, erreunerriek, la robada... ochocientos noventa y ocho metros, zortzieun ta... euskeaz.

34. Irurtzongo feria; aitak erakutsi bertsoak (1988)⁷⁰

1) Milla zortzitan eun ta
Laurte oitezortzi
Munduko asuntuak
Aurten deramazki
Majiñe bat e parra
Azkar egin dute
Asto txiki poli bat
Dela mediante.

4) Numeruak zauzkien
Eskuen saltzeko
Astu oi artsaldian
Irrifetuzeko
Porfietu zitzaiden
Nik ere artzeko
Astu ori lenbailen
Enpleatuzeko.

7) Artsaldeko bi orduak
Dire bitertian
Jendia juntatu zen
Estanko batian
Numeruak sarturik
Eltze motz batian
Publiko yokatu de
Guzien aurrian.

2) Irurtzunen ferie⁷¹
Zen egun orreki
Gu ere juan giñen
Ganadoareki
Utsik baño y obe du
Beti zerbaitekin
Denak gertatzen dire
Nekazarieki.

5) Inazio deitu nuen
Bela neregana
Artuko ote geñuen
Biek erdi bena
Ez zela garesti
Biek xueldo bana
Arrixka la fortuna
Suertiaz berama.

8) Ögei t'iru lumero
Joan dire airian
Guria suertatu de
Ogeite laubian.
... ..
... ..
Pastarako abria
Pezt'erdia betian.

3) Patrizio deitzen tzaion
Kinkilleru ori
Apartetik oyuke
Joateko neri
Alkar salutatzuten
Ala giñen ari
Astua aldamanian
Zauken pregonari.

6) Numeruak nerönek
Eslejituriken
Bi xueldo pagatute
Sartu nuen patriken
Nongua ta nor nitzen
Liste arturiken
Gero izen ez neri
Gizon moduriken.

9) Bizente Otamendi
Erriko alkatia
Orrek tiratu zuen
Astuan suertia
Berak ere bazuen
Zerbait inportia
Arrek lana (y)eginta
Gureztat suertia.

Biño? ya, osti koitti⁷² ... Gero? beis... aitei additus ¿verdad? (...) biño, ez baitu(u) kursetzen atzen du(u). Gero, gero...

⁶⁹ 'erregunerrie' behar luke horrek berriemaileak denbora guztian *erregunerrie* erabilita ere, hainbatetan non gu geu haren atzetik eraman gintuen.

⁷⁰ Bertso hauek, aldaera batzuekin, Andres Astiz Oderizek argitara eman zituen 1960an, “*Goldaraz'ko astoaren bertsoak*” titulupean, Goldaraz'ko bersolaria'ren kontu eta bersoak izenburuko liburuan.

⁷¹ *Irurtzunen ferie* aditzen uste dugu, bai-eta *zer egun orreki* hurrengo lerroan ere.

⁷² 'hortik goiti' da hori gure ustez, errotazismo, sandhi, bustidura eta guzti.

10) Andre bat an asto gañen
Geñuen paratu
Onela sartu giñen
Bizenteren Bentan
An trago bana eginta
Andik abiatu
Urren da Latasaa
giñen allegatu.

11) An trago bana eanta
Andik abiatu
Mutil bat asto gañen
Giñuben paratu
Beste iru launek
Atzetik kantatu
Onela Golaratza
Giñen allegatu.

12) Jendia juartu zenea(n)
Gure kantetara
Denak atera ziren
Atarietarea
Iñok etzuen prisarik
Guztie (o)lgetara
Gu geren astuakin
Denak tabernara.

13) Astoak jan zittuen
Maitze ta belarra
Gaixuak bazauken
Zerbaiteren biarra
Gu beris⁷³ ogiekin
Denak sardintzarra
Lau trago (e)do geyego
Edo janari txarra.

14) Egun artan berian
Erostune bazen
Derrepente saltzia
Arrazue ez zen
Lemixko kinkilleru
Ori
(bertso batzuk
idatzi gabe utzi ditugu)

15) Laugarren eostune
Gallego Bizente
Orrekiñ egin duu
Tratua dezente
Asko sanidadera
Dirue presente
Olakuak'de zire
Askoz esijente.

LARUNBE, Oraien auzoa (Gulibar)

Berriemailea:

Gregoria Baraibar Erbiti, 1912

Gurasoak nongo:

Aita: Larunbe / Ama: Etxaleku (Imotz)

35. Ergako Trinitatea (1981)

– (Egiten al da) erromeria edo, a la Trinidad de Aginaga edo?

Ezta itten ya.

– Baina denboraz bai? denbora batean egiten zen?

Bai, lenago itten tzen.

– Noiz, noiz egiten zen erromeria hura?

Asteartean.

– Baina noiz? maiatzean, abuztuan, edo zein egunetan?

Trinitateako... iruarren eunian.

– Eta zer egiten zen? joaten zen hemendik?

Emendi? apezaki ta... gurutzeaki ta dena, prozesioan juaten tzen.

– Bai? herri guzia?

Erri guzia? balle guzia, Guliko balle guzia.

– Eta denak biltzen ziren ellegatu baino lehen?

Biltzen tzeen?... Aiñaa-, Ainagara.

– Ah, Aginagara; eta gero, handik elkarrekin...

Ta gero? andik elkarreki(n), prozesioan, gurutzeakin ta Ama Berjiñekin ta... dena.

– Eta bidez zer egiten zen, errezatu?

Biden... letaniak kantatzen tzien.

– Latinez?

Latinez, ta... geo, area juan? ta... nai zunak gosaldtu, nai zunak mezara juan? lemixko ematen tzuten meza at, ta geo... gosaltzea denak; beis, denboa, ordu at o... ze? pastuko zen, an, gosaltzen ta... itzez, itz ekitten ta, ala, ta geo, beës, meza, ta... geo, beis... o elizea despeditzea? ta geo itxea.



Ergako Trinitate Saindua deritzan ermitaren ikuspegia - KA2012

⁷³ beris hori ohiko 'berriz' eta batzuetan aditu ohi den 'beis / beix' era laburtuaren artean dago.

Ori asteartean. lendea? juaten tzeen... nai zunak, orduen etzen prozesioik eta ez daus, bakotxa⁷⁴ nai zena juaten tzen ta, ordun bai, orduen bazeen txutxeria-saltzaleak eta denetatik; nai zuna dantza, nai zunak jan, bakotxak libre zun, ta nai zunak, nai zun or... orduen? juaten tzen? ta... bueltatzen tzen, biño asteartian ez, asteartian prozesioan juaten tzen? ta prozesioan... etortzen, bai. Orduen, bakotxa... biltzen tzen prozesiora ta, alaxe, bueltatzen tzen.

– *Eta apezak predikatzen zuen?*

Ez! predikatzen... gutxi, zerbait, itzen batzuk itten zittun biño, lenbelen despatxatzea, elizetik ya an otza itten baitzun; ez, gu... otza zen ta, lenbelen despatxatzea. An, sue aundie itten tzuten, itxa bada ta... an, maiek ee baita, suen... ingurura jentea biltzen tzen, gosaldu eta. Ta ya, ezta kontatzekoik ortatik.

– *Euskaraz ez zen predikatzen?*

Ez-ez-ez-ez-ez... ezpaitzen euskaldunik! nee denboan guk eztuu euskaldunik, kasik eta.

– *Eta zu txiki edo gazte zinelarik, hemengo apeza nongoa zen?*

Eztait nungua zen; izena don Frantzisko zuen.

– *Baina ez zen herri honetako, eta euskaraz ez zekien...*

Eztait bazakin biño nik, nik ez nuen-un zautu ure e kasi; ni aitzea, besteai aitzea.

– *Eta saltzaleak zer saltzen zuten, txutxeriak bakarrik edo aziendarako yoaleak eta halako gauzak?*

Ez-ez-ez-ez-ez... yoaleak bai, bat eo beste izein tzen biño gutxi, biño... eh! txutxeriak, aurrendako txutxeriak, dultzëak eta ala, kaameloak ta...

– *Eta zer musika sonatzen zen? txistu edo... akordeonista edo?*

Bah!... enaiz ooitzen ni ya ze txistu, ze... biño, jendëa juaten tzen, inguruko jendiak juaten tzeen, akordeonon bat.

– *Bai erromeria pixka bat eta egiten zen...*

Klaro, piskat animetzeko.

36. Ogi egiten (1984)

Ogi itteko, artesa... zun izena; da ganbella bat bezala iñe? ta an botatzen tzen lemixko iriñe. Geo? an itten, entrepian itten tze(n)... zulo at bezala? ta... an botatzen tzen, lemixko... iriñe, ta geo... gatz, geo... ¿la levadura cómo es?

– *Orantza?*

Orantza, ta pixke-pixke artzen⁷⁵ tzen lanean arrekin? eskus? ta... ore, ya masa gogortzen tzelaik pixkoat? uzten tzen deskansatzen, be... denboa puskuat? ta... ya, biltzen tzen oyal batian, ta an bildu ta uzten tzen, be, bee... azpien paatu... su pixkuat? ez ozteko? ta... ore, oyal ore goortzen tzelaik? ya... masa azten tzelaik? itten tzeen obiek. Baki puskoat? ore... beis masatu? ta... paatzen tzeen, olan gañen, paatzen tzeen... manta? do... mainderia do ola, an uzteko ogiek, beis, beste... denboa pixkoat? ta... an beis, azten tzeelaik gexago? sartzen tzeen labea, erretzeko. Labian, lemixko gal-, garbitzen tzen barneti? ta an sartzen tzeen pala bateki.

– *Nola garbitzen zen, edo zerez?*

Garbitzen tzen, pal-, o makil betean puntun? partzen tzen... maizen ostoa, o... tzeai, berde balin bāzen? ta garbitzen tzen moo... urian, bostu ore? ta... garbi-garbie utzi labia?...

– *Bustu? busti?*

Busti ore? ta... garbi-garbie utzi labia? ta geo obie sartu, ta... labëan, labean aguan? biltzen tzen sue dena, sue ta... zea, la ceniza... autse! sue ta autse dena biltzen tzen, ta arren gañen? koloria artzeko? botatzen zakion... arram-, rama batzuk, su pixkoat itteko, agia, (zuzenduz:) labian aguan? ta... kolorea artzen tzuelaik? uzten tzen ya... denboa... denbora franko, de ogie pixkoat gogortzeko; ta ya, iduitzen tzakiolaik bakotxai, iñik zeola? pal...-akën, sartzen tzen palaki? ateatzen tzen ogie. Ya está, el pan hecho.

BEORBURU (Txulapain)

Berriemailea:

Esteban Garbisu Aranguren, 1911

Gurasoak nongo:

Aita: Beorbutu / Ama: Uharte-Arakil

⁷⁴ *gaakotxa* edo *garakotxa* aditzen uste dugu hor.

⁷⁵ *aritzen* hitzaren laburketa dirudi horrek.

37. Lixu egiten (1984)

Lixue iteko? lenik, e... pues... maineriak eta atorrak eta... gauzek, garbitzeko? da nik, bezperatik, e... beratu. Gero? pues, konportan sartu? te... arratsean? ure beroaki pues... gañetik bota, beño... konportan sartu biño len... ori, jabonaki, ederki dena... barratu maineriei te ator eta pantalonai ta denei? te gero? pues... azpien? izeten zuten pues...

– *Autsa?*

Autse, ta andik pasten tzen ure ta gero... koloria artzen zuen? urek eta gero, aldien biño aldien, beroxeago biño irikitten asi gabe, aldiero, eztaik, eztaik eo... ore, sei edo zortzi edo... bedratzi edo amar... amar aldís, aldien biño aldien beroxago, bota... konportara, ta andik, e... bañerara, yoaten tzen, ure etaik. Gero? ore, ur ore berotu ëten, beis, ure? tä lixue-ei... bota, t'ola itten tzen, orduen, lixue, esaten giñuena.

– *Non guardatzen ziren konportak? handiak ziren?*

Oiek? beh! tamañua?... izeten tzen... ttikia.

– *Horrelakoxeak?*

Baa, badi-, aundiaguak baziren ta ttikiagokuak ere bai; eee... goi-, goitti, zabaltxa(g)o, beitti, beitti miartxago, izeten tziren. Ta ändik, pues, txorrota erraten giñiola, andik ure e... be, azpien pozal bat... utzi edo bañera bat eta, ore, bete artio? pues, bete edo erdie zelek? beis, emendik artu? te beis berotu? te, tira beis.

– *Baina konportak ez zuen zulorik, ez?*

Konportak? pai, bai... izeten tzuen kañu bet bezela! kañu bet eta andik, konportatik, andik? bañerara ioaten tzen. (Carmen, berriemailearen erraina:) Ahí hay una, en la huerta...

– *'Bañera' erraten zaio palanganari, ez?*

Ez, bañera ez, bañera... ori biño aundiago zen, izeten tzen? pues no sé... pues igual, ogei litro edo geigo.

– *Baina ez da bainera gorputza bainatzekoa...*

Ez-ez-ez, bañera... palangana bat bezela o ola balitze biño, biño aundie, e? biño.

– *Eta hori noiz arte egin da? duela zenbat urte kendu zen kostunbre hori?*

Ori? izein ttu... beh! oitabortz urte o ola; orai duela? ez! geigo izäin ttu, ogeitamar izein ttu.

38. Animalien eritasunak (1985)

– *Ardien gaitzak zein izaten dira? xomorroak izaten dituzte, ezta?*

Bai, izeten ttute, baña ni, psss, gutti ibil naiz, ardikin.

– *Eta behiek izaten dute?*

Beie pai, zulderrak erraten di(o)un...-e, bultu atzuk? izatettu ta, gusano bat izetute, ta ore ateaetzkeroko? ya pues, bultua... desapareitzen da.

– *Bulkua?*

Bulto (b)at, bultottuat, bultotto at erere... bueno, pikor bat balitze bezela beño, ta... an izeteut-, dute ta... zuldarra, ta an, barnen eoten da, ta ore... ya, aundi xamar itten denean, bera... ateatzen da.

– *Eta hor egiten dute etxea, hor bizi dira...*

Bai, or, eztaik, or ez, or... ori, eztaikit nondik... tortzen den.

– *Eta nolako handia da zuldarra?*

Pues zuldarra? pues-pues iten dira... badire, ze? psss... pues... izeten dire kasi... olaxeko bultoa badutena.

– *Harrak bezalakoak dira?*

Bai-bai-bai, bai-bai.

– *Eta zein lekutan egiten dira gehien bat? belarrien ondoan edo buztanaren azpian edo?*

Ez, ez-ez-ez, ori... tripe gañean, gañean; kostillan... kostille ta... bizkerran... or, izeten dëre.

– *Eta sortu, nola sortzen dira?*

Ya! ori eztaitt (...); ni eztaikitt⁷⁶, seguru aski... uliek e... piketu te... nik uste, or, ortik.

– *Nik aditu dut ardiek izaten dituztela kaparrak eta batzuetan, kaparrak kendu eta, 'hollín' ematen zaiela zaurietan...*

Bai, biño... por ejemplo, bi mille o... bi mille edo... eztaik erraten; bueno, bi mille ta piko, men dute, biño... berraun ardi baldin baittuzu, nondik? ze denbora biauazu, denei, beiretzeko zen(b)at ta, zen-nek duen...-a kaparra ta tzeñek eztuena? ta kaparra, gañera, pues izeten da primaberan, ya denbor ontan, ezta anbertze... ezta izeten.

Kaparrak, nik e... neri're peatu... zaizkide, gazte-denboran; igual, pues, baakizu? ig(u)al, bordaldian ta ee, denbora artan, egun guzien igual ee, an aitzen giñen... igual, yorran ta ala ta, beño, primaberan da... oso peligrrosoa, obrenean siesta ta guzie an, bazkaldu tä ernittin alumi? (?) ta, te orduen peatzen tzire.

⁷⁶Izenordea k-z gabeturik agertzeaz gainera, eztagitt aditzen delakoan gaude; hau izan daiteke inoizko bokalarteko k baten desagerpenerako bidea.

– *Bai, animalien artean ibilita...*

Bai, animeletan biño, oyek... e... animaliai ere pegatzen zaiote, biño... kanpöan! kanpoan, izaten dira, primaberan?... izeten da... oso peligrrosoa izaten da.

– *Eta pertsoneri non pegatzen zaizkie? buruan?*

Bien! pues, pues igual... buruen nola lepöan nola... maiz, maiz.

– *Eta sartzen dira aski barnera?*

Ez, eeeh! sartu, peatzen die pixke-pixke-pixke eta ala!

– *Sentitzen da...*

Bai...-etz! eta... piketzu? eztute... auniz piketzen biño, denboraki, pixke-pixke-pixket pues, pikor bat atra zaizute ta... txupetzen, txupetzen, aundi itten dëre.

– *Zer dira, zorriak baino handiagoak, ez?*

Aundiaguak eta, badire!... bai, biño... eztire, zorria e da luzia(g)oköa, biño oyek? in dire... redondo samarrak, biño, izein ttute igual, e... berroitamar edo geigo atzapar, ta... peatzen dire, ya-ya.

39. Abereak ferratzen (1985)

Gero... denbora artan? itxe guzietan... idiaki eta izeiten baizien, ferraturik?⁷⁷ itten zittuten...

– *Hara, horretara ailegatu nahi nuen.*

Ta, gero... itxe guzietan... mandoa edo beorra edo izeiten tzen? ta oyek ere ferratza-ten ztittute emen. Nik Iruñera aurrenean da ore? etzen autobus orduen, igual... yoan biar tzen? ta... bidian igual... galtzatze zuten ferra bat? eta, aral bueltan... ferratu? te... biorra eta ola? artu, eamaten giñunak? eta, batek... lenik, beso at ferratu? ta... an, an... ferra... paatu? obenian, ya, gastatuik ezpazeon? galdu ziñuena? eaman, ezperen, pues... berrie patu? te... iltze batzëk, zeraki sartu? beso at e, ferratzen...

– *Iltze batekin?*

Ez! zortzi iltze bakotxak, ferra bat... bakotxak bear zittuen; zortzi iltze guttienas. Gero? ori... besoa...

ferratzen ziñuelik? bertzia, bertze. Gero? anka at, ero bertzean? lauek, ferratu te... ba an? obrenian Iruñera yoan bear? ta... an, pixkuat, arreglatui te... ezin? dena... loyez betetzen tziñen? ta dena... bakizu, Iruñen, arara yoan biar tziñuelik e... suertetzen bazen... ferra galtzera? baakizu, beti... dena... zikiñe, yoan biar ziñuen Iruñera. Onata eldu ziñeleik, ya itxera eldu ziñelik⁷⁸, ya etzen anbeste inporta biño, ara yoan bear tzelik? pues igual.

Ta idiek, beis? potrua, izeten tzen, ferral...-tzeko, pues idiek? pues an... tranka batzuki? bueltaka ta bueltaka ta bueltaka... eaman? ta, e... besoak eta, an, denak lotu? ta, ayëk? an, ez tziñuen... ukitiar⁷⁹ ere, ya, bere artean, ferratzaleak, berak itten zittuen biño, biorra baziñuen edo... zaldi edo... do mandoa o oyek? zeoye, zeorrek artu? te... irikiar tziñuen... ferrazaliak ferratzeko.

– *Orduan, aiseago ferratzen zen behia mandoa baino...*

Ba(i)! klaro!

– *Mandoa sujetatu behar zen...*

Sujetuik? e... anka betik artute!... ikasi nuen.

– *Min egiten zitzaien?*

Beh!



Uhalik gabeko ferratoki zaharra, Saratsan - KA2012

⁷⁷ ferraturij aditzen delakoan gaude.

⁷⁸ ziñeni aditzen delakoan gaude.

⁷⁹ 'ukitu behar' da hori, geroxeagoko irikiar bat 'ireki behar' den bezala.

– *Hori gogorra dute, ezta?*

Bai, ori bai, ori, azkazala, klaro!

– *Ez dute min handirik nabaritzen...*

Ez, mini(k) etzuten bate, arek; por ejemplo pues, ferratu te... denbora ona eiten badu? pues-pues, obrenean, bi zentimetro geigo, kendiar tzioten... azazkala, berri-, berriz ferra paratzeko.

– *Zerekin?*

Ah, pues llana bat izeten tzen, ola...

– *'Llana'? erramienta bat?*

Llana... erramienta bat, bai, llana esaten zioten; bai, orai ere badire. Emen, lengo aldien emen, beiei azazkalak pixkuat mozteko, ori, e... Auzeko... ori? ekar tzun.

– *Haiendako ferrak dira guretako zapatak bezala, ezta?*

Klaro! klaro, klaro...

OTSAKAR (Txulapain)

Berriemailea:

Fermina Goldaraz Zubieta, 1902

Gurasoak nongo:

Aita: Otsakar / Ama: Atallu (Araitz)

40. Beorburuko San Bartolome (1988)

– *Hor bada ermita bat, San Bartolome?*

Bai, sí señor, sí.

(Alaba, ultzamarra:) San Bartolome, bai.

– *Egiten zen erromeria?*

Lenago bai, aurai eztaki(t).

– *Zu gaztetxo, neska gaztea zinelarik egiten zen?*

Bai, bai.

– *la kontatzen duzun zer egiten zen egun hartan; ongi, e? goiz-goizetik nola prestatu eta nola joan eta... akordeona zen edo meza edo zer, aber, ongi...*

Bai, orduen prestatu goizian? Xan Ixidro egune, et prestatu ta yoaten da apezaki, eta apeza... it(t)en du meza, ta gero, itxekuan drea ematen du gosarie, ta gero an denak yarri? eta... gosaldu. Ta gero, maten da...

(Alaba:) ¿Y qué, qué llevabas? setas ¿no?

Sí, mäten da... gero? berriz, berriz, atsaldëan? orduen? otrabez, yoan... elizera? ta itten da errosariue; eta or, berriz, t'ordun? apezakin? en procesión? todos a casa.

– *Eta izaten zen akordeona edo musika edo?*

Pues sí había, sí había, sí, había.

– *Eta nondik joaten ziren musikariak edo?*

Bueno, de alguno del pueblo allí, que haría algún ruido.

– *Eta non, non sonatzen zuten musika?*

An... an, an berean, an berean.

(Alaba:) Atarien, ermiteko atarien...

Ermiteko atarien, an berean.

– *Eta zer musika izaten zen?*

Beh! kordion bat.

– *Baina suelto edo?*

Ah! bai-bai-bai-bai, bai; oooi!... sueltoa! nere alabak? nee alabak... eztait, eztu... danzatu, al agarraõ? hasta muy tarde que consintió el padre.

– *Hori alabak, e?*

(Alaba:) Sí; había un cura que nos decía: "Infernuko sekretarioa!... jaquí en nuestros tiempos!"... o sea que, fíjate, pal acordeón... Infernuko sekretarioa mos!⁸⁰ ¡qué desastre!...

– *Eta orduan zer izaten zen, akordeona edo txistu?*

⁸⁰ *Infernuko sekretarioa decíamos, antza.*

Kordiona.

– *Eta jende aunitz joaten zen?*

Bai.

– *Zenbat herritakoak?*

Pues, bi o iru...

– *Herritakoak?*

Bai.

– *Otsakarkoak eta Beorburukoak?*

Bai, ta... Osinaga, Aristregi, Nuin... Muskiz...

– *Bai? Muskizekoak ere bai, e?*

Bai-bai-bai-bai, Muskiz.

– *Gazte aunitz eta biltzen zineten han, e?*

Bai-bai-bai, ta... ta denak ongi unittu? ta ongi... ibilki; denak ongi, ta gustora.

– *Eta izaten ziren mayordomoak eta horrela?*

Bai, mayordomo ta mayordoma.

(Alaba:) Ta piperropillek, ama...

– *Eta nork izendatzen zituen mayordomoak? ¿quién los nombraba?*

La juventud, me parece, o eztakit.

– *Txandaka egiten zen?*

Txandaka.

– *Urte batez herri batekoak...*

Eeeeei! ta beste, urren? beste errie, ta ola.

– *Eta eramaten ziren gurutzeak?*

Bai, gurutzëak bai.

– *Bai, e?*

Bai-bai-bai-bai-bai.

– *Nork eramaten zuen gurutzea?*

Alkatëa(k)... alkatiak.

– *Nongo gurutzea? Otsakarkoa bakarrik?*

Ez-ez-ez-ez... beste lekue; zer...

– *Herri bakoitzak...*

Eso, erri bakotxa(k).

– *Herri bakoitzak berea...*

Beriä, bai; erri bakotxak berea.

– *Festa polita, e?*

Bai-bai-bai, festa polite.

(Alaba:) Allí se conserva eso, allí, el día ocho de mayo, en Alkoz, a la Virgen de Belate, y van todos los pueblos, con... el alcalde lleva la cruz...

– *Bai, bai, badakit, Autzako andre batek kontatu zidan ongi, mayordomoak eta herri bakoitzak bere gurutzearekin eta hori, gutiz goitibeiti hori bera, bai. Eta aspaldi kendu zen ohitura hura?*

¿Qué... que han de llevar con cruz?

– *Erronomia hori noiztik ez da egiten?*

Eztaki(t) nik, itten dute orai? o ez, eztakit, eztakit.

– *Ez? ez duzu uste, e?*

Eztakit; no creo, e? que se haga, no creo.

– *Alabak erraten du saltzen zituztela piperropilek eta...*

Ah, bai, itten da, d'an... emakume bat, da itten da... 'el vispera' cómo es?

– *Bezpera.*

Bezpera! bezpera(n)? itten da, piporropillek, ta... mayordomoa ta... mayordoma? la mayordoma? maten du? de-netan, piperropille. Ya... kanpokoak ere barin batzen da? también man pan, piperropile... sí.

– *Eta bestelako tendereteak edo ez ziren paratzen? San Urbanon bezala eta, ez?*

Ez-ez-ez-ez-ez.

– *Hori bakarrik...*

Ori bakarrik, ori bakarrik.

– *Piperropillek, e?*

Bai; ta gero, dan(t)zatu?... te itxera.

– *Zuk ikasi zenuen dantzatzen?*

Bai.

– Ongi eginen zenuen arin-arin, garbo handiarekin; orain baino hobeki bai, e?

Aiii!... bai, baia ahora, ahora, ahora...

– Orain ikusi bakarrik, e?

Orai... orai itten da gauze oso... gaizki.

– Bai, oraingo dantzak itsusiak dira, e?

Oh! guzia ase? ta gero? asaldean?... arraséan? atra, ta, itxeti. Ta, amabi, amabi o... orduen etxera, o a las... bospasei? goizian? itxera. Ori, zer modu da? y consentir... aittetama? yo no consentiaba, no. ¿Eso? ser malas es ser mejores, pa los quince años van a la plaza? a los veinticuatro lo⁸¹ perdimos... ¡claro!...

– Modak horrela etorri dira, e? baina ez da gauza ona, ez; eguna gaua eta gaua egun, ezta?

Bai-bai-bai-bai-bai-bai... oso gogorra da. Ta aittetamak? ez, ez erran ja ere, eztitteke erran... te berak? arrazoña, ta gero? aittetamak...

(Alaba:) Dena badakite, ama, dena badakite...

USI (Txulapain)

Berriemailea:

Urbana Aginaga Azkarate, 1890

Gurasoak nongo:

Aita: Usi / Ama: Itxaso (Basaburua)

41. Ehungintzaz (1980)


Piri-piri-piri? y en otro palo hace el hilo, erroka, no gasta palo. Palo? ¡claro! en un palo se pone la estopa, para hilar... mullua; ta gero, pirri-pirri-pirri... ari itten da arreki, errokatu; areki itten da arie mainderiak iteko. Gero, euntzeletan? an? ttin-tan, ttin-tan, tin-tan? así.

– Ehuntzeletan?

Ni aitu naiz kanillek it(t)en... Je! gure errien bazen eguntzelia, eguntzelia erraten tzaikio orri; paatzaute katxarro batian ta, an tratatzen. Bi... bi kanille patzen dute, arieki, ta itaute: tan! tan! tan!... ortik ona, tan! tan! tan!... “una pa vino y otra pa pan” erraten diote bestéak. Je! nik kus tut trabian, zeatik eguntzelia bazen Utsin, oye tire eguntzeliak, an... mainderiak paatzeko, mainderiak, zuttibik⁸² itt-itzen zutenak, ariak errokatu, pirri-pirri-pirri... zuk eztuzu kusi?

– Ez.

Eje-je!... ni aitu naiz errokatzetan... an tzen pero, bana ikexi nuen, biño gero kendu zuten modernizati-, lan aundie zuen, gëren gizonak in biar zuten... ore erekitzen tzen garie bezala, alorréan, yayotzen tzen; gero?



Bordatu fineko ehun ikusgarria, San Telmon - FL761028

⁸¹ no perdimos aditzen uste dugu.

⁸² 'zutirik' dirudi horrek.

atra biar tzuen, denak alde batera paratiaztuten⁸³; gero? zanpatu, kendu azie; gero? soroan iduki barratui tennak alde batera; gero, andik karri? te labian sartu, labia berotute... ta an bero-beroa zegolai? atra, ta gero garbak erraten tzioten... zureskoak, ola eskutokieki, an sartue? ta, tan! tan! tan!... tran! tran! tran!... kentzen tzioten zaborr ore dena! ta gelditzen tzen garbi-garbie, ta gero lixuen egosi? autseki tte gio egosi lixuen? t'ek e, paatzen tzen zuri, maineriak iteko, biño lana aundie zuen! ta utzi zuten ure.

Orai eztakit nol iten tuten, emen eztitute in, tierra oketan ezta, beño lenao? erri guzietan baze. Biño etzen posible segitzea, e? lan aundie tzuen; oraingo neskatxek aitu... lan artan, atzoko otrabez?... je! lan aundi zuen andik andia're. Ni kanillek iten aitu naiz, euntzelia baze errian, euntzelia erraten tzioten ari, ta... yostaketan an, aurrek eta, ya an ta, kanillek eta sartu... burnitto at eukitzen tzuena, an sartu ta tt-reeee... t'andi, olaxe tubo atzuk, ta... aiek, euntzeliak itten zittü, orti pota! andik onata; ta, tran! tran! tran!

Ta "Ze in tzu?" ta, bestiak, etzakitenak, kusten tzuten. "Mira" –Bartolo zaikion, euntzeliari– ta "Mira, ya está ése: una pa vino, otra pa pan, una pa vino y otra pa pan", erraten tzioten... irris!... euntzeliari; je-je! orai ezta alakoi itten, orai? (...) non itten ttuten, beste giseko makinek, orai etzen posible segitzëa, lan aundie zuen! aundie... lan ona zuen arrek! hola!

42. Haur-kanta batzuk (1980)

1) Bonbolonian

Bonbolonian bonbolon zaide
Otsua ttan du⁸⁴ gure artzaie
Otsokumiak axuri zaide
Adios gure artzaie
Otsokumiak axuri zäide
Adios gure artzaie.

3) Bolon bat eta bolon bi

Bolon bat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Bolon pat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri

2) Bat, bide, iru, lau

Bat, bide, iru, lau
Arakiñek amalau
Auntzek ala erbi
Eldu naizela ni
Lau, lau, lau
Ardoa kaldu nau
Bien, bien, bien
En Pamplona también.

4) Talo-txin, talo-txin

Talo-txin, talo-txin
Ator itxera Matxin
Talo-txin, talo-txin
Opill aundi betekin.

MAKIRRIAIN (Ezkabarte)

Berriemailea:

Manuela Nuin Senosiain, 1899

Gurasoak nongo:

aita: Eguarats (Atetz) / ama: Beasoain (Ollaran)⁸⁵

43. Hondar-euskara (1982)

Mira, hay veces que... sí, me acuerdo de, de que solía cantar mi padre.

⁸³ 'paratu behar zituzten' da hori, gure ustez.

⁸⁴ *otsuak yan du*, alegia; sandhi nabarmena, inoiz beste lanen batean ere aipatu duguna.

⁸⁵ Berriemailea, urtetan, Makirriainen eta Saratsan bizi izan ondoren, Beasoaina joan zen. Herri honetan ikusi genuen guk.

1) Trusiekok errege
Ure da gizona
Arretzek egin baitu
Franzien azaña.

2) Guantesestos koria(k)
Adintsua tire
Pilota(k) gur-ne eskua
Biarko baitire.

3) Pisatute ere bada
Sei arroba y'ori
Saka zazu zer, ze suelto
Ze este (l)agunari.

4) Guantesestos koria(k)
Adintsua tire
Pilota(k) göne eskua
Biarko baitire.

¿Ves? esto será así, canciones, sí.

– *Ikusten zer ongi?*

Canciones, canciones... una muestra ya aprendí yo a mi... a mi padre, eso. Sí, está usted grabando...

– *A ver, hala, berriz, berriz, berriz...*

Eso ¿el qué?

– *Berriro; kanta ezazu berriz, bai, gauza bera, bai.*

¿Cómo hay empezaö? sí, sí, mira, se me va al cielo.

1) Trusiekok erregë
Ure da gizona
Arretzek egin baitu
Franzien azaña.

2) Guantesestos koria(k)
Aditsua tire
Pilota(k) gun eskua
Biarko baitire

3) Pisatute ere bada
Sei arroba y'ori
Saka zazu ze suelto
Ze estze lagunari.

Donostiako hiru damatxo

Iru damatxo
Errenterian dendarri
Josten ere badaki
Beña ardua edaiten obeki

Y eso es, y solía hacer⁸⁶, que decía; ya sabe que lo decía mejor que yo...

– *Eta kriskitin kraskitin?*

Eso no, eso no...

– *Arrosa krabelin?*

¿Eso? sí, sí.

– *Ardoa edaten hobeki.*

Obeki, eso, bie, bie alkara.

Y lo qué le iba a dar: iru koltxon nibiznabar, también... iru koltxon nibiznabar... ta koltxak... y la colcha... ¿cómo es? no me, no me ac-, no me acuerdo, no me sale ahora, no; hay veces que sí, a la mi-, a la imaginación. Era, e? alaba Marie, eso, que se iba a casar la... una hija, e? con un... con uno de San Sebastián, y lo que le iba dar eso, es e... lo que le iba a dar de dote: iru koltxon, nibiznabar, de colores e... los colchones, (...) y... kutxea? berrie? kutxe, creo que será... cómoda, e? no sé; e? e? verdad?

– *Sí, la cómoda, bai, el arca. Kutxa berria, eta zer gehiago?*

E? pues, que se iba a casar, la hija María, con... no sé, con un vecino; eso, eso es lo que quiere decir. ¿Yo? ya sé qué es (...), [nibiz]nabar, ta kutxe...-a, kutxea? berrie, ezkondu... ezkondu... lere? alaba Marie, que se iba a casar la... la hija María, éso es, sí, pero no se contiene nada, no (...).

⁸⁶ azar aditzen uste dugu.

'Bonbolonian' haur-kantaren zatitxo

... ortzaie, atsukonia atxuri zaie... ah, cantar a los hijos y a... ¿eso?

– *Siga, siga, siga...*

Sí, pero no sé seguir, si no... pero no sé más...

– *Atsukonia?*

Sí.

– *Azuri zaide?*

Atxuri zaide, eso,

– *(Txulapaingo Usin aditurikoa gogoan:) Otsokumia azuri zaide, adios gure artzaie. Y me cantaba: Bonbolonian, bonbolon zaide... Espere, espere... Otsokak jan du gure artzaie / otsokumiak axuri zaide / adios gure artzaie. Me parece que cantaba así.*

Sí, sí-sí-sí, ya sabría, sí, ya sabría, ya; yo, yo no... había aprendido, no había aprendido, no había aprendido. No sé qué...

Ardoa edaten

– *Y también cantaba: Ardoa edanda mozkortzen naiz...*

Ah... eso, eso...

– *Hori badakizu?*

Ardua edaiten mozkortzen naiz

Andrea artu e lotsatzen naiz

Pipen artute, e? losatzen naiz

Nola demontre biziko naiz.

Eso, eso, eso... así es, sí.

– *(Lagundu nahiz:) Pipa hartuta txoratzen naiz...*

Eso, txoratzen naiz, sí, eso, eso.

– *Kortejatzean lotsatzen naiz, nola (biok batera:) demontre biziko naiz. ¿Ve cómo sabe?*

Y a San Miguel, también en vasco, en vasco cantábamos eso...

– *A ver, a ver, a ver... a ver a San Miguel...*

No, no, no; sí pero... pero, pero, pero, no está, no está, no está, no está... no está la memoria... San Miguel, en, cuando viene... aquí, a Sarasa mismo, e? entonces pues le cantábamos en vasco muchas canciones, y tenía papeles y todo de-de eso, de-de, de cantar, pero...

San Miguel Arcángel gran batallador,
hunde en el abismo al infernal dragón.
San Miguel Arcángel...

– *Migel, Migel, Migel gurea? gorde, gorde, Euskal Herria?*

Sí, eso, sí; gorde, gorde Euskal Erria; que viva...

Arriba euskalduna, de brío sin par,
que allí nos espera Miguel de Aralar.

ANOTZ (Ezkabarte)

Berriemailea:

Celedonia Zenoz Artze, 1908

Gurasoak nongo:

Aita: Anotz / Ama: Erripa (Odieta)

44. Eultzia (1982)

– Inguru honetako herri txiki horietan egiten zen eultzia erraten dena, ezta?

Nola?

– Eultzia.

Eul(t)zia?

– Bai, 'la parva'; nola erraten da euskaraz?

Ultzie... ultzie, ultzie.

– Horixe da, bai; hori ere kontatuko duzu, e?

Eje! ori kontatui tao!

– Kontaturik dago?

Klaro! emen ez, beño ultzie? pues e... karri.

– Baina hasieratik, e? garia nola bildu eta ekartzen zen larrainera eta (...).

Pues, ori... pues ultzie...

– la nola egiten zen eultzi guztia, e? prozesu guztia (...)

Pues lenao? pues... iten tzen... igitetu! orduen etzen orai bezala... makineik, igitatu, baki, igitarieki.

– Garia, edo...?

Garie; eta oloa!... ere bai; igitetu, te gero utzi... aurmenetan. Gero... lotu; lotu? paxuetan, eta gero karri idiekin, karröaki. Lennago-lenago, kartzen tzuten abrian, abrian, pues... zamukeki; zamukek, paratu abriai, eta... bos paxu, kartzen tzuten... biejeran (zuzenduz:) biejjän! bost paxu. Gero, karri pues, iru edo lau... o bortz o... aldiz, eta gero ultzie barratu.

– Barratu...

Barratu; barratu te gero... beiekin eta abriakin, ultzitu, ultzitu. Gero, xetzen tzenëan? atsaldëan? pues... abriak eta ya... bei...

– Zaude, zaude pixka batean; eultzitzeko, abereek eta idiek tiratzen zuten aparailu batetik, ezta?

Estrazie... estrazie. Gero, xetzen tzenian? pues atra abriak eta... idiek, eta gero... gañe, kentzen tzaikion aotzai. Agotza gañetik, in monton batzuk, eta... eman itxea; ta gero...

– Eta nola kentzen da?

Pues zariaki, kentzen da gañetik ola, zariaki, gañetik, eta montondu. Eta monton aiek, mainderian artu, eta ematen tzuten gizonak, itxera. Ta gero, bildue, bildu... ultzie, bildu, abriaki? pala bat... paratu kuerda batzuki, abriai, eta... kollaron bateki andik, kuerdak, pal artara, ta gero eman, ultzie bildu, agotza, ta gero... gero gie⁸⁷.

– Gero?

Gie... gie? le decian al grano. Gie? pues, eskuaki... garbitu, larrain guzien, eta, bildu, erre. Zarrian burueki, ematen tzen ure monton batera, eta gero, aizetu! aizetu balin bezen aizia! ezpazen aizia? pues bezte egun beteko uzten tze, biño aizia balin bezen, aizätu. Ta aizetzen tzenëan? aotza alde batera, ta pikorra bertzera? pues gero sartu itxea; pikorra? lenik, ta gero? agotza.

– Ahoztegian...

Aöztagien!

– Zertarako gordetzen zen ahoztegian? abereei emateko?

(Hortzez ezezka)

– Ahotza zertarako gordetzen zen ahoztegian?

Aoztegie ematen tzen agotza!

– Zertarako?

Zertarako? pues beiei mateko ta... abreai mateko, eta... guaztetako ere bai, guaztetako. Gure errien aunditz etzen, etzen biltzen, beño... kartzen giñuen neguen, pues... denbora ona balimezen, oyanetik, ostöa.

– Hoja, ez?

Ostoa.... guaztetako; espera, quería decir...

– Orbela edo?

Orbela! orbela, kartzen tzen? ta... itxan? ez balimezen lekuä? pues, mönton bat iten tzen, ta gero? agotza, ez gas-tatzeko, botatzeko... anketara? pues botatzen tzen ostöa, ta, ola guardatzen tzen agotza geiago, ezberen? pues, iten bazuen neguä... luzëa? etzen aski aotza.



Tximistarrizko estrazia - MERN / KA2012

⁸⁷ 'bihia' bide da hori, hasierako *b* hizkia *g* batek ordezkaturik, ezagunak diren *ogj* / *obi* edota *ogei* / *obei* kasuetan zertzen den txandaketa hitzaren barruan suertatzen bada ere, eta ez hasieran. Ziordiko testu batean, haatik, *gosbarrengua* dugu, behin bederen.

- *Lehenago ez dizut galdetu, eultzia egin aurretik larraina garbitzen ote zuten, larraina...*
Larrañe.
– *Bai; garbitzen zen?*
Bai, itxe ontan.
– *Nola?*
Altzurreki kendu... belarra; altzur beteki, te gero eskuaki⁸⁸... garbitu.
– *Eskuaki?*
Eskuaki garbitu, eta gelditzen tzen, ta gero... muñikātu.
– *Muñiketū?*
Bai, ureki, te idien... idiek iten duten...
– *Kaka edo...?*
Bai; ta arrekī?
– *'Korotza' edo, erraten da? 'gorotza' edo, ez?*
No, no; bota, larrañean t'esku ateki... pastu, igualdu, te gelditzen tzen... ori... garbi-garbie, eta luzituik, garbitzeko eskuaki gero pikorra.
– *Nik aditua nuen, bai, leku batzuetan egiten zutela horrelako zerbait.*
Bai.
– *Eta gero ez zen gelditzen urrin (usai) edo zera txarrik? ez; haizearekin eta berehala (joango zen)...*
Aiziareki ta ere, gauesko... serenuaki te...

45. Mandemea erosi Tafallan (1984)

- Nere aitek erosi zuen... mule bat, Tafallan; de otra forma no se dice: Tafalla.
– *Noiz? duela zenbat urte?*
¡Jesus!...
– *Berrogei urte edo?*
¡Más!... yo llevo aquí, cuarenta y pico de años, aquí⁸⁹, y era... cuando vivía en el pueblo...
– *Orduan zuk izanzen zenituen hamabost urte edo?*
O beai, ni enaiz oroitzen, ni enaiz oroitzen.
– *Eta orduan nola erosi zuen...?*
Erosi zuen aitek eta...
– *Hara joanez edo...?*
Arara yoan tzen, arara yoan tzen t'an erosi zuen. Guri... iten tzigun falta!... nere errien, abrei kabe, eztaike... orduen etzaiken egon; orai(k) bada, bada karretera, bero⁹⁰... orduen etzen karreteraik, eta karri zuen mand ure? (zuzen-duz:) ba, mul ure? ta, klaro! ensegida... esportizoaki, ongarrí atratzera, eta, maten tzuen alorrera ta... pero ¿cómo le voy a decir yo ahora eso?... ungerrie atratzera? t'egurketara. Ta egurketara yoatzen tzenian? asten tzen nere aite, egurrek paratzen, bastaki et'e-... ematen tzuten abra, eta... egurrek paratzen itxera emateko? eta... atra zen... mul ure gaixtõa!... uztorr ostikoka asten tzen? ta, egurrek eta denak botatzen tzition. Eta... denbora gutiz i-... iduki giñuen.
– *Zerengatik?*
Zerengatik? pues gaixtõa baitzen? pue(s), beldurre kiñauden? aitei? oro... o neri? o... amai? edo, obrenëan ostiko at man ta... utziko... utziko zigule... illik!... ¡que no puedo hablar!...
– *Bai, bai, oso ongi; kosta egiten zaizu pixka bat baina oso ongi...*
Gero saldu giñuen, ya. Gero? después? después...
– *Ondoren...*
Ondorean, ondorean? erosi zuen aitek... biorra; bior bat? eta, biorr ure... biorr ore atra zen ona, ta, arre...-ki, ize-, izendu zuen... mando ore, gero. Eta gero, mando arrekín? domatu zuen nere aitek eta, arrekí serbitzen giñen. Gero? pue(s)... domatu zuten eta ibiltzen tzen ongi, beño... etxe batian il tzaikioten bei bet, eta bei ure saltzera emateko, eman tzuten gure mandoa. Da gure mandõa, in tzion bastak miñe, bizkarrezurrian, eta andik, sartu zaikion kangrena, ta il tzen.
– *Gangrenari nola erraten zaio?*
Kangrena, igual.

⁸⁸ 'esko(b)arekin', alegia.

⁸⁹ Iruñeko Txantrea auzoan, zehazki.

⁹⁰ Gazt. 'pero' dirudi horrek.

– Beste izenik ez? haratustela edo...?
 Nik, nik ez, eztut aitu; kangrena.
 – Eta zergatik joan zen zure aita Tafallaraino, lehengo mula hura eroatera?
 Feriera! feriera!...
 – Baina Tafalla baino hurbilago ere izanen zen feriarik, ez?
 Orduen... etzen ferieik, denbora artan etzen ferieik Tafallan bertzeik.
 – Irurtzunen ere ez? Urrotzen ere ez?
 Abriak saltzeko... zen, orduen, Tafalla, ta yoan tzen Tafallara.
 – Eta nolaz joan zen Tafallaraino, trenez edo? ez dakizu, eta nola ekarri zuen ere, ez duzu jakin...
 Karri? pues...
 – Oinez?
 Oñez! claro! karri oñez; egun bet, bi egun o... nik eztakit zenbat e kosta zaikion, pero karri, oñez; eeh! orduen etzen orai bezala, kamionik eta... emateko ta, kartzeko.
 – Eta nongoa izanen zen mula hura?
 Ah! eztakit, nik eztakit nongoa zen.
 – Orduan aitari irudituko zitzaion ona zela...
 Ona zela! klaro! ya... an ere erran tzioten ona zela, te... gustetu zaikion? ta zen gaztia, beño, ola. Zer os-, zor osti-koak botatzen tzituen!... buuuu!!
 – Eta ez dakizu, hemendik, Anoztik Tafallara joateko edo Tafallatik hona itzultzeko, zein herritatik joan zen aita? ez?
 Eztaki(t) nik, klaro!
 – Joan eta ekarri eta egin zuela, hori bai baina besterik ez...
 Klaro, bezteik ez, bezteik ez.
 – Eta zergatik erraten duzu ‘mule’ eta ez ‘mandoa’? hembra zelako?
 Klaro, la mula siempre es hembra, y el macho es macho...
 – Orduan, euskaraz, erraten duzue...
 Mule! ta mandoa? bestzeai; ta biorra... ta zaldie... klaro, astoa.

OLAITZ (Olaibar)

Bai, gero, gero, gero paratu da; ta, emen, guk izen orduko? pues atratzen ori, ona... tratametu oi; orrekin sendatzen dire ixtente.
– *Eta aho-min hori, hori ere patera da?*
Ori bai, patera... bai, bai.
– *Eta horretarako, ahorako, zer ematen zaie?*
Pues ja ere, orrendako ja ere. Ori, berek buelta in artio? ori, fiebrea moztartio? etzaote... etzaote joaten ori, ez.
– *Orduan erran dituzu jada enfermedaderik gehienak, ezta?*
Bai, bai.
– *Gero, badira ere, paratzen dire modorro edo...*
Ba, bait'ere.
– *Eroturik edo, ez? bueltaka hasten direla eta...*
Eröa, erotui pezala.
– *Eta hori txarra da, ezta? gaixtoa...*
Bai, bai, ori gaixtoa; ori... ola asten delaik¹²⁵ igual da iltzia, bai. Orrekin asten dire... ingureka? adios!
– *Ezin daitezke operatu?*
Bai.
– *Aditu nion nik Lantzeko gizon bati...*
Bai-bai-bai, iten dire, bai, operatu baña... sendatzen dire gutxi, bakarron bat akaso... bai; segun tze... izetaunten ere, batzuk izetaunte ure, muñetan, ta... bertze atzuk, berriz, iten tzaizkiote arrak, ta arrak tuten oek, oei, pues igual batian izendu, eta ura atras geros, akaso salbatzen da baña, ure formatus geros oriek eztire salbatzen, ez-ez.
– *Zuk ikusi duzu, hola, operatzen edo?*
Ez, ez.
– *Aditu duzu...*
Aitu bai, beño ikusi beñ ere; bah! emen eztugu izeten, bah, bakarron bat o bertze, akaso... izen da baña, beñ ere gutti... izen dugu ola.
– *Eta gero ateratzen zaizkie kaparrak edo, ez?*
Bai t'ere, bai t'ere, kaparrak; oek artzen tzute, orai ez beño... larrazkenëan? orduen artzen tuzte, ta... ola, soinburuetan ta lepoan ta...
– *Ikusten dira?*
Bai, bai.
– *Bai? agerian egoten dira, e?*
Bai-bai, bai.
– *Baina kentzen zaizkie, ezta?*
Oei? pues, botatzen dute or, erreuts betzu pezala? ardiei, ta orduen garbitzen dire denak.
– *Aditu dut baita ere, zenbait aldiz, ile-moxgoa egitean ateratzen direla, izaten direla artile eta haragiaren artean, hor, loturik edo...*
Ah, kaparrak?

¹²⁵ denaik aditzen uste dugu hor.

– *Bai.*

Bai-bai, beña, emen, ikusi tut pai, nik goetaik ere, baña... emen eztuu beñ ere ezautu ola... moztian ez; zenbait salduetan bai, gaizki kuidetuik-eta dauden oetan akaso, izeten dire baña, emen... emen larrazkenean bai, larrazkenëan, or, lotzen tzaizkiote, emen... pinu aunitz eta baite sasi aunditz, oetan azten dire ta, lotzen tzaizkiote gero, beño... orai eztute, ez, orai eztute bat (e)re izen.

AGORRETA (Esteribar)

Berriemailea:

Joaquina Navarro Galduroz, 1894

Gurasoak nongo:

Aita: Agorreta / Ama: Agorreta

62. San Juan bezperako sua eta Zubiriko iturria (1986)

– *San Juan egunez zer egiten zen zu gazte zinelarik?*

Oi-oi ama! buenas hogueras.

– *Baina, erran behar duzu guzia euskaraz, e?*

Uskera, bai; sue, suek, suek aunitz! aunitz, t'an brinket, brinkätu, an; ze ori? San Juan bezperan.

– *Bai, baina konta nola egiten zen, nork egiten zuen, non...*

Oi-oi-oi-oi!... errien, errien, errien erd-, erdie den errien? ta an, an denak bildu? te denak, bai, bai-bai, denak, beti, urte guzian, San Juan egunian; ta San Juan bezperan? emen¹²⁶, bazen iturri bet¹²⁷, t'orraa, orrara... tortzen tzen yendëa, artzen tzuen ure, ta... denak.

– *Hona? herri honetara?*

Bai, bai, Zubii, emen, agua batueköa, ta Tsan Juan bezperan, ta auniz tortzen tzen jendea, gabasko... ämanbaietz (zuzenduz:) amabietan? errelojuek soñatzen tzuen-eta amabiek? asten tzen, garbitzen; gaitzek iten tzuen milagroak...

– *Bai?*

Bai, bai.

– *Ze milagro?*

Hombre! pues ba, o granoak eta balin bazute? kentzen tzute.

– *Ah, ur hura ona zen horretarako?*

Gorki ona, agua batueco; ori ze San Juan bezperan, denak oi egiten tzute.

– *Eta nola etortzen ziren?*

Oh-oh-oh! etze, orduen etze autoik ez, orai bezala; oñez.

– *Baina zein herritara joaten ziren?*

Onara, onara, Zubirre... emen, emen, bazen; orai ere (...) or dao, iturrie or dao.

– *Eta ze izen du iturri horrek?*

Agua de batueco, erraten tzen, agua del batueco.

– *Bai, baina iturriak izanen du izen bat...*



San Juan Bataiatzailearen irudi hau Artzibarkin mugatzen duen Erdozaingo elizakoa da, Longidan - KA2010

¹²⁶ Elkarrizketa hau Zubirin bildu zenez, geroxeagoko galdera bat egitean, 'etortzen' erabili genuen eta ez 'joaten'.

¹²⁷ iturri bek aditzen uste dugu.

- Ori? ori? iturri batekoa, iturri batekoa... ta beira, orraa tortzen giñe(n), baño oi-oi-oi!...
- *Zu ere etortzen zinen?*
- Ni ere torri nitzen bein, ni ere bai.
- *Eta gero ur hartaz, ur harekin, zer egiten zen?*
- Ah, ta, bedratzi, bedratzi eunez edan, goizetan, bedratzi eunez; orai ere iten dut nik ori, je! bedratzi eunez, ur artaik edan.
- *Zertarako?*
- Je! pues, ba... ori, ori kostunbre oi zue¹²⁸, yendëak, ta sue... bezperan, San Juan bezperan? oi-oi ama! denak! biltzen tzutene munduko... oianeta(i)n, egurrek eta... denak? eta, bain!... t'an brinko denak.
- *Hori San Juan egunean?*
- San, ez! bezpera!... San Juan bezperan, bai; San Juan bezperan iten tzute ori.
- *Ez duzu erran zertarako zen on ur batueko hura; zertarako zen ona?*
- Ura? ona, ona... pues dena, garbitzeko... bai, granuak eta izeten baitze? ta denak garbitu?...
- *Bai, e?*
- Bai-bai... gabasko amabietan or, yendëa, ellegatzen tzen... Orai? orai ez, orai ez, orai ez, ori kendu diek¹²⁹.
- *Eta zerbait erraten zen ura hartzean?*
- Ez-ez, ja e, ja ere, ezer e erran te, yaus ez.
- *Eta ordu horretan etorri behar zen...*
- Bai, erlojuek amabiek xo, iten tzuelaik? orduen, orduen asten tze jendea... garbitze(n); klaro, or eoten tzen.
- *Eta gero, erran duzu suak ere egiten zirela...*
- Sue? bai, errien, errien...
- *San Juan bezperan...*
- Bezperan, bezperan, San Juan bezperan.
- *Iluntzean edo...*
- Ez, e... ya ilun, ya ilunpian, ya ilunpian, bai.
- *Arratsean edo...*
- Arratsëan, artsian, ya ilunbian.
- *Eta jendeak zer egiten zuen?*
- Oi-oi, yaus ere! an saltatu, salto ta saltu? ta buen humor, buen humor, ta zer geyago?
- *Eta salto egitean zer erraten zuen jendeak?*
- Ya, ja eré!... yendeak yardukiko salto beño, ez-ez, gaizkig(o)a yaus ere, beraizki ja! ya-ya! dena ona, ona, brinko ta brinko ta salto.
- *Baina 'sarna fuera' edo...*
- Ori bai, 'sarna fuera', 'sarna fuera' erraten tzuen: 'sarna fuera', 'sarna fuera' edo ezta(k)it, ez, bezte zerbait erraten: 'sarna fuera, etxera...' no sé, eztakit, beti e 'sarna fuera' bai erraten tzute.
- *Bai baina zer gehiago, zer gehiago? hori nahi dut jakin eta...*
- Enaiz... enaiz orotzen, 'sarna fuera, sarna fuera, kanpora... kanpoan daona etxera' o... enaiz oroitzen ori, beire... enaiz oroitzen 'sarna kanpora'. Gero ori? ori e kantan tzute-da, oi-oi kanta(n)tzen tzute: 'sarna kanpora, sarna kanpora'. Ez naiz oroitzen, beire, enaiz oroitzen; bertze zenbait ere kantatzen tzute baña enaiz oroitze(n). Je! badu urte aunitz ere!... bai, orai, orai ezta iten tuten, bah! orai egiten dute, bai, zemait, zemait lekuten iteunte, Labianon ta oietan.
- *'Ezkabia Frantziara' edo horrelako zerbait?*
- Espera, espera: 'Sarna kanpora, jendi onak etxera... yende onak etxera' me parece, erraten tzute: 'Sarna kanpora, yende ona etxera'.
- *Ah, bai? hori erraten zuten?*
- Bai, bai... 'Sarna kanpora, yende ona etxera'. Ya sabe lo que quiere decir: 'la gente buena... sarna kanpora, yende ona etxera'.

ESKIROTZ (Esteribar)

Berriemailea:

Domingo Bizkai Santesteban, 1909

Gurasoak nongo:

Ama: Setoain / Aita: Larraingoa (Erroibar)

¹²⁸ zure aditzen uste dugu.

¹²⁹ Tokako era, harrigarri xamarra elkarrizketan zukako tratamendua erabili zela kontuan izanik.

63. Ereintza (1987)

– *Erekitzeko zer egiten zen? joaten zen jendea, hola, (hazia) barratzen edo?*

Bai, paatzen tzire... zuiñek erraten tziote; emen marka bat, emen bertzoat, emen bertze bat, emen bertze bat... ta emen bertze at, emen beste at, emen beste at... ta, erdi-erdien paratzen tze... gizona? ta...

– *Ereinzalea? erekizalea?*

Bai, bai.

– *Hala erraten zen? 'el sembrador'?*

Sí, ta gero? bota... azie? –azie, 'simiente'–, bota azie? ta gero... idiekin? –'area' erraten tzioten–, arrekin pastu? o koldeikin ere bai, gariak... koldeikin yao.

– *Hori estaltzeko? tapatzeko?*

Bai, tapatzeko. Ta gero, berritz, katxarro batekin –'eskalera' erraten tzioten, eskalea, eskalera, eskalea...– mando batekin edo ola? pasten tzire(n)... berdintzeko lurra berriz; koldia pastu? ta gero... arrekin berdin, berdindu lur ure, iten tze(n). Ta ora(i)ndi iteunte orai, eso, aziendeki, orai makinariaiki? biño iten tzue ori, iteunte.

– *Eta erran duzu marka horiek zirela, zuinek?*

Zuiñek, bai; paatzen tzire, emen, fila bat? ola? ta emen berztoat, ta... gizona paatzen tze... emen, erdi-erdien zaku etekin edo ola paatu? o... ta artu zenbait eta...

– *Edo saskia edo, e?*

Ta bota; d'emendik? onaraño, emendik onaraño ya, bota. Ta gero? ber- bertzoat? eta bertzoat? eta bertzoat? eta ola.

– *Eta zuin horiek nolakoak ziren?*

Pues, oiek?

– *Zer ziren, estaka batzuk edo zinta batzuk edo?*

Ez, ez, ez.

– *Nolako markak ziren?*

Nola? nola erraten tzioten ori?... al boj ¿cómo le llaman en vasco?

– *Ezpel.*

Ezpela; ezpela, ezpel?... kasko batzik? ola, paatzen tziren...

– *Ezpel, zera, horrelako makila ttiki batzuk bezala edo?*

Ez, ostoa, ez, ostoa, ostoa, bai, orduen...

– *Ah, ostoa, ezpel-ostoa, hori zen marka. Horiek ziren zuinak?*

Bai-bai, oriozein marka, ori ze zuiñä, bai. Ta ezpadira... ezpelak urbil? zakuek... la, a la paja ¿cómo se le llama en vasco?

– *Ahotza?*

Aotza; ola, montton bat? emen bertze montton bat? emen bertze montton bat? ta oien markatako, zuin, zuiñek paratzeko.

– *Kontxo, baina beti ere markak izena zuen zuine.*

Bai, zuiñe, zuiñe...

– *Igual gauza batekin edo bestearekin egina...*

Ah, bai-bai, zuiñe, zuiñe, zuiñe, zuiñe... zuiñe.

– *Eta lastorik ez bazen, ahotzik ez bazen, bertze zerbaitekin, ezta?*

Bai, tä... ezpaze... ezpela? pues, bertze... igual, aritz bat eo ora... ez baze urbil? pues, kaska-kaska-kaska, kendu...

– *Aldaxkak edo...*

Bai, ta paratu, ola.

– *Aldaxkak dira e... 'las ramitas' ¿no?*

Así de largas o así.

– *Aldaxkak dira?*

Sí... bueno, abar, abar, abarrak; abar, txikiek? paatu? ta emen sartu lurrean? amen bat? emen bertze at? ta, edozein arbolean.

– *Markatzeko, markatzeko...*

Markatako, edozein arbolean, beño... geyago ibiltzen tze... ezpela.

64. Moxgoa (1986)

– *Moxgoa egin duzu?*

Bai.

– *Elle-moxgoa?*

Ba-bai.

– *Ea, nola egiten da moxgoa?*

Pues... artzen da ardie...

– *Nondik?*
 Ankatik, ta bota lurrera? ta lau... patak, eztakit...
 – *Hankak...*
 Ankak, lotu; lotu? te... paatzen da, emen ardie? ta emen
 ola ni; ni gola?...
 – *Makurturik?*
 O ni? gola, ta ardie emen, lotuik.
 – *Nola erraten da 'hola', 'de rodillas'?*
 De rodillas, eztakit nola erraten den.
 – *Euskaraz, belauriko?*
 Be-, nik uste, belauriko.
 – *Belauriko, ezta? bai...*
 Belauriko bai, bai, uste belauriko. Ta aan? tijera... kutxi-
 llo, kutxillo bateki? klas-klas-klas-klas-klas? iten tzen, bai.
 Nik? nik ere in dut au, franko aldizes, bai, bai.
 – *Zenbat denbora behar zenuen hori egiteko? ardi bati
 artilea kentzeko?*
 Ardi bat? ba, ardi bat... eztagit, amaborz minuto ero...
 – *Zenbat?*
 Amaborz minuto ero... olako zerbait, o... o akaso pixket¹³⁰
 gexago? luzetto?
 – *Eta ardiak, pozik? kontent?*
 Ze, ardiek? bai.
 – *Freskatu, ezta?*
 Freskatu, ell-, elleikin daudelaik? bero auniz pasteunte, pasteunte, bai.
 – *Eta kaparrak eta...*
 Bai-bai, beño... (a)moztuz gero? dena kentzen tzeok¹³¹, bai-bai.
 – *Kaparrak-eta ateratzen ziren moxgoa egitean?*
 Bai, bai.
 – *Eta aurkitzen eta, opatzen baldin bazenuten kapar bat, moztu?*
 Klask!
 – *Kurixarekin?*
 Bai.
 – *Erditik?*
 Ez, ezpada... ttarra-ttarra-ttarra sorik? denak klas-klas, badakizu; zenbait ardi etzute kasi bate izeten, bertze,
 bertze at... bertzeak izeindu zute.
 – *Eta ardi bakoitzak zenbat elle edo zenbat kilo edo zenbat... ematen zuen?*
 Zenbat kilo? eztait; ba... kilo bat et'ardi o kilo pare bat. Denak eztute igual, ta zenbait äldiz zue gëyao, geyao ta
 bertzean guttiego. Beño... ola, kilo at et'ardi edo... olako zerbait.
 – *Zenbait lekutan ibiltzen ziren ijitoak, ez? moxgoa egiten, ez?*
 Ah, bai-bai-bai, bai; biño aek? kuriziak ez, bazuten... bertze katxarro at, makina... nola erten tzaio arrek? arrekin
 fitteago iten tzute.
 – *Ah, bai, e?*
 Bai, ta gero? azkenean? etxetan ere paa-, paatzen tzire.
 – *Modernizatuagoak zeuden ijitoak?*
 Bai!... bai-bai-bai.
 – *Eta non bizi ziren?*
 Bah! pues, tortzen tzire, eztait nondik... emen, urbil bizitzen tzire, Zuri-, Zurieñen, bizi zire zitoak...
 – *(Berriemailearen iloba Maribeli, honen haurra, jolastean, zarata pixka bat egiten ari zela-eta:) Maribel, ez du
 molestutzen, e? txintxo dago...*
 An, ez tzire aunitz juaten zitoak, ez, ez; zenbait bai, biño... etxeakoak, etxeko jendeak iten gindue... kasik beti,
 ta ezpadie aski? erriko zerbait, nunbait ere artu? erriköa? ta...
 – *Lehen erran nizun ezagutzen dudala gizon zahar bat, Ilurdozkoa, fraile dena, eta horrek erran zidan Zuriango
 bidean bazirela ijito batzuk (...); haiek ere kurixekin ibiltzen ziren, kurixekin edo zuk erran duzun...*
 Bai, kurix-, kurixekin ere ibiltzen tzire, de-, den- denetik.



Moxgoaren ondoko artile-bilketa Oiduiako Saroian, Aralarren - FL770628

¹³⁰ *pixtet* aditzen uste dugu hor.

¹³¹ Bitxi da era hori hor agertzea, berriemaileak, Yrizarrentzat galdekatu genuenean, ez baitzuen hikako erak ematen asmatu.

- *Bai, moxgoa egiten, eta inoiz ere, mandoak eta...*
 Bai, bait'ere, baitt'ere, mandoak eta astoak eta... iten tzuten, bai.
 – *Bai? zuek ere egin duzue?*
 Bai; Alzuzen bizi ginelaik? Ibirikun bazen zito at, ta... arreki-të, moztu z-, mozten tzuen gure mandoak, beti, ta errikoak ere bai.
 – *Eta nola mozten zuen?*
 Ah, pues, emen mandoa... lotu? te...
 – *Hura ez baitzen belauniko paratuko, hori egiteko, e?*
 Ez-ez! ez-ez-ez-ez-ez; e... mandoa mozten tzen, erditik goittire¹³², bei-, beitti-, beittire etze... etze mozten, ez; txutik, aise, iten tzuen.
 – *Eta lotu behar zen mandoa?*
 Ez, ez, ez, ez... geldi-geldie egoten tze.
 – *Geldi egoten zen, berak ere gusto hartuko zuen eta, orduan uzten zion, ez?*
 Uzten tzion, bai.
 – *Eta zer kurixe-klase erabiltzen zuen horretarako?*
 Bertze... klase bat, nola da? izein tze; eztait nola... espliketu. Gure kurixek bi...
 – *Bai, badakit nolakoak diren ardi-moxgoa egiteko kurixak...*
 Bai, beño, mandoa eit(t)eko? bertze klase bat, bai.
 – *Bai, handiagoa edo?*
 Andiao, andiao? ta, bertze... posturä...
 – *Beste forma batekoa?*
 Bai, beste forma batekoa, bai, bai; beste forma zue.
 – *Eta ze izena zuen? kurixe?*
 Kurixe.
 – *Baita? izena bera, izena igual...*
 Bai-bai, kurixe, kurixe; bi eskuekin, esku bātek, emendik kurixe? ta, bertz... puntätik ere bai, klas-klas-klas... mandoak iteko ola.
 – *Ah, bi eskuekin, e?*
 Bai, bi eskueki.
 – *Kider bakoitza, bakoitzari esku banarekin, e? egin behar zen...*
 Bai, bai, bai.
 – *Orduan, Ibirikukoa zen, e?*
 Bai, bi-, an bizi ze. Ni an, an zautu nue beti ta an gelditu ze, gu atra ginelaik Alzuzetik an gelditu ze, ya gero il tze ba, zartu ze ta il tze.
 – *Nongoa zen bera?*
 Nik eztait! a-an, ango semea o izein tzen, beti ere aurte aunitz bai, Ibirikun.
 – *Zuk ezagutu duzu ijito euskaldunik?*
 Ez, ez.
 – *Euskaraz mintzo zen ijitorik ez duzu ezagutu, e?*
 Ez, ez, ez daude, ez; Zuriañen bazire zitoak, bi familie sorik beño... euskara... etze mintzatzen batre, ez.

ILURDOTZ (Esteribar)

Berriemailea:

Joaquin Garrues Goñi, 1895

Gurasoak nongo:

Aita: Ilurdotz / Ama: Beltzunegi

65. Korpus eguneko prozesioa (1981)

- *Korpus Kristi egunean prozesiorik ateratzen zen?*
 Bai.
 – *Konta, konta ezazu nola egiten zuten jai hori edo nola, nola egiten zen hori.*
 Lemixik? eiten, erraten, errate... erraten tzue, iten tz-, itzen tze, iten... lemixik? meza, elitzen. Iten tzen lemixi,

¹³² goittiro aditzen ote den gaude.

lemixkõa, lemixko, lemixkua, elizen, meza, eta mez ondoan... mez ondoan prozesioa, prozesioa... lau gitzon, lau gizon, palioa, palioa, eta apeza...

– (*Lagundu nahiz*) *Eramaten?*

Eramaten? arri... arrien, arrien¹³³... itun tz-, itun tze, (zuzenduz:) itzen, itzen tze... prozesioa.

– *Bai, egiten zen, bai; lau gizonek eramaten zuten palioa?*

Bai, eta... gero, prozesioa iten tzue... errien, errie... en el pueblo en donde... se podía hacer, errieko... karrketan, buelt-, buelta bat, buelta bat...

– *Lekurik hobenean edo?*

Karrike... karrike obenean, obetean... iten tze ordun prozesioa? eta, eta buelta, buelta elizera. Eta ala akabatzen tze; sartzen tze elizen? eta... Santisimoa? ematen tzue bere lekure, sagrarioa, eta... hala! ala... patzen tze, akabatzen tze ala.

– *Eta palio barruan, karrketan, nor joaten zen?*

Palio barnean?...

– *Erran duzu lau gizonen artean palioa eramaten zutela; eta palio barruan?*

O sea ¿quién iba dentro...?

– *Del palio.*

Del palio? pues, apeza, bere... Santisimoakin? te, bere... custodia, eta an, bi... eskuetan? ta ala ibiltzen tze... prozesioa.

– *Karrketan paratzen zuten aldareren bat edo?*

Bai, erriko neskatxak, iten tzute... mai, mai betëa, o sea ¿cómo se dice eso de... unos paños, para hacer una especie de mantel?

– *Oihalak edo?*

Sí, también, oialak. Prestatzen tzute, oialekin? eta... flores? floras?

– *Loreak?*

Loreak? o... o un jarro o dos de... de flores...

– *Pitxar bat edo pitxarro bat edo nola erraten zen? pitxarro bat edo bi lore?*

No recuerdo cómo se dice, no; de todos modos ponían unos, eso hacían, lo adornaban un poco bien y allí...

– *Euskaraz, euskaraz... eta 'adornar' nola erraten da? 'apaindu'?*

Apaindu, sí.

– *Bai? erraten zen 'apaindu'? apaintzen zuten, e?*

Apai(n)zen tzuten? eta an... paatzen tze custodia, aldar(r)e artan, eta apezak? pues... alguna oración hacía.

– *Orazio bat? otoitz bat? nola erraten da, orazio edo otoitza edo...?*

Orazioa, eta azkenean? ematen... ematen tzue custodia-, custodiaokin? maten... iten tzue bendición, cómo se dice...

– *Benedizioa edo, e? benedikapena edo benedizioa...*

Bendecía al público y... sí.

– *'Jendea' erraten da? jendea bedeinkatzen, bedeikatzen zuen?*

Bedeikatzen tzue? erriko jendeai, eta... azkenëan? buelta, buelta elizra¹³⁴, karrike... karrike...

– *Karrika barna?*

Karrike barna, o sea...

– *Bai? 'karrika barna' erraten zen?*

Sí, o sea, hacían... entraban por un sitio ¿cómo diríamos? esta mesa, así y el altar en medio de la mesa y volvían por otra calle a la iglesia.

– *Eta botatzen zuten lurrean zerbait, prozesioa haren gainetik pasatzeko? zer botatzen zuten?*

Pues, bezperatik? erriko... erriko bezinoak, etxe... zenbait etxetan, zenbait etxere(n)... etxeko gizon, gizon bat, joaten tzen... erreka ondora? erreka ondora... ¿cómo se llama? juncos... no sé cómo se llaman en vasco, no me acuerdo; yunke! yunke... yunke batzuk, yunke batzuk igitekin... egitekin...

– *Moztu? ebaki?*

Ebaki? te, eta... eta iten tzuen, iten tzuen... –ahora, como pa decir 'un fardo' ¿cómo se dice?– iten tzuen... faxu bet! faxu bet, un fardo, un fardo de... juncos? (...), y lo llevaba a casa? y al otro día...

– *Eta hurrengo egunean...*

Biremonian? prozesioa... prozesioa iteko? bi...

– *Antes de salir la procesión... ¿cómo se dice 'antes de salir la procesión'?*

Prozesioa... altzinean, altzineko prozesioan?... prozesioa, atra gabe? botaten tzue... tzitue, botatzen tze... yunkek? yunkek lurrean, karrketan, nondik, nondik pasatu biar zuen an prozesioa? eta... dena, dena, todo el recorrido? bide guzia, guzie... ta guzie! bide guzie nondik pasatu bear tzuen Gure Jaune? dena... dena yun-, yunketuik, lurrea... bide, lurrek... bide, bidea yunketuz? dena an... bide guzie yu-... yunketuik.

¹³³ 'herrian' bide dira *arrien* horiek.

¹³⁴ 'elizara > elizera' hitzaren laburketa.

66. Erleen zitzadak (1983)

Gure... gure aiten etxan, ba... bazuzten... bazuzte erlëak, eta egun betez... egun betez bior bat pere... bere... bere potraikin? eman tzuten erlean, erlian...

– *Aitzinera?*

Altzinera, yateko an... yateko an... pentzian! pentzian belarra. Eta... erleak? erleak... biorra... biorraingena? biorraingena yoan tziren, yoan tziren, yoan tziren eta... eta pikātu zuten aunnitz, buruän, buruan, buruan eta... eta biorra? biorra... galtzera, galtzera... biorra galtzera zago, eta... eta... gero? gero... gero, bere... berea, bera ta gero bera, bera... bizie, eta zago... zago soka batekin, soka batekin besotik, besotik lotuik? eta soltatu... soltatu zutelaik biorra? libre... libre zego? libre zegolaik? lasterka erreko... erreko... erreko, (zuzenduz:) erriko errekoa, lasterka joan tzen? joan tze eta, an, urian eta... eta... bere... eta bere... urian eta... arboletan, arboletan... defend-, –no sé cómo se dice– arboletan...

– *Defendatu zen?*

Erleak, kendu, kendu zituen, kendu zituen, eta orduen, orduen, biorra kontent, etxera... etxera, etxera juan, etxera juan tze. Eta... gero? burue aunditu zi... aunditu ze... aunditu zeio...

– *(Handitu) zekion? zitzaiion?*

Erlek? erle... piku-erlekin? piku-erlekin minea? eta zortzi eunez? zortzi edo, edo amar egunetan? biorra, etzak-, etzukela yan, yai, jai ere!

Eta gero? eta gero, gero, asi tzen, guti-gut(t)i? guti-guti... yaten¹³⁵ eta... eta... aundi, eta aundie... aundie zi-, eta aundi... eta aundiek, aunditziek, ya, juan txire(n), guti-gutian, eta... ba, berriek, berriek...

– *Belarriak?*

Ta, biarriek, eta biarriek? bi biarriek? erditëk? erditik, erditik gora? erditik gora? eyartu zire, (i)yartu zi... iyartu zituen, eiartu zi...-tuen, eyartu zitue.

– *Zauzkien? (oso era okerra, 'zitzazkion' erabili beharko baikenuen); 'se le secaron' quiere decir?*

Sí, eiartu... sí, secar es 'iartu, eiartu'; ya hemos hablaö antes.

– *Lehen erran dugu idortu...*

Idortu? no¹³⁶.

– *Mejor eihartu, no?*

Sí, eiartu zi-...

– *Zitzazkion?*

Igartu zit-tzio? eta, gero? gero? biorra? guti-gutien? bizkortu tze eta, eta nausie kontent, eta... txukandrea tambien, kontent... je! y todos contentos. Eta... ala, ala akabatu ze.

– *Baina ez duzu erran potra txikiak zer egin zuen...*

Ah, potra ttikie, ta... potra txikie, erlëak ozkatu... piketu zutelaik? etxera joan tze lasterka, eta txukandreak? txukandreak eskö¹³⁷... eskö batekin, garbitu zituen erleak, eta... eta potrai etze... potrai etze... etzaio... gai ere, gai ere gaizki... gaizkiri(k) paratu.

ZAI (Esteribar)

Berriemailea:

Aniceto Azkarate Zalba, 1907

Gurasoak nongo:

Ama: Antxoritz / Aita: Sorauren (Ezkabarte)

67. Balizko euskaldunez galde (1987)

– *Erran zazu non sortu zinen.*

Ni Zaien.

– *Eta aitatak nongoak ziren?*

Soraungua, aite Soraungoköa ta ama Antxorizköa.

– *Eta aitak bazekien euskararik?*

Aitak ez, yius ez.

¹³⁵ *yätzen* aditzen delakoan gaude.

¹³⁶ Berriemaileak, aldi honetan egokitzen jo ez arren, 'idortu' hitza ezagutzen zuen, noizbait erabili baitzuen.

¹³⁷ Gaztelaniazko 'escoba', alegia.

- *Eta amak ongi zekien?*
Amak bai.
– *Eta oroitzen zara amaren aitatomak nongoak ziren?*
Ni ez, enaitz oroitzen ni.
– *Eta amak ongi zekien euskaraz, e?*
Ama pai, amak bai.
– *Eta zenbat urte izanen zituen orai bizi izan balitz?*
Oooi... ama! ze, ama? (semeari:) A los noventa y uno no murió la abuela?
(Semea:) A los noventa y dos.
– *Eta orain duela zenbat urte hil zela?*
(Semea:) Pues, hará igual...
– *¿Cuántos hay ahora? ¿veinte años?*
Con noventa y dos?... ciento doce? ciento doce.
– *Nik bilatu dut hor, Antxoritz eta Zuriainen, baina ez dut inor harrapatu...*
Ez, ez, orr eztuzu arrep-, eztutzu arrepatiko, ez; ta llarratzen ere... iñorr e ez.
– *llarratzen bada gizon bat Erreatik etorria, Arregi.*
Arregi, Tomas...
– *Bai, baina horrek ere erraten du ez dakiela.*
Ez, ez, eztaki; orren aitek ere bazekien euskeraz beño orrek eztaki euskeraz, ez.
– *Noiz arte bizi izan zinen Zaien?*
Ni? oi-oi... je! pañaletan eaman men tzien... Leanotze!... ni enaiz ooitzen, beno oraindi erraten diate “en pañales te llevemos a Leranoz”, je!
– *Eta gero, Leranotzen noiz arte bizi izan zara?*
Leanotzik egatu nitzen llarratzera... amalau-amabortz urtetan.
– *Hamalu-hamabortz urtetan, e?*
Bai.
– *Eta llarratzen, orduan, egiten zen euskaraz?*
llarratzen bai, ta Arregin a-, Arregin ait oi, ori, Tomasein aitek ere bazakien euskeraz, ta... bestzeak e bai, Xatunen... an, ori, Patricio, orrek ere bazakin uskeraz... ta bestzoat? Usitxiko¹³⁸ semia zen, (semeari:) el hermano de Juanito, el cojo, ése también sabía el vasco. Gero bestzeak ere... Urío, Victorio Urío... Benarda...
– *Eskiroitzen ere erraten duzu bazela?*
Bai, bazen, bazen.
– *Zenbat, batzuk baziren?*
Baziren euskeraz, ta... bi etxetan: Mariano Esain, arrek e bazakie euskeraz itz ein; gero? Salvador Mezkiriz, orrek bai, arrek ere bazakien euskeraz, ure il tzen, beño semeak eztakite yeus e.
– *Bai, apellido horiek guztiak aditu ditut; hor Larrasoañan ere bazen gizon bat, Juanito Esain, ez?*
Juanito Esain? bai.
– *Duela sei edo zazpi urte hil zela, e?*
Bai.
– *Aski zahar, franko zahar...*
Arrek ere bazakien uskeraz, beña arren... andreak etzakien yeus ere ez. (Semeari:) Este, Juanito, el padre del, de este, del... electricista, de Luisita, de Miguelito; fue el padre de ése.
– *Orduan, pañaletan eraman zintuzten¹³⁹ Leranotza eta gero hamabortz urtekin llarratza; eta llarratzen noiz arte bizi izan zara?*
Oi, noiz artio? nik... bah! berrogei urte o ola... damakit, fan nitzelaik Billanuera.
– *Nola?*
Billanuebara¹⁴⁰ fan nitzelaik? berrogei urte beño geyago n(u)ituela.
– *Eta gero, Billanuebara joan zinelarik, han ere egiten zen euskaraz, artean, pixka bat?*
Bai, biño gutxi.

68. Inguruko herrietan mintzamolde berbera (1987)

- *Euskaraz mintzatzeko maneran bazen diferentziarik Leranoztik llarratza?*
Ez, yeus ez.

¹³⁸ *Ufitxiko* aditzen uste dugu; Usetxi herrikoa, alegia.

¹³⁹ ‘zizuten’ erabili genuen berariaz, geure mintzamoldea harenari hurbildu nahiz.

¹⁴⁰ Artzibarko Hiriberrira, alegia.

- *Igual-igual-igual egiten zen?*
 Igual-igual, bai; ta Usitxikua ere bai.
 – *Zuk non egin zenuen euskara gehiago, Leranotzen ala Ilarratzen?*
 Ni Leranotzen.
 – *Leranotzen gehiago, ezta? eta Ilarratzen ere bai, gero, e?*
 Bai, beño gutti, e?
 – *Adinekoekin eta hola, ezta?*
 Ilarratzen gutti beño Leranotzen, arront uskeaz.
 – *Norekin ikasi zenuen, amarekin?*
 Ni?
 – *Amarekin eta Leranotzen, ezta?*
 Usetxi... Usetxi, ta gero... oyanean ibiltzi-, ibili nitzen...
 – *Bai, baina Usetxin baino gehiago bizi izan zinen Leranotzen. ez?*
 Bai.
 – *Orduan Leranotzen ikasi zenuen...*
 Leranotzen baziren uskaldun aunitz, zarrak, lengo zarrak denak! Hipolitoin aitek eta o, beztze oik, beitiko itxe ok ere, aitek eta gor, denak uskeaz!
 – *Eta amatxi edo amutxi edo, nola erraten duzue 'abuela'?*
 Eje! amitxi.
 – *Ez zenuen zuk amitxirik edo aitaxirik etxean?*
 Ez.
 – *Ez, e? beti aitatamekin... eta anai-arrebarik izan duzu?*
 Anai-arrebak bai, anaie ta... arreba.
 – *Zu baino zaharrago ala gazteago?*
 Arreba, ni beño zarrao.
 – *E? zu baino zaharragoa, arreba?*
 Bai.
 – *Eta anaia gazteago...*
 Anaia gaztiao, gaztena da anaia.
 – *Eta horien artean beti euskaraz orduan?*
 Itxan? uskeaz aitu ginenian, aitzindanean¹⁴¹ amak eta ni? aite beti marmarka. "A mí me queréis engañar, hablando aquí en vasco los dos", beti ola esaten tziren... Le sabía malo, al difunto padre; la madre tenía costumbre de hablar en vasco...

69. Kantu xume ezaguna, errezitaturik (1987)

Ardue edanta mozkortzen naiz
 Pipa y artuta xoratzen naiz
 Kortejatzera lotsatzen naiz
 Nola demontre biziko naiz.

Ardue edanta ez mozkortu
 Pipa y artuta y ez xoratu
 Kortejatzera ez lotsatu
 Nauten¹⁴² bezala beaut bizitu.

ARDAITZ (Erroibar)

Berriemailea:

Ana Mari Lusarreta Lusarreta, 1912

Gurasoak nongo:

Aita: Ardaitz / Ama: Ardaitz

¹⁴¹ *aitzinganean* aditzen uste dugu hor.

¹⁴² 'nahi duten' da hori (= 'nahi dudán', alegia).

70. Lixuaz eta euskararen ingurukoaz (1989)

– Begira, gauza erraz-erraz-erraz-erraza; zuk egin duzu-eta... nola erraten zaio? nola zaio? 'la colada', nola zaio?

Ah, 'la colada', bai.

– Nola zaio? (mementuan ez baikin euskal hitzaz oroitu)

Lixue.

– Lixue! lixue, lixue; egin duzu?

Bai.

– Denbora hartan, ezta? bertz (konporta) batean eta...

Emen... lixoa, lixoa.

– Eta non biltzen zen ura, ugaldean?

O errekan o... ueldian.

– la kontatzen duzun ongi...

No-no-no-no, ya... no le voy a contar, no-no-no-no-no; mira, estoy muy torpe yo pa... pa hablar el vasco, llevo aquí¹⁴³ cuarenta y siete años y no hay hablaõ el vasco, y ya se me ha olvidaõ, ya está bien. Ahora yo no...

– Ez du inportarik...

Yo de joven sí, de joven... con los padres alguna palabra suelta, lo demás no; yo lo que más sé pues de oír a ellos y entendía lo que decían y nada más, no-no. Si le ha dicho la... la Catalina, ya basta, ya basta.

– Baina hura da Saigoskoa eta zurea Ardaizkoa, eta zuk ez badidazu erraten nork erranen dit?

Bah!... eztakit, igualtsu de, igualtsu de; Saigoskoa ta Ardaizkoa? igualtsu.

– Bai, e? iruditzen zaizu igualtsu dela?

Bai-bai, bai-bai-bai-bai, igualtsu, igualtsu, bai.

– Diferentzia pixka bat bada...

No... no-no-no-no.

– Aber, berak kontatu dit nola egiten zuen lixua; orain zuk kontatzen badidazu ikusiko dut igualtsu den ala ez.

Ah, lixue! lixue...

– Baina horretarako kontatu behar duzu...

Pues, lixue? lixue? pues... ejeje! oi ya aurea non!

– Hala, jarri, jarri, jarri... bortz minutu, bortz minutu, e? aber, lehenbizi egin behar zen erreka... uhaldera? edo erreka, nola erranen duzue?

O erreka o ualdera o...

– Uhalde handi xamarra denean, baina ttikia delarik, orduan erreka, ezta?

Orduan, erreka.

– Herrikoa izanen da erreka...

Erreka o reka... beh! lo que parecía mejor, más cerca? pues allí, a donde nos parecía.

– Eta hara joaten zineten ur txerka, ur eske edo ur bila edo nola erraten da? ur eske?

Ah, iturri, iturrire, ur eske; an... an tzen labadero at?, ta an, lemixko remojatu? ta... gero, etxera man? ta... sí, ahora no sé.

– Arropa? arropa hartu...

Arropa artu? ta sartu... kolanderoa? ta gero... bota al... ¿cómo se llama?

– Hautsa?

Je! ori zaio, e? la ceniza? ta gero egosi...

– Bueno baina, arropa, arropa guztia ez zen igual; bat zen finagokoa edo xuria eta bertzea kolorekoa, edo...

Ya... maindrekõa ta... atorrak ta...

– Eta nola paratzen zen? zer paratzen zen goitian eta zer beheitian?

Zer beittian?

– Bai, lehenbizi zer paratzen zen beheitian?

Eztakit, lemixien... abar pixket? ya... lekuik ya gelditzeko ondoan? ta gero paratu arropa; lemixko... maindrekõa? ta gero...

– Xuria? gainean xuria?

Gañean (t)xuri.

– Xuria beti ere, beti goitian, e?

Beti... beti goittian.



Argazkikoa Olaizko harraska da, Ardaizkoa desagertu baitzen - KA2012

¹⁴³ Esteribarko Eugin, hain zuzen.

- *Eta gero botatzen zen ura...*
 Ure... gañean.
 – *Egosirik?*
 Bai, lemixkue... epel-epela paratu? ta, ta gero... pues cada vez y más caliente ¿verdad? no sé.
 – *Geroago eta beroago; eta hautsa noiz botatzen zen?*
 Lemixkoan.
 – *Eta gero eskurritu behar zen?*
 Ba, badu aski ee... eskorritzeko, arra(t)s guzien, ya (...). Ez; no, total e...
 – *Eta berriz erre kara, e?*
 Dosten (?), no sé.
 – *No se preocupe, yo ya sé que le cuesta, pero bueno, si sale un poquico...*
 Pero no, mira yo, en palabras sueltas sí, entiendo y en vasco pues no, nadie.
 – *Ez da izanen-eta herri guztian inor?*
 Iñor, iñor.
 – *Zuk baino gehiago dakienik, ez?*
 Bah!
 – *Zu zara gehien dakiena?*
 Ya-ya... orai, orai bai, klaro, lenao? Francisco Uriz, ta... Sandalia Egozkue, ai e, il tzen.
 – *Sandalia Egozkue hil zen, e?*
 Bai, bai; orai urtia.
 – *Orain urtea? eta bazekien euskaraz?*
 ¡Hombre!...
 – *Mekaguensos! eta nik ez nuen ezagutu...*
 Bai.
 – *Non bizi zen?*
 Errian... errien, errien erdien; errira sartu? ta... lemixka, lemixko... etxean? ezkerretik.
 – *Herrian berean bizi zen?*
 Bai, bai-bai.
 – *Ba nik, egon nintzanean zure anaiekin, galdetu nuen eta ez zidaten erran...*
 Sí-sí-sí-sí; orai... ¿cuántos años tenía? noventa y... y. Pues se ha muerto ahora.
 – *Eta ez du anaia edo ahizpa bizirik?*
 Badu... ¿cómo se dice? una hija tiene pero aquella no habla.
 – *Pero hermano o hermana no le queda?*
 No-no-no-no; ella... una hija, una hija y ésa nada, ni palabra.
 – *Bueno, Francisco eta andre hori zu baino askoz zaharrago (ziren)...*
 Bai, baño...
 – *Zu gazteago, diferentzia handiarekin; zenbat urte dituzu?*
 Nik?
 – *Lauetanogei ez...*
 La-, labetanogei ez; iruetanogeita zazpi.
 – *Hiruetanogeita hamazazpi?*
 Sí.
 – *¿Setenta y siete?... ba Franciscok ongi zekien, e?*
 Ah, Francisco sí.
 – *Eta bertze emazte horrek ere ongi zekien, e?*
 Bai, sí-sí.
 – *Y ¿cómo no me dijeron sus hermanos, que había ahí una mujer del pueblo que sabía bien?*
 Pero como no se habla, como no se habla...
 – *Eta Ardaizkoa zen, e?*
 Bai-bai.
 – *Eta Ardaiztik kanpo ez da inor egonen orain? Iruñen edo Burlatan edo...?*
 Oh! bai, Iruñen y, pero... esa gente normal, gente joven, ya de las mayores no. Una estaba en Espinal, pero aquella también ya murió...
 – *(Lixuarekikoa berreskuratuz:) Eta gero botatzen zen ura...*
 Ura...
 – *Hautsen gainean...*
 Autsa e gañera.
 – *Eta horrela garbitzen zen?*
 Oh! garbitu ez; ya... ongi garbitu? pues, xuritu! xuritu pixkät, xuritu.

– *Eta ura nondik ateratzen zen?*
 Bazuen...
 – *Zulo bat?*
 Txurruta bat, an paatu txurruta? ta gero, kolanderoa paatu? ta, zen... Eta, gero? paratu bañera bat? ta andik sar, esto? eta, berotuik? ya egosiik, lixue.
 – *Eta gero, behin egosirik zegoelarik, atera...*
 Utzi, utzi, arraxëan, arraxe guziän...
 – *Han bertan (han berean)?*
 Bai.
 – *Bertz (konporta) barruan?... Eta gero atera behar zen...*
 Ta gero?... bai.
 – *Zer egiten zer atera eta gero?*
 Atra gero? ta... gero... joan erre kara o... labaderora o... a eso? ta, andik garbitu ongi ta (...).
 – *Eta gero paratu idortzen? idortzen erraten da? 'para secar'?*
 Para secar... no sé cómo se dice.
 – *Idortzen, e? idortzeko; non, non paratzen zen arropa?*
 Ah! pues... igual... en el campo, por deciman¹⁴⁴, no sé cómo se dice.
 – *Bai, larrean edo... baldin bazen belar edo...?*
 Edo larrañan o kuerda batera o...
 – *Edo sasietan edo, e?*
 Orai... se recogía ya. Oi-oi ama! lo que, ui-ui ama!... si hubiera sabido que era usted cerrado la puerta.

URNIZA (Erroibar)

Berriemailea:
 Francisco Beaumont Oroz, 1902
 Gurasoak nongo:
 Ama: Urniza / Aita: Zubiri (Esteribar)

71. Orreagako beila (1983)

– *Eta zer egin duzue? joaten zarete erromerian Orreagara edo?*
 Bai, bai.
 – *Nondik? konta, konta ezazu nondik joaten zareten...*
 Faten dire... mutikuek.
 – *Mutikoak?*
 Bai, beituu... bortz seme ta... bi alaba, bat an ez kondue, de bertzea... ezta öngi, eztao... amalau urte izen, iduki ginuen an... Manikomioan, ta orai etxean da, bai. Ta, ah! mutiko oiek, bai, ora-, orai ais(e) faten dire! ja!... mendiz faten dire ta, Orreagako bizkarr ertz artan, aldarmortzatzente? ta... bueltan? dena autoan.
 – *Zenbat herritatik joaten dira? konta, konta ezazu nola izaten zen erromeria eta...*
 Bai! nik zer dakit ote!...
 – *Nondik ateratzen zen, zenbat herritakoak joaten ziren, ze ordutan ateratzen ziren, non egiten zuten parada...*
 Bai; lenao, lenago, bate, almortzatu zutä, batre.
 – *Ze ordutan, ia herri bakoitzak eramaten zuen bere gurutzea eta hola; zuk konta, konta ongi...*
 Eztakit nik, deus!.... jen ayunas!
 – *Bai? baraurik, barunik edo?*



Orreagako Andredena Mariari eskainiriko lapida, Santiago bidean, Mezkirizko mendatean - KA2012

¹⁴⁴ 'por encima' ote da hori?

Baruik, baruik faten gine, iruetan... atrata, goizeko iruetan; atra etxeti? ta, Orreagaño, bate... baratu gebe niun, niun leku... bate! ta orai? denak... bien aldamortzatu te iteunte, ja!... eta, komekatu biauüzetela ere? aldamortzatu ondoan, ta, lenago? ezin bet-, batre ez! ezin yän bear. Andëk? lemizi faten gine... guk emendik, Esnostik, Esnostik bidi-bidiez. Eeh! el Espinal...

– *Auzperri?*

Bai, Auzperri, baño aratago, ate-, atazten gine, gu te (g)urbitzak¹⁴⁵, ordik, karreteatik.

– *Bideberriz? ‘carretera’ nola erraten duzue? bideberri?*

Ez... karretera, karretera; bertzea bidia.

– *Eta ze ordutan ellegatzen zineten Orreagara?*

Orreagara? an, bedratzien... t’erdien o ola.

– *Orduan sobera goiz ateratzen zineten...*

Bai, amar-, amarretan, amarretan. Bai, oaño... amabitako, amabietan oaño, oñiki... bate, baldin-de egoten gine.

– *Bai, e?*

Bai, ta ez ge-, ez gindue... orreki, gosei ta, je! deus ez.

– *Eta gero, hamabietan edo, meza?*

Bai, zubia(n), amabietan meza.

– *Eta mezzatik aterata?*

E... man, arara fan? ta, konfesatu?... te komekatu? ta gero... nai tzune.

– *Handik aterata zer? almortzua ala bazkaria?*

Ah! bai, bazkarie; almortzue lenik, eta gero? meza bai bagiñuen len, ta gero mezara? ta gero, pues bazkarie.

– *Bai baina garai hartan meza baino lehen almortzua egiten bazenuten, gero ezin komekatu...*

Bai, komekatu nuen.

– *Bai?*

Komekatu, lenik, ta gero almortzatu? ta gero meza? ta gero bazkaldu.

– *Ah, lehenbizi komekatu gero almortzua egiteko; gero meza eta mezzatik atera-eta orduan bazkaria...*

Bai, bai; ai ene!... faten gine baña, oi-oi-oi!... bide guzien euriek! ta bate, paraguas ta batre ez ginue... ematen. Orei? paraguas e... emateunte! ta, oi-oi, Dios!... oäi? eztakit, eztire... jendiak lenago bezala.

– *Arropa ere hobea, oraingoa, anorak eta deitzen direnak...*

Bai, oregai¹⁴⁶... orai, eztute uzten pastera au, ure bate bustitzera, ta lenao dena... denna! dena busti ta, an, gero, su iten, sue in te, sekatzten ta, eh! eztakit nola etzen, ez gren il... t’eiten.

– *Eta apezak nola egiten zuten predikua orduan, zu gazte zinelarik? euskaraz?*

Ez-ez, erderaz, erderaz... bai, beti.

– *Ba orduan hemen euskaraz aunitz egiten zen...*

Baña, erderaz geago, baizik, erderaz ge-... ¡cago en las moscas!

– *Bai? edade haundikoak bakarrik egiten zuten euskaraz?*

Ah! bertze e, orduen? mintzeira¹⁴⁷, Mezkiriz ta oie(k), or, tza-, zitzakite uskea, da memen¹⁴⁸ ere zarrek, zarrak, denak, baña...

– *Baina zu gazte zinelarik herri hauetan oraindik euskaraz aski egiten zen...*

Zarre-zarrek bai, zarrek denak... dena, uskeraz.

– *Eta predikua erdaraz, e?*

Bai... yago baitzie... erdaldunek.

OLONDRITZ (Erroibar)

Berriemailea:

Faustino Campos Exposito, 1894

Gurasoak nongo:

Aita: Olondritz / Ama: Olondritz

72. Urrozko feriara (1985)

– *Ibili zarate, gazte-denboran, hemendik Urrotz eta Agoitze aldera? abereak harturik eta, hango... Urrotzen, garai batean, egiten zen feria famatua, ez?*

Bai, bai, Urrotzen, bai.

¹⁴⁵ ‘gurbitzarrak’ izatearen itxura du horrek.

¹⁴⁶ Ondoren agertu *orai* hitz arruntaren aldaera ote hau? hala izatekotan oso bitxia da.

¹⁴⁷ *mintzeiba* aditzen uste dugu hor.

¹⁴⁸ ‘hemen’ da hori, itxura osoaren arabera.

- *Egon zarete han?*
Ni bai.
- *Nondik joaten zineten?*
Emendik eta karretera...
- *Dena oinez?*
Oñes, oñez.
- *Aber, konta ezazu ongi nondik joaten zineten, zein herrietan barrena eta hola...*
Emendik atra?
- *Eta ze ordutan ateratzen zineten eta, kontatu ongi.*
Ze ordutan? seun... etzien beti ordu batean atratzen, ez, e(t)zute... baña enuela emen, ta... Urrozko ferietara ioateko? atratzen giran¹⁴⁹ ta... goizëan, argitu ondoan. San Martin eunian tzien feriak or ee, bai, ta... argitu ondoan, emendik-eta arata? ta oñez, emendik, orai duzu¹⁵⁰ karretera, ordun etzen karreteraik, emendik... Señoríoa, baziren-ta iru erri, iru erri... ttarrak or, bidian, ugalde baztarrean, emen iru. Gero?...
- *Zein dira hiru horiek?*
Ta Gurbizar, Urniza, Larräingoa...
- *Hiru horiek?*
Iru oiek; gero, altzinao bazen bertzoat, Urrizalki(n), bertzoat Zuntzarren, bertzoat Zalba, bertzoat Oskariz; (g)ero? urbilena, Urrotz.
- *Janariz?*
Bueno, Janariz ere bai, bueno Janariz... alde ortan tze.
- *Eta Beortegi; horiek ere...*
Oek-eta, por parte dire, Biorategi ta Erdozain ta denak-eta.
- *Eta Ardaitz ez zenuten ukitzen?*
Ardaiz e...
- *Aparte, apartexeago gelditzen zen...*
Bai, bai, bai, oi, bai.
- *Eta ze ordutan allegatzen zineten Urrotza?*
Koño! pues e, gu elleatiko (g)ira... lleatzen gina Urrotza ta... tze? iru orduz bai.
- *Hiru ordu behar zenuten, hemendik hara?*
Ba, ba, bai. Gero? andik onata? ta ejee! eztaik, andik onata? ta, artsean beran, tor on-, tortzen ginan...
- *Eta bidean gelditzen zineten pixka bat hamaiketako edo almortzu pixka bat egiteko?*
Bai.
- *Non?*
Ta... kasik-eta Oskaritzen, franko... kasik, kasik beti Oskaritzen; andik, ondolik pasa züte eguerdien? ta, eldu-de, an-ta la-, pinta at ardo edan? edo, ya... almortzuekin? ta, aldea.
- *Eta gero, Urrotzen, non biltzen zineten?*
Bah! Urrotzen an, ibiltzen ginen nei ere, eta...
- *Plaza handi horretan?*
Bai, plaza aundi ortan? an tziren feriak, an tziren aziendak, an tziren beak, an tziren... ardiak, tzerriak, auntzak, denetaik.
- *Nondik etortzen ziren haiek guztiak?*
Ba... ondoko erri aetaik, baztarreko erri aetaik-eta tortzen tzien denak.
- *Inguru honetako(ak)? ala baita hango beste balle haietatik ere bai?*
Bai, bai, beittiko aetaik. Obenean? emendik ere obenean, yoaten tzien, ardiak maten zuzten, saltzeko, an, an merkatu iten baitzen ta, emendik eta erri oetaik ere (b)ai, bakar zenbait; ahora, gañeakoak... aundien... aundienak-eta ibiltze(n), alrede(d)or, aetaik. An erri aunitz baitutzu! orretara, erri oietaik, bai.
- *Eta han elkar hizketa eta tratu guztia-eta, erdaraz eginen zen...*
Bai.
- *Han, Urrotzen ez zen euskararik egiten...*
Ez, ez-ez-ez-ez... an denak-eta erdaraz... zien.
- *Noraino egiten zen euskaraz orduan? hemendik beheiti?*
Ardaitzen? bueno...
- *Ardaitzeraino bai...*
Bai, Ardaitzen mintzo zen baño, Ardaitzik beiti? bakar zenbait obenian bazen, eon, bezte aldetik-eta etorria, ezkondu olat eta... orra.

¹⁴⁹ Berriemaile honek, Yrizarrentzat galdekatu genuenean, *ginan* / *ginen* eman zigun, *giran* hau baino egokiagoak diruditenak.

¹⁵⁰ *duzu* hori, 'da' eraren zukako alokutiboa, berriemailea gaztetan AEBetako Kaliforniara artzain joan eta han aurkitu zituen Garazi aldeko artzainekiko harremanetan kutsatu bide zitzaion. Bestelako alokutiboren bat ere ageriko da, gainera.

– *Urritzelkin eta Zuntzarren eta horietan, gutiago?*

Yeh!... guti, guti-guti-guti, an è guti; Ardaitzen bai, Ardaitzen orai ere, orainik ere bei mintzo zu!...

– *Bai?*

Bai; gero... Ardaiztik-eta nonnai, bertze aldera-ta, badagozu Errea, erri bat; an ere bai euskeraz? eztaiz... orai galdiauzu, bai.

73. Beortegira bisita, Bonaparteren mapa gogoan (1985)

– *Egun batez sartu nintzen Beortegin...*

Ah, Bior-, Biortin izan tzirä?

– *Bai, bai, joan den urtean, eta hango andre batek erran zidan, bera haur zelarik, hemengo jendea-eta nola joaten zen Urrozko feriara, eta hemengoak, Olondrizkoak-eta, euskaraz-eta ari zirela eta berak ez zuela konprenditzen...*

Bai, izeiten die, izen daike ori.

– *Zu ere, inoiz edo behin, Beortegitik pasea izanen zara...*

Ni? bai!... Biurtin ni eön naiz... bestetan ere; bestak eiten tzien, denbora guzia, badakizu, urtian ta erri guzietan ta... i bia-iru egun, besta, ta... Biortin izan naiz ni... klaro, ba, bear bada... eztaiz, franko alditz eta ala...

– *Eta zu gazte zinelarik edo aski mutilkoxkorra zinelarik, Beortegin ere zaharren artean euskaldunik izanen zen, ez?*

Bai.

– *Bai, ezagutu duzu?*

Bai, bai... bai, guti, bai, pero bakarren bat, e? ya zarretaik.

– *Zenbat urte izanen zenituen zuk han euskaldunik ezagutu zenuenean?*

Nik ara, ni arara, alda-, Biorteira juaten nitzelaik... emendik-eta, nik ze? lomas... amabortz urte, lomas izein nituen nik, ta orduen, bakar zenbait zarretaik, bazen, baña guti; nik española mintzo nuen an, euskara bera e mintzo nuen, orai beño obeki, amabortz urtetan, baña... an bakar zenbait bazen, baña guti... guti.

– *Ba bertakoa, e? bertakoa ezagutu duzu, e? Beortegin euskaldunik, hango bereko euskalduna ezagutu duzu...*

Bai-bai-bai-bai, zau- zautu, bai, bai, bai. Baña... guk gero? batre, orai eztutzu or nion ere! eskual-, ezpalima(d)a... ta... emen, euskaldunak orai oañik-eta fran(t)zes mugan, emen bai.

– *Bai, Lintzoain aldera eta Mezkitz aldera eta...*

Denak, oetaik; Mezkitzen iun baño obeki, Mezkitzen bai, Mezkitzen oañik badituztu gazteak-eta, euskera ongi mintzatenak. Bai... emen euskera oraitan, eeh!... ondarra galdiko zue; oraiko gaztek? bueno, kolejoetara... joaten badire, or, ikäskola... oetara ta ola... Or il de.

– *Bai, horietan haur asko ari da orain ikasten, bai.*

Bai, bai, bai; oek-eta ikasiko ute, bai.

– *Guk ere baditugu hiru semealaba eta primeran egiten dute (... / ...) eta segitzen dugu etxean...*

Ez, ez, euskara, ongi mintzatu ten batek-eta, lenguae pollita uzu.

– *Oso polita, e?*

Bai... lenguae pollita uzu. Jode! gu Kalifornian, ni Kalifornian eon naiz, t'amarr urte in nituen nik an, t'an frantses euskaldunak bazien auniz. Joe! ta aekin? ta arront euskara mintzo ginen; gipuzkuanoa, gipuzkuanoak ere bai, baña bizkainoa? ura...

– *Diferentea da, e?*

Arront ertsia, e?... ni? gipuzkuanoeki eta? ora(i) ere, noiznai, oietaik, gipuzkuanoak onat¹⁵¹ etortzen tzozute?¹⁵² bea eroatera ta ola; oekin? ta, entendatzen niz¹⁵³ ongi, baña bizkainoak? koño! eztuu... distintoa uzu, bai, distintoa da.



Louis-Lucien Bonaparteren lanetan ageri ohi den zigilua.

ERRO (Erroibar)

Berriemailea:

José Villanueva Zandueta, 1911

Gurasoak nongo:

Ama: Erro / Aita: Ureta

¹⁵¹ onak aditzen uste dugu.

¹⁵² Era hau bitxia da hor, Yrizarrentzako datuak jasotzean zate zein zizte bildu baikenien berriemaile honi. Zizte era, ziurki, Kalifornian egoniko denboran han zeuden Nafarroa Behereko artzainei adituko zien.

¹⁵³ Hemen ere aipatu eragina dakusagu, Erroibarko ohiko era 'naiz' baita.

74. Artzaintzaren inguruan (1987)

– Ze klasetakoak dira zuk erabili dituzun...
Ardiek?

– Bai.

Ah, pues, guk izen tugu... bi klasetakoak: menatzak? menatzak eta marinek, lachas y churras.

– Erdaraz erraten da, erdaraz, lachas y churras?

Erdaraz, marinei? errain de, in da, churras, eta... menatzei berriz? lachas.

– Bi klasetakoak dira orduan, e? eta ze diferentzia dute beren artean?

Pues, marine, da, buru zurie, ta kasi, kasi denak adarrak gabe, ta menatza da berriz buru beltza, ta kasi denak adarraiki(n), te gero menatzak du ellea luzia beiti, ta marinek berriz du... erro llaburre, ori...

– Ilea? artilea?

Ella, bai.

– Erraten dute bi klaseetatik batek balio duela honarako eta Gipuzkoarako, baina bertzeak Gipuzkoarako eta klima humedorako-eta ez duela balio; hola da?

Bai, bai; menatzak balio du? pues, euri aunitz iten badu? pues, segidoan, elletik korritzen tzaio ure, ta segidoan sekatzan da, baña... bertzeak berriz? baitu ertsi-ertsie, ta llagurre ertsi-ertsie, ure ezta sekatzan, ta orgatik ezta balio, ure umedadeikin galtzen du aunitz. Beroaindeko berriz? ure fuertea da, marine, ta menatza berriz arront flojo an, beruendeko; iruzkia ateraz geroztik menatza segidoan badae iltzeler¹⁵⁴, ta marine ez.

– Kontxo, ze gauza, e?

Bai, ta gero... ori, menatza? igual, egun ardi balimetuzu? igual eoen... eoin dire bide? an egoin dire lau? an egoin dire sei?... ta marine ez, marinek kasi beti? denak junto... bai.

– Eta bero handia egiten duelarik, bilatzen dute itzala, ezta?

Bai.

– Eta paratzen dira denak hola, elkarren...

Itzela, joaten dire oianera, sasire... sasire.

– Eta horrela egoteari, nola (erraten) zaio? Gipuzkoan erraten da 'abaroan daude', abaroan, hola, itzalean, gorderik-eta, badakizu, ezta? hemen ez?

Nunbeitik? pues e, itzeliten daude o... itzelian daude o itzeliten daude o... olako zer bait, bai. Pues e batek bertzeai, burue ukurtute, itzela iten baitute... guk ola deitzen gintue: 'itzeliten daude'.

– Zenbat arditako saldoak (artaldeak) izaten ziren?

Bah! pues emen saldo aundik ezta izen; guk izen tugu, iruegun buruteraño, baña booh!...

– Aski handia, ez?

